


JAKiN

10 URTE



AURKIBIDEA

zuzendaritza billa
bizkaiko urien sortzea
langilleen kasta galdua
errien askatasuna
laborantza eta
lenin, kondaira ta mito
estetika berria eliz-gintzan
gazteriak zer espero
lete-sarasola beste bi olerkari
núria feliu 1966-ko kantaria
zelula
"euskaIdunak" orixe-ren poema
aldapeko jaunari

JAKIN	1
jose antonio arana	6
jose azurmendi	22
bitor kapanaga	29
jean louis davant	38
x. mendiguren	44
j. a. letamendia	52
jose r. beloki	56
juan san martin	63
joseba intxausti	75
l. m. zubizarreta	83
antonio maria labayen ..	87
axnutil	93
margolari: xabier egaña	

SALNEURRIA

urtekoa:

Atzerrian, 1,5 \$

alea: Espaiña-n, 25 pzta.

Atzerrian, 0,5 \$



zuzendaritza billa

Ez gaitezen konformatu egindakoarekin.

JAKIN, ez da izan behar lukeana. Hamar urte egiten dituan honetan, gure aldizkariak ba ditu bere baitan prolema eta kezka zenbait.

Honela adierazi digu Rikardo Arregi adiskideak 174-gn "Z. Argia"-n, JAKIN azken zenbakian bide harturik mintzo den artikulotxoan. Atsegiñez biltzen dugu gaur hemen bere iritzi interesgarrien muiña:

“JAKIN-ek lehendabiziko mailla pasa du, orain etapa berri baten aurrean aukera bat egin behar duela uste, erabaki bat artu.

JAKIN zertarako jaio zen ikusirik eta bere asmoak zer ziran ikusirik nik uste dut iru posibilitade auen artean egin behar duela aukera:

1.—Gaur egunean JAKIN-en idazten dute nahiko laiko baiñan ez dugu ahaztu behar aldizkariaren zuzendaritza prailleen eskuetan dagoala. Jose Azurmendi-k dio egin ditekela sakristi usairik gabeko theologi berri bat. Ni ere hortan nago ta ori uste dut JAKIN-ek duen posibilitade bat. Euskalerrria-k ainbeste apaiz eta ain jakintsuak izanik ez ditu euskaldun bezela theologiaren problemak pentsatu. Ori izan diteke posibilitade. Baiñan ba dakit JAKIN-ek ez duela bide au bakarria artuko ta ontan geldituko. Era guztietara pentsatu egin behar dela uste dut.

2.—JAKIN izan diteke euskaldun katoliko pentsamentuaren aldizkaria ta gaurkoz orrelako zerbait dela esan behar. Ba dakit ez dela erabat konfesionala, baiñan existenzialismoaren soroan egifikakoa sarrera txiki batzuek alde batera utzirik ez dut uste gehiago egin danik. Au da behar bada JAKIN-ek duen biderik atseingarriena.

3.—Jose Azurmendi-k dio JAKIN-ek herriarekin bizi nahi duela, herriaren problemak bizi ta pentsatu nahi dituela. Ortarako beharrezkoa, errealidadea bizi nahi badugu beñepein, beste ideialogiko jendeekin itzegitea. Ori izan diteke irugarren aukera, ideialogi guztietako, katoliko edo ez, jendeen arteko elkar izketarako aldizkaria, Euskalerrriari buruz. Au da biderik zailena ta arantzaz josia, baiñan benetakoa. Posible ote da? Era guztietara katoliko-ak ez luteke aaztu behar bentajarekin jokutzen dutela gaurko zirkunstantzietan.

Ez dut uste nere adiskide jakinlariak gaizki artuko dituztenik nik emen esandakoak”.

Honeraiño Arregi-ren hitzak.

Ez dago zer gaizki arturik bere esanetan. Aitzitik, eskerrak ematen dizkiogu elkar hizketarako eta azterketa egiteko tema sortu digulako. Izan ere, ongi da aldizkariaren prolema oro irakurleak ezagutu ditzan.

Halere, ezin komentatu ditzakegu gaurkoz puntu denak. Hasteko, Arregi-k lehenen pontuan dion hori: alegia, "aldizkariaren zuzendaritza prailleen eskuetan dagoala". "Zuzendaritza" deitzerik badago gure ka-soan...

Mintza gaitezen klaroki. Gure ustez, JAKIN-ek ez du izan benetako zuzendaritzarik inprentan ateratzen hasi zanetik. Orain hiru urte zen hori! Esateko, herriarekin bizitzen hastean bertan gelditu zen JAKIN umezurtz.

Zergaitik?

Egin dezagun istoria laburzki.

JAKIN-ek ez zituen gaurko xede berdiñak bere sortze eta lehenen pausoetan. Zenbaki haien azalean ikus ditekenez, "teologilarien yardunak" zebilzkian hasiera hartan. 1956-an jaio zanetik eboluzio bizian joan bada ere, 1964-an emango du Jakin-ek salto berezia.

Urte pare batez "etxean" egon beharrak zearo berritzen du aldizkaria. Orain arteiño, Arantzazu-ko teologi-ixtudianteak osatu dute Jakin, Euskal-Herriko beste apaiz eta praille ikastetxekoen laguntzarekin. Aurrerantzean, ordea, "euskal gazteriaren" aldizkari izanen da. Filosofi eta theologi yardun gorenak erabat baztertu gabe, Herriaren izpirituz eta kulturaz kezkatzen hasten da. Theologi eta filosofi utsak ez dio deus esaten herriari. Ta laikoek ongi ikusten aite alda-keta hau. Horregaitik, gero ta ugariago dira JAKIN-en agertzen diran laikoen idazkiak. Pentsakera oroek dute leku errebistan.

Aldizkariaren mami eta jomugak aldatzean, bidez-

ko zen, noski, zuzendaritza ere, pittin bat bederik, berritzea. Baiña... lehengo eskuetan jarraitzen du, halabarrez-edo.

Xinpleki esanda, hori uste dugu izan dela gure aldizkariaren oraindiano akats nagusia. Eta horrela luzitzen digu kaskoak...

Ez, ez dugu garbitu nahi eskurik auzi huntan, ezta iñoren gain kulparik botako. Hemen ere, behar bada, erruak partitzea izango da zuzenen.

Ez da gaurko burutazioa guretzat, prailleen zuzendaritza kaltegarri-edo gertatu zitekeala errebistarentzat. Praille eta apaizgaiek bete zuten beren egin-beharra estriñako etapa hartan. Ta aspertu gera orain-txe esaten JAKIN ez dela prailleen aldizkari bat gehiago. Areago, konbenziturik gaude, Arantzazutasuna ta praille usaia soñean dituen bitartean, JAKIN ez dela izango euskal gazteriaren kasetara. Garbi, ezta?

Arregi-k ongi baiño hobekiago daki hau guztia. Redakzioako billera guztietan zartarian jarri den auzia den ezkerero. Baiña, praktikan, ahaztu-edo... ez daki-gu, ba, zer gertatzen dan. Jendeak ez du konpromisorik nahi. Horrela, bati eta besteari egiñiko deiak papel saskian dute atseden. Hitzegitea, planak proposatzea, gauza bat da. Eta haunitz bestea Herriaren izpiritu eta kulturaren alde, interesak alde batera utziaz, lan egitea. Pasa zen Jainkoaren graziaz erromantizismo aroa; ez gaitezen euskaldunok haren egarri.

Bestalde, ez pentsa praille ixtudienteok aparteko interesik daukagunik gure posibletasunen goitik dagon errebista bat zuzentzeko. Gaurdaiño, burukomiñak eta eragozpenak bakarrik sortu dizkigu, bai gure ixtudioetan bai gure bizi-moldean. Beraz, komodidadeari begiratuki...

Ekonomiaren aldetik, berriz —barka hainbeste jexti beharra—, JAKIN ez da osatzen bere burua jatzeko!

Etabar... kontu bihurriak ikusten denez. Baiña

*jakin beharrekoak zuzenduko badira eta aldizkaria ho-
beagotzea nahi badugu.*

*Aurrera begira? Ez dago inoiz ere besoak to-
lestatzerik. JAKIN-ek ba du izen bat asko kostata ira-
bazia. Eta ba du bere gain helburu eta konpromixo
handi bat Herriarekin. Erantzuna, gure esku dago,
euskal idazle guztien esku. Hasi baiño ez dugu egin.
Baiña hasiera hau ez dezagun gehiegi luzatu. Ba dugu
eskarmentu Sisifo-ren buruan...*

*Ez gehiago JAKIN-en horrialdetan redakzio tal-
dearen gogoko ez diran artikulorik. Ez gehiago gutxi
gorabehera, pentsakera-batasun eta armonia gabeko
zenbakirik. Bide bat behar dugu markatu; eta ez ogi
apurrekin, txoriak jan, eta basoan galdu ez gaitzen...*

*Hortarako posibletasunak, bat baiño gehiago ikus-
ten ditugu. Baiña, aurretik, zuekin, irakurleekin, euskal
gaztehekin mintzatu behar dugu. Binbitartean, "zuzen-
daritza" guztion eskuetan aurkitzen da. Guztion eran-
tzun eta opinioen zai gelditzen gera, beraz.*

JAKIN.



bizkaiko urien sortzea

Jose antonio arana

Jai aundiak ospatu dira urton Gernikan, uri au jaiο zanetik seireun urte dirala-ta; antolatuak beintzat asko dira, eta aundikeriz beteko jaiak, danak ospatu ez badira be. Gernikarra naiz eta burrundada ori barru-barruan, munean sartunda daukat: sor-lekua dot eta agaitik maitia uri au.

Zergatik ospatu ez bere sortzearen oroipena? Jaiotzak eta euren urteurrenak ospatu bear dirala diñoskue. Bai, danak argi eta garbi dagozanian! Baiña Euskalerriko Kondairak ez dauko argitasun aundirik Erdi-Mendean; eta gure billariak argia biztu ezkerο, ez dira danak argi topetan. Negargarria da, benetan, baiña negarrak ez dituz gauzak garbituten, begiak itsutu baiño.

DON TELLO, GAZTELAR SORTZAILLEA

Zer dala-ta jai orrek antolatu, ba? 1366-ko Jorraillaren 28-an Don Tellok, Bizkaiko Jaunak (?) sortu ebalako uri barri bat: Gernika. Orretarako Lumotik lurralde aldendu ebazan, len, irurogetasei urte ariñago, Lopez de Haro-ak Begoñatik Bilbo-ko uri barria aldendu eban legez. Lurralde zizaldetik beran menpera eroan ebazan Don Tellok lurraldea, eta erriko semeai kendurik, kanpotarrai eskubidea emon. Gizonari buruz, ostertera, euskeldunak erdeldundu. "Euren baimenagaz" diño erri-barri agiriak, "con placer de todos los bizcainos". Baiña lengo eta oingo erriyen baimena antzerakoa dala deritxogu!

Dana dala, uri barri bat sortu zan eta oroigarria dala egite au, baita eskergarria be, deritxoe. Ez bazan orduan Gernika sortu, ez gendula eukiko gaur emen uririk esan nai deuskue? Emen zan Gernike, urira biurtu orduko; eta, ez dira gaur uri aundiak (Barakaldo, Basauri, eta abar) iñork sortu bakoak?

Egiñak eta egillea ospatu dira Gernikan. Don Tello sortzaillearen oroimenez, oroitarri sekulakoa jarri dabe gernikarrak edo euren agindariak, iñork agindu barik egin badabe, be. Gai onetan be danak batera ez gatoz. Emen be, ez ote dagoz danak argi ba? Don Telloren barri batzuk emoten noa, ez da Gernika bakarrik berak sortuniko uria-ta: Markiña, Elorrio eta Gerrickaiz be bere egunetan sortunikoak dira.

Baiña Don Telloren bizitza ondo ulertzeko ariñagotik asi bear dogu Bizkaiko Kondaira, antxiñatik datoz. Gaztelarrak egiñiko alegiñak Bizkaia beraganduteko-ta. Urrengoenak aitatu daiguzan emen. 1288-ko egunetan Santxo IV-gnak. Lope Diaz de Haro, Bizkaiko Jauna, eraill eban eta orren ondoren Jaurerri au menpetu. Gaztelar errege au il zanean, 1295-an, zapaldia amaitu zan eta bizkaitarren estatusanak aldendu, Bizkaia barriro bere erara jarririk. Jaurerria, izetex, Maria Diaz de Haro-na zan, bera zan erailniko Loperen alaba-ta. Baiña, euskaldunen legedian andrak daukezan eskubideak azturik, Bizkaiko Jabetza eskuratu eban Diego Lopez de Haro-k, Bilbo 1300-an sortu ebanak. 1310-an il zan Jaun ori eta orduan ongi jarri zan Jabetza Maria Diaz de Haro-n eskuetan. Don Juan, Alfonso X-en semeagaz ezkontuta egoan eta ezkontza ortik jaiota euken seme bat, aita legez Juan izenez,

baiña "El Tuerto" zeritzana. Bizkaiko Jaurerriren Jabetza ondo-
retu eban gurasoen eskuetatik, baita ere beste gaztelar uri eta erri
batzuen jabetza be. Alfonso XI-en gurasorde be bazan, umezurtza
zan gaztelar errege ori-ta. Ordain eta esker bearrezkoak emon
eutsazan errege onek!: janketa batera deitu eta, bertan, jai eta
abesti artean, eraill eban gure Bizkaiko Jauna 1327-an. Baiña zo-
rionez, ez zan Bizkaia oingoan gaztelaratu berrogei urte ariñago
legez, an egoan Maria Diaz de Haro, illaren ama, bizkaitarren
eskubide eta legediak zainduteko-ta.

Baiña ez egoan lasai gaztelar erregea berezkoak okertu barik.
Orduko bereganatuta eukan errege orrek emaztorde bat, Leonor de
Guzman, bere egizko emaztea aldetuta. Bide oker orretatik jaio
zan Don Tello, gero Bizkaiko Jauna izango zana. Bizitza bai
emon eta kentzeko be ez eukan gaztelar orrek eragozpenik; erriak
azpiratuteko be ez. Olan ba, 1334-an, Bizkaiko Jabetza indarrez
kendu eutsan Alfonso XIgnak. Maria Diaz de Haro, benetako
Jauna zanari. Baiña, geyenetan, txarto etorriak txarto eskuratuten
dira eta, andik ille batzuetara, ostuniko Jabetza utzi bearra jaso
yakon. Jaun El Tuerto-ren alaba bat jarri eben bizkaitarrak euren
Jaun: Maria Diaz de Haro II-gna., bere amuman izena eukena.

Orduntxe agertu zan Haroko Jaunaren azkena ze, andra au
Juan Nuñez de Lara-gaz ezkondata egoan lez, Bizkaiko Jabetza
Haro-ko Etxetik Larako Etxera biurtu zan. Egun auetan, 1350-an,
Jabetza bi asi ziran batera: batetik *Pedro Krudela*, Gaztelako erre-
gea, eta bestetik, Nuño de Lara, Juan Nuñez eta Maria Diaz de
Haro-ren semea. Gure Nuño sei urtedun umea zan eta Krudelak,
au ikusirik, erabagi eban nundik erreze jo Bizkaia menpetuteko:
amurru aundia euken, benetan, gaztelarrak gai onetan. Baiña orain
be bizkaitarrak aurka jarri yakozan eta Don Pedrok ez eban
bete bere naia. Andik urte batera il zan Nuño, zortzi urteduna, eta
alan jarri zan Bizkaiko Jabetzan bere arreba nagusia, Juana,
1352-an. Eta emen yatorku Don Tello, len aitaturunioa, Bizkaiko
Jaun izan nairik: 1353-ko Dagonillan emaztetu eban Segovian
Juana de Lara. Begitu zelan, gaztelaraz, jarri zan Don Tello
Bizkaiko Jabetzan.

Baiña benetako Jabetza eskuratuteko bizkaitarren baimena
zan bearrezkoa, eta orretarako merituak izan bear: or be bide
erreza billatu eban Don Tellok. 1355-an gaztelar erregea alegindu
zan Bizkaia gudaz menpetuten. Eta Don Tello bere Jabetza jabo-

teko, eta Abendañoko Joan bizkaitarren alde egiteko, Don Pedron aurka jarri ziran, eta bera eta bere gudarozteak ondatu ebezan bai Gordexolan bai ta ere Otxandion (1). Bere Jaurerri alde egini-ko egite bakarra au ete zan nago! Dana dala, bizkaitarren gogogo irabazi, ta gaztelaratu zan bariro Jaurerriko gaiak utzita. Baiña bizkaitarrak Jaunaren beltzekeriak ikusirik asi ziran bariro gogo txarrez Jabetza au ikusten. Etsaitasun au benetan gorrotatu zan Don Tellok Abendañotarra eraill ebanean, 1356-an, Bilboko Arilza torrean. Bizkaitar onek lotsagarritu eban zaldi-kirol estualdi baten eta orregaitik zan Don Telloren gorroto gorria (2). Olan, ba, Don Tello bere Jabetzatic aldatu eben bizkaitarrak eta or geratu zan bere Gaztelako uri eta erriakaz, Bizkaitik kanpora egotaldi batzuk egiten.

Don Pedro gaztelarrak gogo barruan eukan bizkaitarren azpitik urten eban eguna eta zur egoan noiz edo noiz bere naia betetako, au da, Bizkaia menpetuteko. Baekian gudaz gaiztoak zirala bizkaitarrak eta guda bitartez ezala erreza arek menpetutea. Zapokeriko bide artu eban orduan: 1358-ko ilbeltzian Sevillara deitu eban Don Juan, Aragoako errege-seea. Morroi au Don Telloren koñatua zan, Isabel de Lara-gaz ezkondua zegoan-da (3). Bere ametsak eta gogoak argi dirautsoz Krudelak Don Juaneri: Don Tello eraill eta gero Bizkaiko Jaurerria aragoatarrantzat izango dala. Orretarako bere laguntasuna be bearrezkoa izango dala dirautso. Don Tello Agilar aldetik ebillen orduan eta ara joan zan Don Pedro asmatuniko obena bukatzen. Baiña Don Tello be zur egoan eta erdi-anaia Agilarrera eldu orduko iges egin eban Bermeora eta andik, txalupa batean, Iparraldeko Baionara.

Eziña ikusirik, lurraldera itzuli da don Pedro. 1358-ko Bagilla zan. Andik egun batzuetara Batzarra zan Gernikan. Eta ara doa Don Pedro, Don Juan aragoatarra lagun. Lagun jarriten dira bizkaitar artean eta Don Telloren utsunea betetako Don Juan eskeintzen dau gaztelarrak bizkaitarrari. Baiña Batzarrak ezetza emoten deutse eta Bilbora doaz biak: an jazo zan astokeri negargarria ona izango litzake ixildu... baiña ez!: lenago be Don Tellok eginikoa zabaldu dogu-ta. Zubialdeko torrean eraill dau Don Pedro bere laguna, eta leiotik kalera jaurti dau gero. Bizkaitarrak ikeratuteko? Ez zan olakorik jazo! Bizkaia Jaun barik dago, Don Pedrok, arrotuta, baietz uste badau be! Eta Jaun barik zan Bizkaiko Jaurerria egun aretan, ze, urte batzuk zirala, benetako Jauna, Larako

Jauna be erail eban Don Pedrok. Orregaitik, Don Tello barriro Jaurerrira etorri zanian (1366-ko Jorraitlak, 14) baekian ezala bera Jauna, emaztea ilda egoen-da. Orregaitik bearrezkoa zan bizkaitarrak atzipetu eta, orretarako, bizi-itxura emon eutsan ilniko emazteari: bera kanpotik zan artean Juana giltzapian egoala esanik, barriro agertu zan Burgos-en “Juana”-gaz batuta. Eta etxeratu be egin eban emaztorde ori. Olan gauzak “argituta”, Bizkai aldetik agertu zan eta, Jorraitleko 28-an, Orduñan egoala, Gernikan uria sortu eban. Uri-barri agiria edo “carta puebla” badago, bai. Baiña onartu ebezan bizkaitarrak bertan erabaginiko ondoreak? Emon eben bearrezko baimena (4) uri au sortzeko? Gerotxoago, Urrilleko 4-an Gerrikaiz uria sortu ebanian, ez eben bizkaitarrak sortze ori onartu, ikusi ebelako ez zirala danak argi Don Telloren egitetan (5). Urtiak zirala euken bizkaitarrak alde-tuta Jaun ori, eta orain, zoritxarrez, izen ona be galduta eukan. Ez ziran ba, ez, danak argi eta garbi 1366-ko Jorraitlean (6).

Dana dala, or dago Gernika uri eginda, eta bertan jarrita Don Tellori eskeiñiko oroitarri sekulakoa.

ELEIXATEAK ETA URIAK

Antxiñako Bizkaiaren mugak oingoak baiño laburragoak ziran. 923-an Fernan Gonzalez, gaztelar Kondeak, idatziniko agiriak diño: “De ribo de Galharraga usque in flumen Deva, id est tota Bizcaia” (Galharraga erreka-tik Deba-raiño, au da Bizcaia osoa). Durango inguruak (1628-an (7), eta Enkartazioak (8) gaiñeratu ziranean, Bizkaiaren eremua oingo erara eldu zan, gitxi gorabera. Baiña orain baiño zabalagoa iñoiz izan zan (9) ze lurralde batzuk galduta daukaz-da:

- 1471-an Castro Urdiales
- 1480-an Villaverde
- 1489-an Aramaioa
- 1491-an Laudio
- 1820-an Linpias eta Colindres.

Baiña galtze onekaz ez eban kalte andirik izan, 1785-an Oroz-kok emon eutsazan 105 kilometro-ta (10). Lurralde guzti onek politikako gaietan batasuna euki baeben be, iñoiz be ezeben lege arloan batasunik izan. Enkartazioak Abellanedan, Sopena aldean,

euren batzarrak eukezanak, 1394-ko Lege Zarragaz zaituten ziran. Durango eta inguruak, Gerediagako zuaitz pean euren batzarrak eukezan eta 1150-an errege napar batek emoniko Legea zan aren burua. Antxiñako Bizkaia, Gernika inguruan apurka-apurka egiñikoa, 1342, 1452, eta 1526-ko Lege Zarragaz ebillen.

Lurralde onetan, erriko arimatik sortuniko legeak izan ziran beti zuzendariak ("volksgeist" dirautsoe lege onei alemandar legejakintsuak). Lurralde onetan —diñot— XII-tik XVI-raiñoko mende barruan uri barri batzuk sortu ziran: euren sortzailleak emon eutsezan gaztelera-zko uri-aginduak eta sortu ziranetik ona gaztelera-zko legedia euren barruan bilbatu da (11). Onak dira Bizkaiko uriak eta euren sortzaille eta jaiio-urteak:

Mende	Urte	Uri	Sortzaille
XII	1150	1—Durango	Naparroko Santxo VII-gn.
	1199	2—Balmaseda	Lope Santxez de Mena
XIII	1229	3—Orduña	Lope Diaz de Haro
	1236	4—Bermeo	Lope Diaz de Haro
	1287	5—Lanestosa	Lope Diaz de Haro
	1299	6—Plentzi	Diego Lopez de Haro
XIV	1300	7—Bilbo	Diego Lopez de Haro
	1304	8—Otxandio	Diego Lopez de Haro
	1322	9—Portugaleta	Maria Diaz de Haro I
	1325	10—Lekeitio	Maria Diaz de Haro I
	1327	11—Ondarru	Maria Diaz de Haro I
	1338	12—Billaro	Juan Nuñez de Lara
	1355	13—Markifia	Don Tello
	1356	14—Elorrio	Don Tello
	1366	15—Gernika	Don Tello
	1366	16—Gerrikaitz	Don Tello
	1372	17—Ernu	Don Juan
	1375	18—Miraballes	Don Juan
	1376	19—Mungia	Don Juan
1376	20—Larrabetzu	Don Juan	
1376	21—Erregoití	Don Juan	

Uri onen sortzean dauko Bizkaiko Kondairak bere txatalik goratsuena. Orregaitik gai oneri buruz lerro batzuek az ekin bear dogu.

* * *

XII garren mende erdialderaino ez eben bizkaitarrak ezegutu euren lurraldean uririk: ez ziran Bizkaian uri-batzarrak, erri-batzarrak baiño. Erbestean olako uriak zirala eun urte be ba ziran, baiña nekez barri onek antolatu ziran gure artean; Gipuzko aldean, ostera, errezago sartu ziran Gaztelako oitura onek, erri onen indarra benetakoa zan emen-da. Orrexegaitik Gipuzkoko uriak lenagokoak dira Euskalerrian. Urietako bizimodu barri au Durangon eta Balmasedan lenbiziko sortu eta antolatu zan: uri biok XII garren mendean sortu ziran eta biak Bizkaiko Jaurerititik kanpora, Enkartazioak eta Durangoko inguruak eziran ondiño Bizkai aldekoak-eta: argi zan, ba, sortze onetan erbesteko legedia. Urrengo Bizkaiko uria Orduñan jarri zan, XIII garren mendean, Euskalerriko mugak ur zituena. Atzenez, 1236-an, Bizkaiko ingurua idigi zan eta Gaztelako uri legedia eta bizimodua sartu ziran Bermeon. Begiratu daigun banak zirala Gaztelako eta Euskalerriko uriak: arek bortuan sortunikoak ziran, lurak jendeztatu eta eutsiteko (12); onek urituniko erriak, uri biurtu orduko erria an egoanda. Ea eta Bermeon gagozan, bertako gizon ospetsu batek erderaz esanikoa aitatu bear dogu gai oneri buruz:

Mira a Bermeo cercado de maleza
cabeza de Bizkaia y sobre el puerto
los anchos muros del solar de Erzilla
solar antes fundado que la Villa (13).

Argi diñosku uria beranduago sortu zala Erzillaren etxea baiño. Onek uriak, bata edo besteagaitik sortunikoak, ez ziran Bizkaian jarri berez jaiota, eta orregaitik zeo-zer-en aurka jarri ziran bertoko legedia eta politiko batasuna apurturik; nonork diño legez (14) uri onek ziran sortzean, "enquistaciones urbanas en la primitiva Vizcaya popular de las anteiglesias". Gai onetan berdintza argiagoo izateko, gogoratu daigun uriak orduan itxiak zirala, au da, esidunak, ormak sarratunikoak. Ormetatik kanpora zan lurraldi orma bakoa, "lur laua" deritxoguna, ez dana zelaia zalako, andarri bakoa zalako baiño. Oiturazkoa zan orduan Bizkaian, eta Euskalerrri guztian be, "lur laua", eta uri-itxiak, Labairuk diño legez (15) bizimodu barria zan garai aretan, gero 1526-ko Lege Zarrak alako legeak euki arren.

Lur lau onen auzoak eukezan lege-batzarrak eleiz ateetan, au da, eleizatik urtekeran aren inguru edo aurrean: Henao Jaunak (16)

aitatuten dauz "eleixateak" eta gure izketan be egunaro darabilgu "eleixalde" itza, ordutik ona bizirik erri izkuntzan gordeta. Berton, Gernikako inguruan dago Erregoiti, 1375-an uritunikoa: ba, bertan banatuten dira itz eta leku bi: "eleixalde" goi aldean, eta "uri" be aldean. Elexateak ziran, ba, lur lauaren buruak.

Antxiñako Bizkaiko elexateak eukezan bakoitxak bere ordezkoa Gernikako Batzar Nagusietan (17). XV garren mendean ondarrerarte batzar onetara sarbide zabala zan, au da, erri guztiak eukan mintzabide ta aburua. Baiña garai aretan, Bizkaia gaztelaratu zanetik ona, galdu zan erriaren askatasuna eta antxiñako batzarrak galdurik Rejidoren eskuetn geratu zan agintaritza. Antxiña baserria bazan euskaldunen nekazaritzaren eta bizimoduaren biotza, uriak sortu ziranetik onek artu eben nausitasuna. Erromatarren denporetan be ezagutu genduzan Euskalerrian "villa" batzuek: "dominus" zan orduan jabe eta bere ordezkoa "villicus"; onen etxe inguruetan beste etxe batzuek be jarri ziran, danak baten menpean. Orduan asi ziran lenengoz arrituten gure asabak eta ordutik ona dotaz eleixateak eta uriak burruka. Baiña ezin-ikusi onek ez ziran gure asaba artean jaio urietan etxeak batuten ziralako; eretz onek ez eban ekarri prolemarik. Aurkatasuna sortu zan izpiritu barriagaz batera: instituzio barriak, legedi barria, goitik berakoak ikusirik arrituta geratu ziran, bai, orduko euskaldunak.

Gure errien aldakuntza eta urien gara ondo be ondo ikusi eta erakutsi dausku Karo Barojak (18), batzuetan erromatarren alde larregi egiten badau be, esate baterako, toponimo gaietan. Aren gainera gauzatxo bi esan gura neukez gure onomastikaren buruz. Garai aretan, etxe geienak beetxeak ziran, au da, mailla batekoak, eta etxe-gaiñak zur edo lastozkoak; agaitik ziran erreketak ugari, kezuloak edo tximiniak be eziran etxeetan jarri XIV garren mendean ondarrerarte-ta. Orregaitik, arrizko ormak eta teillazko gaiñak ipiñi ziranean, barri agertu ziran gure asabaren begietan eta ango semeak ordutik ona abizenez daroe "Ormaetxe" edo "Tellaetxe". Olan ba, apurka apurka, aldatu yakuz gure uriak (iriak, hiriak) asko be sendoagoak eta bizirik dagozan toponimoak diño legez, arresiak ondo zainduak (19).

Euskal errietako arauen jatortasuna ez dago azalean barruan baiño: instituzioak, legedia, gizarte arazoak, bizi modua, eta abar. Eta arlo onetan gertatu zan koskarik aundiena gaztelaraz sortu ziranean uri barriak. Jaun sortzailleak ez-ziran euskaldunak, gaz-

telarrak baiño; erbesteko prolemak eukezan, ba. Problema onen erabagi bat zan uriak sortzea, Rekonkistan jabetuniko lurraldiak zainduteko. Argi diño PEREZ DE URBEL-ek (20) "yermo foramontano"-ren sortzea irazkindukeran: Alfonso I-ak egin eban erasoaldian ondorea zan bortu au ze "omnem illam terram eremavit", au da, bortu au sortu eban muga lez ipinteko. Makiña bat gizon agertu ziran, ba, iparraldeko mendietan errege arek ekarrita eta angó jendetza geitu zan lurrak gixituagaz batera: premiña barri bat erne zan, ba, Gaztela aldean, au da, lurrak banatu bearra. Olako premiñarik ezan iñoiz be igerri Bizkai eta Araba aldean, ze "a suis incolis reperiuntur semper esse possessae" (erritarrak ziran lurraldi onek betitik da). Baiña mendiak utzirik, apurka apurka, joan ziran gaztelarrak barriri bortua jendeztatuten eta angó lurrak banatuten. Orduan sortu zan urien bearrizena: len esan dogu lez, lurralde barriak zainduteko. Urien sortzeak, ba, gudagaz zer-ikusirik ba dauko (21). Olan ikusten dogu zelan, Gaztela zabaldurik, sortu ziran uriak: Leon (1017), Najera (1076), Sepulveda (1076), Sahagun (1085), Logroño (1095), Miranda (1099) eta abar. Urietako bizi-modua be uriekaz nastu zan eta erne ziran eginbear barriak. Laster, ba, XII-garren mendean, onuradunak ziran urien sortzeak, salerosketak, lantegiak eta azokak zirikatuta. "Polos de promocion" antxiñatik yatorkez, ba eta andik ona Gaztelako uriak eta "emoniko" fueroak batera ebiltzan. Lenengo azoka-baimenak Alfonso X garrenak emonikoak dira, diru bearra euken errege onek-ta. Idaztegun batzuk ezegunak doguz: Sevilla 1254-an, Badajoz 1258-an, Alcaraz 1268-an, Cadiz 1284-an, Talavera 1294-an, eta abar (22). Lenengotan guda bidez sortu ziran uriak orain sortzaillen premiñak jarriten dauz. Inguru onetan bizi dira gure Jaunak Gaztelan eta onek ikusi eta ikasi ta, sortu ebezan gure uriak. Bizkaian ez dago Rekonkistarik eta lurraldiak jendeztuteko premiñarik be. Orregaitik "karta puebla"-k ez dira emen jatorrak, ez bearrezkoak.

Naparran be oartu eban Arturo Kanpionek: "Aragoa eta Gaztelaruntz . . . uriak gitxi eta estuak dira . . . baiña Euskalerrian besteriko fenomeno agertzen yaku: uriak txikitu eta batera ugaritu; . . . euskaldunen berezko bizi-tokia, aldeko gora berak aurka ez dagozianian beintzat, baserria da eta, geienez, errixka" (23).

Baiña euskal errietako arauen aurka ez dagoz bakarrik urien azalak, uriak egin ebezan alegiñak lur laua menperatuteko baiño.

Gaztelan “errixken agindariak uriak dira; uria biurtuten da Jaurerria aren mugak arturik” (24). *Bizkaian oster, lur laua da agindaria. Olan oartu dau ORTEGA GALINDO-k* (25): “Españiar urietatik agintzen bada, Bizkaian oster, lur laua da agintaria; lurraldeko bazkunak dauko danean agintza”. *Beste itz batzuekatz diñozku Bonifazio ETEXEGARAI-ek*: “Bizkaiko errien berekizko arauak dira “elexateak”; onek dira sendi guztien batasuna, erri onurak zainduteko. 1845 arte au izan zan Bizkaia jaboteko bide bakarra” (26).

Gaztelan eta Euskalerrian arlo onetan dauan berdiñezak ondore bi emoten deustaz:

- a) *batetik argi dago gure Euskalerrian “betik gorako” demokrazia zala; Gaztelan, oster, “goitik berako” agintza,*
- b) *bestetik, Gaztelako Jaurerriak uriak baiño ez dira (Lara, Haro, Agilar, Zamora, f. a.) eta euren inguruak urien izen eta agintza dauke. Bizkaiko Jaurerria ez da uri bat bere inguruagaz, ezta uri batzuen batasuna be; gure Jaurerria osatuten da lur laua eta uriakaz. Ara geiago: mende ta erdi baten (1487-tik 1630-ra) Bizkaiko Jaurerria osatu eben lur lauako elexateak, uriak aparteko legedia euken orduanda. Uriak eta elexateak bat ziranean ez eban onek onartu uri artean bururik, eta Bermeo “caput Bizcaiae” deituten bada be, ez eben olako bururik orduan izan.*

Politikako arloan, ba, aurka ziran bizkaitarrak eta euren Jaun gaztelarrak: aurrezkoa zan doi-doi onen naia, uriak sortu eta lurraldi zabalak emon, urien bitartez Bizkaia guztia menpetuteko. Jaunen gogo au oartu eban BALPARDA-k (27), baiña beste bidebatetik joteko: danok dakigu Lege Zarra erritik sortuniko legedia zala; Balpardak billatu dau emoniko Fuero bat be:uriak emoniko fueroa eukela ba dakigu bai ta ere eureri Jaunak emoniko lurraldiak ia-ia Bizkai guztia betetan ebela be; baiña uriari emoniko fueroa edo uri arauak ez ebazan onartu bizkaitarrak, urietako auzoak baiño.

Orain esan daikegu Bizkaiko urien sortzea nai ta naiezkoa izan zala. Ez dira berez sortunikoak, politika arazoak eta dirutzaille Jaunak sortunikoak baiño. Olan, ba, Euskalerriko urilegedia eratu barik geratu zan, ez eban euki jaioteko abagunik-eta (28). Eta uriak euskal legediatik kanpora sortu ziran legez, gure

legedia maingurik osatu zan utsune au gazteleraz beterik: gure lege zarra elxateetan eratu zan eta euskaldunen lege-asmoa landara baten legez erriko arazoetan asi zan (29).

Uriak sortzeko zuzu bi aitatu dotaz: politika eta dirua. Baiña zuzu geiago be ba dagoz egite onetan. GARCIA DE CORTAZAR-ek (30) gertaera au oiñartzen dau iru zergati onetan: jendeztatzeko premiña, ekonomizko gararen eskaria, eta batzuetan, auzoko errien lapurreta eta indarkerien bildurra. Bonifazio ETXEGARAI-ek be onexek iru oiñarriak billatuten dauz (31): guda-premiñak, ekonomiareen gora-berak eta urien berezko garak.

Ba dira ondiño aitatu bakoak be. Batzuetan, Plentzin, esate baterako, Lope Diaz de Haro Jaunak emon eutsazan "términos para matar ballenas del agua que corre por medio de Barqueio fasta Portugalete" (Bakio-tik Portugalete-raiñoko ur zabalak baleak atarateko). Baiña elburu onek ezoiak dira bai ta ere Karmelo ETXEGARAI-ek aitatuten dabena (32) Markiña eta Eloorrioko sortzean: bide-lapurren aurka gogortuteko uria. Uri bi onetan au zan bai lenengo elburua, baiña ez bakarra. Aburu onen aurka arin be arin jarri zan UNAMUNO (33): urien sortzea ekonomiareen krisisen ondorea da; krisis onetan Euskalerriko ekonomia, ordurarte baserrikoa, merkantil biurtzen da. Orduan jaio zan sekulako guda nekazari eta merkatarari artekoa, orduan jarri ziran aurka lur laua eta uriak. Beste elburu bat be aitatuten dau Unamunok uri sortze onetan: diru bidea. Uriak Jaunen eskura daroe errez be errez sarreran batuniko zerga edo inpuestoak. Argi dago asmo au sortze-karta batzuetan: "villas en que morasen para nuestro servicio". Ezin dau aburu au Balparda-k ixildu (34) gaztelarren jausaldia onarturik: "Bizkaia zan Jaunarentzat diru bide ugaria eta "urien sortzeak geituten eutsezan irabaziak eta diru ardurak erreztu". Pozik aitatu dotaz Unamuno eta Balpardaren aburuak onek geienetan aurka ebilkuzan-da.

Ala ta guztiz, Unamuno ukatu bearrean nago. Gai onetan bilbotar ospetsu onek esanikoa bere euskal-kalteko tesis barruan dago. Emen be Gaztelan meritua dau antxiñako bizi-modutik atara euskulako. Len ekonomia arloan, eta orain bere gaztelerazko izkuntza emonik gure "basoko" euskera utziña. Unamuno-ren eritziz, len Gaztelako eskutik utzi gendun legeaz antxiñako ekonomia, oin be utzi bear geunke gure izkuntza, Gaztelakoa arturik. Nere ustezko erantzun laburra au da: euskera aurka Unamunok erabilen teoriak ez dauko egunotan indarrik eta argi dago or bide

okerretik jo ebalá. Ekonomi arloan ez ziran etorri gaztelarrak ezer erakusten, ze gure artean egimen nagusia nekazaritza bazan, bá ziran orduan euskaldunen artean itxas-gizon eta arrantzale kemenak, lan-gizonak. Baiña gaztelar baten esakerakaz emongo deusat erantzuna (35): "Euskaldunen bizi-moduari buruz esan daikegu 1180-tik (Durango baiño ezan sortu ondiño, Don Migell, eta bera Naparroko erregeen eskutik) itxas-bizi begiragarria zala". Beste mende bat beteta, 1296-an, sortu zan "Hermandad de las Marismas" deritxoena, eta ordurako bost uri baiño ez ziran Bizkaian sortuak.

Egizko esakera bat be badiño Unamunok: uriak sortu zira-netik ez da euren eta lur lauen arte bakerik izan. ORTEGA GALINDO-k (36) diño lez aurkatasuna da Bizkaian "constante historica", au da, Bizkaiko edestiagaz bat eginda doana: ordurik ona gudan dagoz gogo edo izpiritu bi: euskaldunena, banatzaillea, eta, osterá, gaztelarrena, biltzaillea, Erromako legediatik ikasinikoa (37).

Gregorio MUJIKAK, bere Eibarko uriaren kondairan (38) emoten deusku egun aretako irudi bizi bat: uri ori sortu zanean, lur lauako auzoak ez eben nai bizi uriko orma barruan; ez eben nai euren solo eta landari, lur lauari, uri izenik emotea. Eurek eziran "la villa"; "la villa" barrukoak ziran. Eurek ziran "jurisdicción, tierra de Eibar" baiña eziran "la villa de Eibar". Aburu au Bizkaiko orientzat be balioduna da: bizkaitarrak be ez eben nai euren askatasuna galdu erbesteko bizi-modurantz jorik eta eurek erabagi bako kontrola onarturik.

Ez ebezan, ba, bizkaitarrak onartu uri sortzeak. Uri-barri agirietan argi ziran eskubideak eta betebearrak; ez euken bizkaitarrak eskubide bearrizenik, danak eukezan berez erritik sortuta-da. Zertarako, orduan, uriak? Betebearrak leporatuteko? Olan ikusi eben eregoitiarrak euren eleixatea uritu ebanean Don Juan Jaunak: fogerazioan ondoren euren zergak larregi geitu ziran eta uri arauan aurka jeiki ziran. Batzuetan lengoaz bestera jaso zan; esate baterako, Markiñan: angó inguruetakó lurraldiak zainduteko bearezkoa zala eretxi eben gaztelu antzeko uri bat sortu; baiña inguruetakó biztanleak urituteko uri barruan aparteko eskubideak bearezkoak ziran. Fuero au emonaz, bildur-landarea erne zan batera Jaunaren ariman: zer, lur laua eremuturik (ango jentea uritu ezkeró), aren zergak galduta eukazan. Orregaitik, Markiñako uria sortukeran, bere fueroan argi idatzi eban: "Ez beitez baserritarrak urira bizitzen etorri ez daizan Jaunak galdu aren

petxo eta zergak" (39). *Nortzuk etorri ziran, ba, uri onek jendeztatuten? Erbestekoak, deritxot!*

Bizkaiaren obarirako edo Jaunaren diru-kutxa betetako sortu ete ziran ba Bizkaiko uriak? Nere erantzuna argi dago emonezarrren be. Begitu ostera Bilbo sortu eban Jaunak uri oneri emon eutsan lege zar-kalitezko araua, salerosketako arloan:

"ninguno sea osado de tener compra ni venta ni regatería ninguna en todo el camino que va desde Areta a la Villa de Bilbao".

... Arlo onetan betitik etorken bizkaitarri eskatasuna eta, bear dan lez, ez eben Bilboko sortaillearen araua obeditu. Eta arek gazoniko bidean eta beste bide eta leku guztietan be euren salerosketako askatasuna erabilli eben, Jauna esku utsik utzirik.

Uri eta lur lauaren aurkatasuna doa alan geiturik. Len aita-tuniko uri guztiak sortuta, gaztelarren indarra be geituten doa, Jaurerria Gaztelako erregen eskuetara doanean. Errege Katoliku deritzatenak anditu eben indar biltzaille au eta eurekaz aurkatasun ori izugarritu zan. Azkenez, 1487-ko Bagillaren 22-an Garcia Lopez de CHINCHILLA-ren Kapitulo edo araua erabagi zan: uriak eta lur laua banandu ziran asarre aundiagaz, eta arek Bizkaiko Batzar Nagusietan eukezan lekuak galdu ebezan. Galdu edo utzi? Ze, Kapitulo orren arau baten uriak diño: "Bizkaiko Jaurerriaren Batzar Nagusira urien batek ordezkoa bieltzen badau"

"les sean derribadas casas e non sean más tornadas a facer", "e que el escribano que signare la procuración que pierda el oficio y le corten la mano e que el procurador que aceptase la tal procuración y usase de ella en tal Junta muera por ello" (40).

Gorroto bizia zan, bai, Bizkaian egun aretan.

Eziran ba barriro Gernikako Batzarretara joan Bizkaiko uriak, eta orregaitik 1526-an azkenengo Lege Zarra batu eta idatzi zanean ez eben an eskurik sartu. Bereizte onek irauñ eban mende ta erdi, 1630-rarte. Urte onetan, iraillaren 11-an, Lope de Morales Korrejidore zala (41), izenpetu zan urien eta lur lauaren itunea, Bizkaiari batasuna ekarrena. Baiña batasun au ezan buruzkoa baiña izan, ze urrengo urtean sortu zan barriro urien aurka atzeraldí gorri

bat gatzaren monopolioa dala ta ez dala. Argi eta garbi esan eban orduan Bizkaiko Batzarrak urietako agintariagaitik:

“que eran unos traidores los del Gobierno y todos los de capa negra, que era mejor matarlos y acabar de una vez con ellos y que Vizcaya fuese gobernada por sus verdaderos y originales vizcaínos los caseros de las montañas que no la venderían como aquellos que allí estaban por sus particulares fines y acrecentamientos” (42).

1634-ko Jorraillan sei bizkaitar urkatu ebezan Bilbon uritarrak gorroto au erakutsiaz.

Amaitu ete dira gorroto onek? Arbola txarren sustraiak bizirik dagozan artean, ez.

(1) Pedro NOVIA DE SALCEDO: “Defensa Histórica, Legislativa y Económica del Señorío de Vizcaya y Provincias de Alava y Guipúzcoa”, 1851-an Bilbon argitaratua. II garren Tomoan, 290 orrialdeetan. Barri onek artuten ditu, berak dihon lez, “Crónica del Rey Don Pedro”-tik, eta beste edeslarigandik: Garibai, Mariana, Moreth, eta abar.

(2) Pedro NOVIA DE SALCEDO: aitatuniko idaztian (a.i.). Luis Antonio DE VEGA: “El fratricidio de la torre de Arliza”, Euskalerrriaren Alde, 1923-ko irailian, 349 or.

(3) Nuño, Bizkaiko Jauna 1352-an il zana, Juana Don Telloren emaztea eta Isabel nebarrebak ziran.

(4) Alan eskatzen dau, beintzat, Lege Zarrak.

(5) Pedro NOVIA DE SALCEDO: a.l., II Tomoan, 335 or.

(6) Arrituta geratu giñan irakurririk Bilboko izparringi batean (“El Correo Español-El Pueblo Vasco”, 1966-ko Dagonillaren 13) gernikar batek idatziniko lana: Don Tello erdi santu agertzen zan bertan. Ama Birjiñaren zaletasuna agirian ei dauko Don Tellok ze: 1) gernikarrak eliza barri bat egiten asi ziranen 1417-an, Mariari eskeñi eutsen, Don Telloren zaletasuna gomutaturik; 2) uri-barri agirian diñolako Don Tellok: “la bienaventurada Virgen gloriosa Santa María su madre a quien nos tenemos por Señora e abogada en todos nuestros fechos...”. Lenengoari buruz uste dot Andra Mariak ez eukela Don Telloren bearrizenik Gernikan eta Bizkaian zaleak eukiteko. Berrogetamar urte ziran Don Tello Portugal aldean il zanetik gernikarrak Andra Mariaren eleiza asi ebenean eta, nere ustez, Jaun aren oroipenik ez eben eukiko. Bigarrenari buruz, oartu ete dau gernikar idazlari ospetsu orrek esakera ori erabide zala olako idaztietan? Bilboko Fueroak diño: “Virgen Bienaventurada Santa María”. Fuero au berriztu

zanean 1310-an iñoan: "Virgen Bienaventurada Santa María su Madre". Onen gafiñera, zeruko bidea artzeko neiko ete da "Jauna, Jauna" esatea?

(7) Florencio AMADOR CARRANDI: "Documento interesante", Karmelo Etxegarai-eri eskeiñiko omenaldian, 1928, 341 or.

(8) Aristides de ARTIÑANO: "El Señorío de Vizcaya Histórico y Foral" 1885, Barcelona, 205 or. Francisco ELIAS DE TEJADA: "El Señorío de Vizcaya" Madrid, 1963, 14 or.

(9) Jakiña da antxiña Euskalerrri guztiak eukela Bizkala izena. Esate baterako, 1496-an Von Harff alemandarra, Santilagora bidez gure erritik joan zanean, "Pascaien" sartu zan, Lapurdin ondiño egoala. Jaurerri onen izena zabaldu zan Euskalerrri guztiari deituteko. Ez dotaz emen onek lurralde zabalak aitatuten, Bizkaia politiko batasuna eukena baiño.

(10) Jose Angel GARCIA DE CORTAZAR: "Vizcaya en el siglo XV: aspectos económicos y sociales" 1966, Bilbao, 63 or.

(11) Adrian CELAYA E IBARRA: "Vizcaya y su Fuero Civil", 1965, Iruña, 85-88 or.

(12) Ikusi gero Perez de Urbel-en teoria.

(13) Alonso de Ercilla: "La Araucana" XXVII garren kantuan.

(14) Francisco ELIAS DE TEJADA: a. i. 13 or.

(15) Estanislao Jaime de LABAIRU: "Historia General del Señorío de Vizcaya" Bilbo-Madrid, 1901, I Tomoko 397 or, 1526-ko Fueroak ("Fueros, franquenzas y libertades de Vizcaya") I Tituloan, VIII garren arau edo legean diño: "En qué manera pueda el Señor de Vizcaya mandar hacer villa". Baña lege onen ondoren ezan Bizkalan uririk sortuko.

(16) Gabriel de HENAO: "Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria, enderezadas principalmente a descubrir las de Vizcaya, Guipúzcoa y Alava, contenidas en ella", 1894, Tolosa, I Tomo eta Liburuan, 238 or.

(17) Ez eban iñoiz euki Bediak, eta Derioko elezateak bere ordezkoa euki eban Gernikan 1688-tik gora.

(18) Julio CARO BAROJA: "Los Vascos" 1958, Madrid, 21-113 or.

(19) Gernikan, esate baterako, ez dogu iñoik be aresirik ezegutu, baiña toponimo batzuetan argi dago antxiñe ba zirala: "Portal de Santa Ana" irakurri dot 1888-ko dokumentu baten.

(20) Fray Justo PEREZ DE URBEL: "Los Vascos en el nacimiento de Castilla" 1945-ko otsailaren 16-an Bilbon emoniko itzaldia, 1946 argitaratua, 5 or.

(21) Alfonso GARCIA GALLO: "Curso de Historia del Derecho Español" 1948, Madrid, 179 or.

(22) Gonzalo SOTO FERNANDEZ: "Antigua tradición ferial española" Interdis-en, 28 gn. zembakian, 1966-ko iraillak 23.

(23) Bonifazio Etxegarai: "La vecindad: relaciones que engendra en el país vasco" RIEV-en, 1932-ko Urrilla Abendua, 547 or. Emen aitatuten dau Kanpionen esana.

(24) Alfonso GARCIA GALLO: a. i. 299-300 or.

(25) Julio ORTEGA GALINDO: "Los Caballeros Corregidores del Señorío de Vizcaya" 1965, Bilbo, 332, or.

(26) Bonifacio ETXEGARAI: a. i., 547 or.

(27) Gregorio de BALPARDA: "Historia Crítica de Vizcaya y de sus Fueros" 1945, Madrid. IV gn. Tomoan tesis au darabil.

(28) Euskalerrrian ba dagoz uri batzuetan erritik sortuniko arauak be: Iruña

eta Gazteizko Auzotasunen Arauak erritik sortuak, ifioren nausitasun barik, de-
ritxoz Bonifazio Etxegarai-ek. Ikusi: a. i. 564 or.

(29) Adrian CELAYA E IBARRA: "Instituciones Civiles de Vizcaya" urton
Gernikan emoniko itzaldia, Bizkaiko Diputazioak argitaratua, 12-13 or.

(30) Jose Angel GARCIA DE CORTAZAR: a. i. 57-58 or.

(31) Bonifacio ETXEGARAI: a. i. 552 or.

(32) Karmelo ETXEGARAI: "Las Provincias Vascongadas a fines de la
Edad Media" 1895.

(33) Miguel de UNAMUNO: "Cuatro reseñas" Idazlan Osoetako VI Tomoan,
308 or.

(34) Gregorio de BALPARDA: a.i. 139 or.

(35) Alberto MARTIN ARTAJO: "Presencia decisiva de Vasconia en las
Empresas exteriores de España" urton Gernikan emoniko itzaldia eta multikopiaz
argitaratunikoa, 23 or.

(36) Julio ORTEGA GALINDO: a.i., 13 or.

(37) Bonifazio ETXEGARAI: a.i., 550 or.

(38) Gregorio de MUJIKA: "Monografía Histórica de la Villa de Eibar"
1956, Zarautz, 6 or.

(39) Jose ANGEL GARCIA DE CORTAZAR: a.i. 60 or.

(40) Adrian CELAYA E IBARRA: "Vizcaya y su Fuero Civil" 88 or. Jose
Angel GARCIA DE CORTAZAR: a. i. 52 or. Pedro NOVIA DE SALCEDO: a.i.
III garren Tomoan, 415 or.

(41) Julio ORTEGA GALINDO: a.i. 81 or.

(42) Teofilo GUIARD: "La Villa de Bilbao" Geografía General del País
Visco Navarro, Bizkaiko Tomoan, 445 or.

Ez dakit nundik nora ibilliko naizen.
Ez dakit zer esateko hartu dudan luma
Baiña ba dakit, oso ondo jakin ere, zer-
gatik hartu dudan.

langilleen kasta galdua

jose azurmendi

Baratzako larrosak eta harri landuzko gurutzea begiratzen nengoela, eskale bat urreratu zait jateko eske. Gizajoa, errenarena egiten hasi da, ikusten nuela konturatu denean. Baiña ez, zeukan errenik batere, ni ikusteak ekarri ez badio beñipein. Harri landuzkoak iruditu zaizkit orduan gure gurutzeak, larrosa artean dauden gurutze. Baiña nolako humillazioa gizon batentzat jaten ematen dionari berari gezurrezko nahigabeak azaldu beharra! Ausaz, nire errukia zirikatu nahi izan du bere zurikeriaz. Dena dela, egiazko nahigabeak agertze-ko lotsa zen, nahigaberik franko ba du eskera behartua dagoen gizonak-eta.

Umeak diranean eskua luzatzen dizutenak... ta gizonak direnean, lotsaz eta humillazior betetzen zera zeu ere, jesto honen humillagarriaz oharturik. Miseriaren pipi zitalak arrokeria bera jaten du nunbait.

Sartu naiz ifoiz Kanpazar-tik Mondragoe-ra autostopean. Ira-kurleak dakienez —noizpait handik igarotzeko zorigaitza gaiteratu bazaio beintzat— zaborreria mordo ederra dago Arrasate-ra ongietorria ematen, ke lizuna dariola. Ta kirats bat, bai, deabruak itotzekoa. Han zebillen, ba, zikin artean, prakak jantzi arren giza itxura askorik sobratzen ez zitzaion norbait, txatarra ta erreus billa. Karreatzeko karidadea egiten zidanak, parre eragitekoa ere egin nahi izan zidan nunbait eta, errukarri haren bizkarretik iseka egiten hasi zen nire jauna: "horretzek atera baietz beste ifoik Espaiña-n atera ezindako petroleoa". Eta nik, ez dakit, baiña seguru asko parre egingo nuen, nire artean pentsatzen banuen ere: "...la ley de la vida / que es vivir como se puede".

Fidel Castro-k izutu zuen beste bati egin nion autostop halako batean. Gizon harentzat ez dago pakea bezelakorik. Politika? Handik bizi direnentzat hori. Berak ez du segurantzia ta pakea besterik eskatzen. "Dirua egiteko ta lan egiteko pake garantiak". Oporqueta, erreboluzioa eta gaitentzeko saltsak lanik ez egiteko aitzaki hutsa ditugu. Eta azkenik, erremate eder hau: "Ondo dakidalako esan dezaizuket: langille jendea, oso jende zitala da, zital eta gaizto". Harek hurbildik ezagun ditu bere lantegietako gizonak eta ba daki zenbateraifo dauden zikoztuak, arrotuak, bekaizkeriaz erreak eta nik dakit zenbait birtute suertez dotatuak. Besteak baidira ifernua.

Zer nahi duzu? Besteren automobillean ninjoan. Orduan akordatu nintzan zakur zaunkalariak ixiltzeko ez dagola okela puska bat botatzea bezelakorik. Eta ez dakit, La Mennais, Lacordaire ala zeinek honelako zerbait esaten duen.

"Ba, ni ere fabrikanteen seme naiz", esatea besterik ez zitzaidan bururatu. Erantzunik ez. Esan bezain laister damutuko nintzan, astirik izan banu, ze, nire lagunarena baiño milla aldiz gizonago sentitu nuen neure burua. beingoan, eta ez.

Gizon harek ere izango zuen ba bere arrazoi puska edo pixka! Erabat oker dabillen gizon gutxi da. Borondate makurrez dabillenenik, beñipein.

Baiña ni galdekizunez betetzen nau halako jendearekin hitzgi-teak. Eta batez ere noraiñoko egia ote duten jakiteko garramura itsuak urratzen dizkit begiok. Ohiturak eta noiztenka nekeak ere

bai osatzen naute, halere. Osatu esan al dut? Ez, osatu ez: hoiturak hoitu egiten gaitu; beraz, osatzeko bidea itxi.

Izan ere kontzientzia falta honek bete bete daukagu aidea. Irrati telebistetako iragarpenak, lansariak, elizak, eta kanposantuak berak. Ugaritasunean omen dago gustoa-ta, bapo. Harridura gaitzaren gaitzegiz parre egin besterik ezin dugu halako batean: 70.000 peztako eraztuna erregalatu diola kontatzen zidan lehengoan mutil batek emaztea zenbateraño maite duen frogatzeko. Eta nire artean, ez diola purgatorio makala erregalatu pentsatzen nuen.

Honelako xebebrekeriok —nolabait mintza behar— niretzat ez daukate xebebrerik batere. Langilleak fabriketan sartzen ikusten ditudanean ezin ahaztu dut orain hamaika urteko goiz batez halaxe sartu zela nire aita zena, atzera ez irtetzeko. Lanerako bizi zen, lanak eraman zuen. Ta zeñfi inporta dio ezer? Langille bat gehiago zen eta bat gutxiagok ez du ifior larritzen. Haren karnet edo nor-agiriak seññalaten zion zenbakia besterik ba al zen ba gizonarentzat? Noiznahiko edozein lan-istripuk irunsi zion bizitza. Gaur haren odolak busti zuen lurraren gainean joaten eta etortzen direnak ez dira asko gogoratzen. Dana dalakoak zahartzaroko atsedena ere ukatu egin zion.

Ta zer lagatzen die ba millaka langille pobre hoieri, izen hoberik ez daukagula bizitza deritzaiogun eta heriotzago den zerbait baiño? Nahiko lan dute, honezkerok, bizitzari eustea beren. Lan egin behar, halere, bizia zor diegunok ez kargatzeko. Hau dute bizitzaren azke-neko axioa. **Senectus ipsa morbus.**

Hamaika aldiz entzun dut gizarte kontzientzia asko azkartu dela azken urteotan. Eta gehiegitan esan didate langilleen bizimodua bospasei bider hobetua dugula ere. Hala izango al da, ezpaidut ikusten, sinistu ezin dut nik. Beraz, lantegietatik irteten diren kotxe dotoreekin (ez langilleenak) suertatzen naizenean, beste edozein langillek irten lezakeala nire aitaren modura pentsatu ta aurrera segitzen dut. Hillik daude, ba, hillik. Oññak eta besoak mogitzen dituzte, bai, ta hilda daude barrutik. Lantegitik etxerakoan bizikletaren pedalak etsipen aulez eragiten begiratuta, gaiotik ura ateratzen dabillen asto begi estaliarekin (barkatu!) konparatzen ditut.

Ez ditut nik langilleak besteak baiño maiteago. Ez dauzkat hobetzat. Guztion artean banatuta dauzkagu, noski, kulpak eta kulpaz ez direnak. Halere... Danak arrazoia izan, baiña batzuek ezin hartaz baliatu. Denok arrazoi falta ere, baiña bai ederki diximulatu batzuek!

Bizitza, lan ta jornalaren zirkulu itsuan diardu langilleak noriako asto itsuaren antzeko jirabira beti berdiflean. Gora egiteko hegoak

ebakita dauzka, lan egin, saria irabazteko, ta irabaziak, bizitzeko dituzte, noski. Bizi, berriz lan egiteko... Ez zaie beste ezertarako ailegatzen-eta.

Harek eta besteak zirkulu hau eten zutela esango zait. Eta erantzungo dut, danak egin dezaketenez zerbait balitz ez genituzkeala gogoratuko bat eta bi hoiak, halakok eta bestelakok egin arren. Beharbada, gaurko zirkuluak atzokoak baiño arradio luzeagoa du. Hots izan dezake gaurko langillearen bizimoduak atzokoaren aldean itxura ona. Baiña niretzat ez dago benetako aurrerapiderik zirkulu hori etetzen ez den artean. Alegia, langillearen izpiritua preso daukan materiaren presondegia eratxi behar dugu. Langillearen izpiritua materia menderatzen alegintzen da egun eta ordu guztietan. Ta azkenerako materia honek preso arrapatzen du izpiritua bera, alde guztietan ekaia besterik ikusten ez duen ezkerero.

Eta gizonak asto, edo asto itsu beintzat, ez garela ba dakigun ezkerero, hau bere kulpaz gertatzen dela esatea gauza ximpleegia dirudit. Suezian-ta, USA-n-ta, URSS-en-ta, aspaldi menderatu omen zituzten txikerkeria hoek. Halabaiñan, ez bainaiz ifoiz fedetan sobranite ibilli, nire baitzepadako zalantzekin gelditzen naiz.

* * *

Progresismua modan dago. Baiña aurrerazaletasun honek (ez nago kontra, ez horixe!) ez ote digu indibiduotasunaren galera ikaragarria ekarri? Nortasuna galdu dugu, apika, ta gizarte arazoetan txit **aurreratuak**, atzean gelditzeko indarrak ez daukagulako gabiltza. Askoren aurrerazaletasunak eta ezkerreko beharrak nolako muiña duen jakin beharko litzake. Esate baterako, sozialismoa eredu. Rikardo Arregi-k bein batean zion bezala, sozialismoa modan dago ta danak izan nahi dute sozialista. Sozialismoa zer dan, ordea, gutxiak jakin. Bedeinkatuak aurrerapen eta aurreramin guztiak. Eta berriz galdetzen dut: zertan aurreratu dugu? Literatura soziala irakurtzen ordu luzeak pasa ta gero nire aitak tutik ez zuela ulertuko otutzen zait. Hitzak bai, ulertuko zituen. Baiña hitz jario hau guztia arrotz egingo zitzaiola ez dut dudarik. Egin dugun hainbeste gauzarekin ez dugu hasi, hasi ere ez, beharrezkoen genuena: langilleari hurbildu, haren baitan harekin berdindu.

Sekulako analisis xorrotx eta kritika bixiok, asmo ta erabaki lilluragarriok estrainio egiten zaizkie langilleeri. Proba egin dut. Eta txino mintzatzea da. Poesia soziala? Irakurri diet Otero-rena, Zelaya, Alvarez, Figuera, Aresti, ta zer esan nahi duen galdetu didate. Poesia

bikaifia da, seguru: baiña irakurtzen dutenak eskuan whisky ta alde-
menean tokadiskoa zituztela irakurri dute. Ikusi al duzute ifior fabri-
kara bidean patrikatik "Harri ta Herri" edo ateratzen? Duroko nobe-
laxkak, bai, makifia bat.

Eta nobela sozialak? Haietako sua ta putza ikusi ezkeru, ta hango
gizonen erabagimendu trebeak, etxera joan ta goiz berriari itxarotea
asko dela pentsa genezake. Eta goizak bat eta bi ezezik dexente
gehiago joan eta etorri arren, gauak, datorrenean, betiko illuntasun
tristez estaltzen ditu pobreen etxeak. Argiaren kontadorea, txirown
etxeetan, fiskal bat gehiago baita. Argia dagonean, jakiña.

Erruz egin dugu kritika. Aurrean izan dugun gehientsuena txi-
kitu dugu ta bazertu. Agian, hitzegitearekin obratu egin dutela
pentsatzen dutenetakoak gera. Mende batzuek dela, hitzetan labor
eta egiteetan luze omen gifian. Ohitura onak ez galtzeko-edo hau ere
txikitu egin dugu, segurutik.

Inkonformismu gordin hau bidezko zaio gaztezaruari. Ezin gelditu
gintezke, halere, kritika hutsean. "No es aquello acabar los negocios,
sino acabar con ellos", aholkatuko liguke Gracián-ek.

* * *

Ez dute txinbeletak ekartzen udaberria, ta bai aldrebes. Guk
kritika, literatura, poesia, ta gehienez ere filosofia sozial ugari egin
dugu. Alegia, txinbeletak. Egin, ostera, egin esaten dena ta nire aita-
ren gisako edozein langillek uler zezakean arrazoi bakorra, hori
ahaztu egin zitzaigun. (Zahartzen hasi naiz, ausaz). Txitak ere pozik
ibiltzen dira bazterrik bazter, xoro, belar guztietan mokoka, bizitza
estreinatzearen pozez. Oillo zaharra ordea, ta filosofia jakin gabe,
kabira erretiratzen da ta ez du kakarazka egiten egun aurretik.

Komunisten antikapitalismoak eta kapitalisten antikomunismoak
(batzuek besteen kontra karraxika entzun artean ez da erreza zer
diren antzematea), beste anti gehienak bezalaxe, hitz borobil insus-
tantzialak beste ezer ote diren garbitasunik ez dut ateratzen. Niretzat,
atzo ta gaurko diferentziak ez dira gauza apartekoak: mixeriari be-
giratu ta bidea segitu, egiten genuen atzo. Eta gaur, zaunka egin,
axatu, parra parra erruki hitzak jaulki, protesta egin, kitarra jo.
Atzo, demagogia, mixeria ukatu, zeregifik ez zegoela-ta geure bu-
ruak engaiñatu. Eta demagogia, gaur, mixeria konfesatu ta hartaz
poz hartu, zerbait egin dugula-ta, berriz ere, geure buruak engaiñatu.
Goza ditzagun, patxadaz exerita, gure atrebentzien pozak belarri xu-

loetan egiten dizkigun kilimak. Hamlet-en, hitzak, hitzak, hitzak...

Halafede, Bladi Otero-ren "Gehientasun Handienari" zuzendutako poesiak, eta pakearen eta hitzaren eskabideak ilusio triste ez direla sinetsi nahi nuke. Ta ez dut indarrrik. Esaten ta egiten dugun guztia bufoikeriak ez beste zerbait ba ote den kezkek urratzen nau.

Bai, Aresti adiskidea:

**"baina nik
esanen diet
poesia
mailu bat
dela".**

Bai, Gabriel, garaiz atera dituzte kontuak: mailuari kirtena kendu diote.

Makina ez izaten lagundu beharko diogu langilleari, ifoiz poesiari irakurriko badu. Ez du pakerik behar, arik eta segurantziaz ez izan harena ez dela aberiatutako erramintaren pake hilla izango. Gudu ekartzera etorri zen Langillea. Maitasunezko gudu, baiña gudu. Hitza, ordea? Langilleak, premiñazkoa du hitza, gizon izateko. Kendu zaila ematea nahiko da.

Jakin egin behar da hitza erabiltzen, abotsa, pentsamentuaren azala izan beharrean, aberaren orru izan ez dedin. Beraz, pentsamentua da langilleari hainbat arifien zor diogun lansaria. Honen gainean eraikiko dugu zuzentasun kontzientziaren torrea.

Nik ez dakit ze teknika erabili den langille hoiaren buruak hustu ta gero batzuei komeni zitzaion iturriko urez betetzeko. Kristautasun arras gaizki ulertu baten egitada ez omen da tranpa xamurrena izan. Jendea norberaren eskubideez baliatzeko eskubide ta obligazioa ahaztuerazi diogulako. Ez baiditezke sakrifika eskubideok zerbait hobeagatik ez bada. Ta guk mundu hau deabruari uzteko tentazioa daukagu, zeruko zorionaren truke.

Edozeinek esango luke langille taldeak mogitzen hasi direla, hainbeste zalaparta ikusita. Beingoaz harturik dutela beren eskubideen kontzientzia. Eskubideena? Beharbada. Beharbada, halere, beren eskubideena baiña besteen eskubide abusoan, hau da, eskubide faltarengo da. (No hay derecho!) Gure artegasun sozial ukakor ta kritikoa horixe merezi digu. Nahiago nuke oker banenbil. Bestela, ederki toreatuko dituenen batek manejatuko ditu, langilleok, beren borondatea egiten dutelakoan. Ta azkenengo hau izan diteke langille

klaseari egingo zaion burlarik zikiñena. Langilleen kontrako astakerietatik zerrikerietara pasako gifiake, Arestik dion bezala.

Nekazariena da, ene gardiz, egoerarik penagarriena. Baserriaren gain eta inguruez poesia egitea gauza bat da. Beste bat (oso beste) bertan bizitzea. Baserriak ederrak dira herriko jaialdiak datozenean ikustalditxoa egiteko, ahal dugunean euskera garbia iturrian edatera joateko, ta euskera ez bada sagardoa. "El Labrador es rey en su heredad" (Azorín). Noski baiño noskiago hala da, eta hala ere, nola denpora demokratikoetan gauden, baserrian errege baiño nahiago dute baserritarrak fabrikari esklabo. "Y el sustento de la patria son los labradores".

Izugarria agertzen zaigu gure kontzientziarik eza, pixka bat xehe ta sakon azterkatzen dugunean. Zergatik negar egin? Mirariz bizi gera, ta Jaungoiko mirarigillearen eskuak ez dira habailduko. Berriz ere izango zaio jaierarik San Antonio Urkiola-koari.

Irudimenak asmatuko ez lituzkean diamante ta pitxiak azaldu omen ziren Gurutze Gorriaren alde Saint Moritz-en egindako gala edo jaiari. Milan-go Inter ekipoak 35 milloer bota omen zituen Luisito Suárez "erosteko". ... Aizue: ba al dakizute nola berexen zituen Varron-ek hiru gauzaok? "Goldea ez da mintzatzeko, idiak marru egiten du, ta esklaboak hitz". Nola berexi hitzegin ere ezin duenean?

errien askatasuna yoan eliz-buruaren gogoan

bitor kapanaga

ASKATASUN USTEA, KRISTO TA BERE IRAKATS-ARAUA

Gizonak berez du beregan askatasun gogoa, askatasun egarrria. Adimena baiño lenago ta sakonago duen sentipen hori, berezkoa da, bere izatearen muiña bezela. Geroago ta adimenaren argiz, sentipen hori, uste sendo, zinezpen biurtzen zaio. Sentipen horren eragiñez, azke izatea artzen du bere yo-muga gorengotzat, bere izatearen ikurrintzat. Abere ta piztieta-tik, eri ta gaitzetatik edo beste gizonetatik azke izatea da bere ametsa, ta lur hontan ezin badu askatu bere burua, beste bizitza batean askatasun hori lortuko dun usteak ematen dio bizteko adorea. Behartasunetatik askatzeko, lan egiten du ta hontatik ezin dalako askatu, beharra esaten dio lanari.

Gizonak, alkarreak sorterazi edo-ta errietan antolatzean, ez du egiten hori bere askatasuna saltzeko edo uzteko asmoz, hobeto yagoteko baizik.

Beraz, gizon bat erri batean azke izateko, erriak ere azke izan behar du.

Pizti batek bere bizia yagoteko, beste piztiekin burru egiten du eta burruka ari danean, garai-nahia ta erail-nahia egiten dira bere yabe, ta horrela egiten da eraitzaille. Erri asko ere, berdinkiro egiten dire beste errien menperatzaille. Hortatik datorkigu gizartearen kondaira beltza eratu duan korapillozko lokarria. Erriek erriekin burruka, burru izugarrietan giz-odola ixurtzen, negarra, gosea ta eriotza edatzen bazterretan gizaldiz gizaldi.

Kristo munduratu zanean ere, horrela omen zan nahiz eta Augusto agintariak zigorrezko bake bat luzerazten zuen bere aginterrietan. Erriek, beren askatasuna irauin erazten zeukaten buru-auste gaitza. Besteak menperatzen zegon erri aundien aintza ta atzitasun neketsua zan txikien bizitza. Yabe berri baten menpean erortzeak ateru oi zituan beste baten oinpetik. Erroma arroa zan garai hartan inguruetako yaun ta yabe. Europa gehiena, baita Africa ta Asia-ko zati asko ere, menpeko zitun. Hauen artean arkitzen zan Israel izeneko erria, txikia baiñan adoresua, arrigarritzko kemenez bere buruyabetasuna zaindu oi zuan err: nekatua. Bere kondaira guztian, millaka urteetan etsaiz inguraturik bizi izan zan, orain azke ta gero atzi, beti arriskuan eta beti urduri. Menperatzaille askoren esku-gogortasuna ezagutu zun, baiña beti yagi izan zan bere atzitzailleen aurka. Erri gutxi izan dira munduan yudutarra bezin askatasun yagoleak eta bat ere ez berak bezelako irauin-gogoa erakutsi duanik. Yainkoarekiko usteetan zeukan bereiztasunak eman zezaiokean indar hori lenengoan, baiñan gizaldiz-gizaldi yasaniko zapakadak eta yazarpenak, suntsitu orde, gogortu egin dute yudutar erria, orain ere mundua arritu egin bait du bere kemenez, bere gogo-indarrez.

Hala behar-eta, yudutar egin zan Kristo. Bere bizitza ta eriotzako gertakizunak, yudutar erriaren azke-burrukatik guztiz bereizi ikusi-nahia, ergelkeri bat da. Yainkoak berak daki gauzak zergaitik egin ditun. Gu, diran bezela ikusi behar ditugu.

* * *

Israel, menperatzailleen aurka irakiten dago. Kristok maite du Israel, maite du Yerusalen, maite du gizona gizarte guztian, baiñan urren yudutarra, bere artean bizi bait da aragiz. Ontzat dauka bere azke-nahia ta onesten du: "zorionekoak zuzentasun egarri diranak", "zorionekoak yasarpena yasaten dutenak"...

Yosub-ek, ikusten du bere erriari datorkion aidi samintsua. yazarpen eta eraitze izugarria, ta negar dagi: "Yerusalen Yerusalen, bazeneki zer

datorkizun” *Ta nahi luke zuhurtasuna itsatsi erritarreri: “eman Kaiser-i nahiz Yainkoari, bakotxari berea”. Baiñan yudutarrek ezin dute yasan gehiago erromatarren arrokeria. Beren aurka yagiteko buruzagiak behar dituzte. Ta Kristo egokien. “Nire yaurerria ez dago lur hontan”, dio Yosub-ek; baiña ez dute ulertzen.*

Erria menperatzailléen aurka dago, baiña norbaitzuk haieri saldurik bizi dira: betiko leloa, irabaztea, bizia yagotea. Nahaskeria ba da bazterretan, azpi-yokoa ta beldurra nun-nahi. Abertzaleak urduri, erri-saltzailleak axeri, ta erromatarrek beldur.

Yosub Yerusalen-en sartzean, askatzaille gisan artzen dute. “Gora!”, diño erriak. Baiña nahaskeria ere bidegiñean dabil eta garaitzen da itsuskeriz. “Eraíl!, eraíl!”, entzuten da ostiralez, eta Yosub gurutzean erailtzen dute. Hala iragarririk zegoen eta hala izan behar zan.

Yudutar erriaren azke-burrukak bere eginbharra izan zun gertakizun hontan. Eta gero ere yarraitu zun eta burrukaldi ikaragarriak sortu ziran. Ez zan arririk gelditu arrien gain eta amak bere umearen aragia yan behar izan zuan. Irudiz, guztia suntsitua izan zan, baiña aske-nahiak iraun zun, eta oraín berriz burutu da, berriz mundua arrituz.

* * *

Yosub-ek, bere irakatsien oiñarriztat, arau bat utzi zigun: alkar maite izatea. Ta arean, agindu hau ondo bete ezkerro, ez zan izango gehiago gizona zapaltzerik, erailtzerik, ez zan izango besteen menpeko erririk.

ELEIZ KATOLIKOA TA ERRIEN ASKATASUNA

Kristok, Eleiza, bere yarraitzailléen alkartea utzi zigun ondoren. Bere irakatsiak, berri-ona, laster edatu zan, baiñan ez aundien ta agintarien artean, erri xehean baiño. Behartsuak, yazarriak, on-egilleak eta menpekoak ziran bere yarraitzaillé. Lenengo yudutarrak, batez ere atzerrietaratuak, eta geroago, emeki emeki, beste errieta-koak, guztieri eskeifitakoa bait zan berri-on hori. Beraz, erri paketiak lenen kistartzen dira: armeniarrek, eladetarrak, eta beste. Mesia da batzuentzat, Kristos besteentzat, baiña edonola, Yosub-en izena dute denak ikurrin, bere izpiritua oiñarri. Eleiza, Kristoren agindukoa zan, Kristoren gogokoa.

* * *

Erroma da mundu ezagunaren yabe ta menperatzaille. Bere aundikeriak irauñ erazteko, yopuz betea dago. Arrotz atziak, otseñiak eta mirabeak dira bertako langilleak: euren izerditik bizi da Erroma. Yudutarrak ere pillaka dira Erroma-n, eta hauengandik edatzen da Yosub-en berri-ona. Behartsueri, nekatueri ta bihotz onekoeri poza dakarkie Yerusalen-diko hitzak. Alperrik izango dira yazarpenak, erailtzak, zifeste berria edatzen da... Erroma, azpitik gora kistartzen ari da.

Gizaldiak iganez, yazarpen izugarriak eta erailtze beldurgarriak ere igan dira. Erroma-ko agintariek berri-ona zifetsi dute. Eleiza garaitu da, berak irabazi du auzia, baiñan zerbait sakonena galtzeko arriskuan da: Yosub-en gogoa. Mendiko hitzaldia izan behar litzake bizikera berriaren oiñarri ta atzen aginduko araua yokera guztien bide: alkar maitatze hurak agintzen zuan gizona maitatzea, aintzakotzat artzea, beltz nahiz zuri, indartsu nahiz makal, gazte nahiz zahar; aundikeriak ez du hobeagotzen gizona, aberatsago izateak ez du gizona egiten; aski da gizaki izatea, berari aintza zor izateko. Beraz, erri guztieri ere aintza berdifia zor zaie. Garai hontan, munduaren, edo gutxienez, kistartuko diran errien geroa yokatzen da, gizarte berrien yokerak eta, beraz, beren zoriona edo zoritxarra hemen errotuko dira. Eta burruka ixil ikaragarria ari da, lengoak baiño garrantzidunagoa: gogoen burruka, izpirituen leiaka, oiñarrien autatzea. Zeifiek garaitzen du?

Izenez eta itxuraz, Yerusalen garaitu da: Yosub-en izena ta araua goratuak dira; bere izenean egiten da guztia. Baiñan, gogoz, Erroma garaitu ote dan dirudi: ezpata eskuetan du Eleizak, agintari aurkitzen da. Ezpataz agertuko da Yerusalen-en, ezpataz yagongo du Konstantinopoli, ezpataz edaraziko du berri-ona munduan zear. Izan ere, ez da errez gautik goizera basakeri guztiek uztea, arrokeri guztiek uztea eta besteen basakeriengandik ere yagon beharra dago, nahizta Kristoren arauak besterik difioen.

Eliz etxe ederrak eraikitzen dira, urrezko aulkia du eliz-buruak, aberastasuna ta aundikeria nun-nahi. Laziotarren aundikeriak Elizari tayoa itsatsi dio, yudutar Mesiaren gogoa baztertirik dagola dirudi.

* * *

Germaniar zakarrak ere, kistar egin dira; baiñan zakarki diraute. Asaldatzen dira inguruak suntsitu beharrez, su ta gar beste errien

gain yauzten dira. Mundua zakarkeriz bete da. Gotzaiñak gudaiburu dira ta alkarren etsai; Kristoren izenean gerrak egiten dira, Kristoren izenean erriak zapaltzen, Kristoren izenean bere Eliza ere zatitzen da, ta itsuskeri asko egiten.

Eleiza Kristok eratua da ta bere izenean ari da; Elizaren irakas-teak Yosub-enak dira, baiñan bere erakusteak ez beti. Eleizak, berri-ona du oiñarriztat, baiñan giza-batzar dan izarian, gizon eta erri ba-koitzak bere izakera itsasten dio, bere eragifia ematen. Beraz, aldi bakoitzean edo toki bakoitzean, ba du yokera berezi bat, itxura berezi bat. Horrela da gizaldietan zear.

Sorkaldeko erriek eman zioten Elizari beren yakintza, beren gogo-sakontasuna, baita beren bereizkeria ere. Sarkaldeko keltarrak beren goxotasuna, beren bihotz-samurtasuna; laziotarrak beren aundi-keria, beren hitz-erioa ta beren agintaritasuna. Baiñan hitz-arauz, aize-rik indartsuenak eroaten du lili-azia bere bidetik, aizearen bidetik, nahiz eta azi hori ez dan aize biurtzen; nunbaiten kokatuko da aizeak amor ematen duanean, landara berria sorterazteko, lili berriak berriz emateko. Eta indarra Germania-n agertzen da zakarki eta lertzen; uriol bat irudiz inguruak kutsutzen ditu: Frantzia eta Españia ere. Hauetan ere, indarrak goralduko du Eleiza, indarrez menperatuko dira etsaiak, indarrez agerrerazten da "egia"; hitz batean, indarraren eskubideak zapaltzen du eskubidearen indarra.

Ezin ukatu Frantzia-k Elizari eman dion eragifia. Garai batean, germaniarrekin batean, Yerusalen askatu beharrez burruka ari zan, "burruka santuan"; beste batean, bere itzalean baitua zeukan Eleiza. Yakintza ta aundikeria itsatsi zizkion, baita itzartasuna ere.

Españia-k ere asko eragin dio Elizari; Ameriketara edatu du berri-ona. Bere buruzagiek, gurutzea esku batean eta ezpata bestean, burruka egin dute nun-nahi eta noiz-nahi, orain maometarren aurka, gero yudutarrak erbesterazten, han erejeen aurka, hemen sorgifiañak erretzen, baita Erroma berbera birrintzen ere. Yatorrizko amerikarren zifneskerak ere zuntsituak izan ziren, bertako urrezko eliz-etxeak nahiz yainko-izun irudiak eratziak eta garbituak, benetako erlijioari omenez baita urrearen dizdirari omenez ere.

Igan mendeetako Elizaren egoera ez zan guztiz pozgarria. Kristoren izena ta gurutzea edonun, bakerik ifun ez, eta burruka bazter guztietan. Nun ote zan Yosub-en agindua? Bihotz zintzo batzuetan ez kutatua, noski. Eta horrela heldu gire gizaldi hauetara.

Aldiak zear, beste erri batzuk ere kistartzen ari izan dira ta ari

dira: eslabotarrak sorkaldean, euskaldunak sarkaldean... Oraintsuago, erri askota edatua izan da berri-ona. Ez ezpataren bidez, nahizta ifioiz ezpatadunen itzalean izan. Beti bezela, menperatutako erriek izan dire gehienak. Baiñan Yainkoak berak ezarri zun gizonagan askatasun egarria eta, goiz ala berandu, indar honek bultzatzen du gizona lotatik itzartzera, Yainkoa billatzera, askatasuna lortzera. Ta bultzatzen ditu erriak ere buru-yabe izatera.

Arestian, erri gehienak askatu dira edo askatzen ari dira. Yazokun honek, eragin aundia du Elizarengan, bere yokerari tayo berri bat itsazten dio. Eleizak orain mende batzuk dirala azturik zeukala zirudian arau bat, yainkozko arau bat, berriz gogoratzen du ta mundu guztira edatzen: gizona, berez, Yainkoak egin zuanez, buru-yabe dala, ta errien askatasuna, erri guztiena, ukatezifiekzko eskubide bat dala.

Guk euskaldunok, zer dugu Elizaz? Nola yokatu dugu kondaira guzti hontan? Galdera labangarriagoa ta arantzatsuagoa izango litzake Elizak berak gutzaz nola yokatu duanekoa, baiñan hontan Eleiza guztia sartu ez dezakegun ezkeroz, utzi dezagun igandako lañopetan. Nik neronen aburuz, atzenen aipatutako errien artean ipifiiko nuke gure Euskalerrria. Nahizta Loyola aipatua lur hontan sortua izan, nahizta Garikoitz eta Jabier bere muñiekoak izan, erri hau Elizarekin ez dala benetan ezkondu orain arte esango nuke. Bai, Euskalerrriak erri-gisan, Yosub-en deia onartu zun, Kristoren berri-ona ulertu zun, bere izakerari egoki zetorkion-eta.

Baiñan, erri bezela, ez zun bere burua Erroma-n kokatua ikusten, ezin zituan ulertu Elizako nagusien yokerak, arrotzkiro ageri zitzaizkion. Gauza hauen eragifiekz behar-bada, edo bere izakeraren indarrez. Yerusalen-etiko berri-onaz maitemindu zan eta geroztik, adoretzu, berri-on hori mundu guztira edatzen, iragarten alegindu da. Besteak esan behar dute alegin hori zenbateraiñokoa izan dan, erri txiki honek nola erantzun dion Kristori.

YOAN XXIII-garrena

Eleizaren yokera hau dala edo bestea zala esaten dugunean zerbait uts egin genezake. Eleiza kistar guztien arnasa ta gogoa dalarik, ez da errez munduko arazoetan denak ustekide izatea. Baiñan hemen Eliza aipatzen dugunean, bertako agintari taldea Eliz-burutik gotzaiñetara, adierazi nahi dugu, ta hauek gizaki diranez, ba dute izakera bat, bakoitzak berea. Ta bakoitzak bere eragintxoia ematen dio Eli-

zari, gotzaiñak bere zatian, eliz-buruak danean; hau ezin liteke ukatu zentzunez; atzen gizaldi hauetan ere argikiro ageri da. Gotzain talde baten yokerak, kardenal batzarrak, eta askoz gehiago eliz-buruak, eragin aundia egiten diote Elizaren yokerari. Hala ere, hauek ez dute izaten beti bidea garbi. Beren ametsak egiztatzeko, zuzentasuna iragartzeko ta Kristoren araua edatzeko eragozpen asko izaten dituzte. Atzo, Viena, Paris edo Madrill-eko eragozpen eta agindu ixillak izango ziran; gero, politika sailletako yokerak eta, beti, legerrien galdu-irabazteak darabilten ekaitz-aizea. Hauek ere Kafarnaun-eko itxasoan yagi ziren uifien antzeko dira. Simon-en ontzia ikaratu zuten haietarik.

XII-garren Pio hil ondoren, kardenal aguretxo bat izendatu zuten eliz-buru. Ronkalli yaunak urte asko zitun, baiñan otzitu gabe zeukan bere bihotz sendo ta edakorra. Bihotz honen barruan beti izan zan amets eder eta on bat: egia ta zuzentasuna oifarrizat artuz, gizarte paketsu bat sorterazteko lan egitea.

Egia maite zun danen gairietik XXIII-garren Yoan Aita Santuak. Itxurakeriak eta aundikeriak ez zuten beregan izaterik, izateko lekurik. Baserritarra zan sortzez eta izakeraz. Ba-zekian erri xehearen berri, ba zekian gauzak diran bezela ikusten eta erakusten. Utskeria ta arrokeria ere, ziran lekuan ikusi oi zitun, etxean nahiz kanpoan. Yerusalen-diko hitzak indar berria artu zun beragan, larogei urtekin Kristo berriz Nazaret-etik atera zala zirudien. Asmo oneko gizonen-gan maitasuna sortu zan eta bera ere maitatua izan zan (eta izango da).

Beharrezko zan aize-berritze baten itxaropena sortu zun gizonen-gan, eta gizartea poztu zan. Fariseotarrak beldurtu ziren, Kristoren behinholako zigor-makilla artuko ote zun, baiñan irriparez artu zuten aguretxo harek ondo zekian munduko berri, ba zekian berak egiari ateak nola iriki. Ta hortara eman zitun bere alegin guztiak, Yainkoagana berriz itzuli orduko gelditzen zitzaizkion egunetan.

Gizakion gogozko yokerak, larrienik, era bitakoak izan oi dira: egia ta ona maitatzen dituztenak, gauza hoiien billa dabiltzanak, maite dituztelako, indartu, iragarri ta zabaldu nahi dituztelako; "aurrerakoi" izenez ezagutzen dira; yokera hontakoen artean ere berdin izan litekez zuhurrak ala buru-ariñak, adimentsuak ala umekiak, egia ta gezurra bereizten dakitenak ala ez dakitenak. Baiñan, bereizten dituana, beren yokera da, beren gogo-bihotzen yo-muga. Eredutzat, Yosub-en gizarteko bizitza ipiñ dezakegu.

Eta bigarren erakoak: "eutsikoiak" edo "zuhurkoiak". Arriskuaren bildurra da beuren gidari, egia artean gezurra noiz sortuko ote dan susmoz

bizi oi dira; Yainkoak sorterazi zitun ezberdintasunak, izakietan ezarri zitun aldeak bereizten ez dakite gehienetan eta beren "egia" eguzkia bezelakoa da, urrunean dagona, ikutu eziñekoa, alde bat bakarrik ikusten zaiona. Eta "egi" hori yagoteko, zigor-makilla beti eskuan, arretaz bizi oi dira; besteak duten pentsatzeko askatasuna edo mailatzeko almena, pekatutzat dauzkate nahizta Yainkoak berak emanak izan. Ez dakite Yosub zorionetako mendian edo Eleazar-en etxean edo emagalduearen aurrean ikusten, ezta ere gurutzean. Zerura igokundeko mixterioan bakarrik ikusten dute ta bere turuta-soiñuzko itzulian dute beren biziko ametsa. Eredutzat, edozein esku-indardun agintari artu dezakegu (asmo ona ala txarra at utziaz), jariseotar bat artzen ez baldin badugu.

Lenengo hoietakoa izan zan bere bizi guztian Ronkalli yauna. Erromatik urrun ibilli zan urteetan; horko aundikeriak ez zuen kutsutu; eta beste erri batzuk ezagutu zitun, beraien gogoaz oartzen zan; eslabotarrren izakera ezkutu ta sakona ezagutu zun eta bihotzean ikutu zion. Ia beti iñoren menpean bizitako erriok, beren itunkortasun ta guzti, arima sendo baten yabe ziran. Ronkalli yaunak ikusi zun gogo-sendotasun hori eta benetan maitatu zun; bere bihotzean betirako oroipena izango zuten eslabotarrak, gizaki ixil eta yasankorrek baita ere egi-zaleak.

Egiaren ta zuzentasunaren maitale zan gizonak, ezin zezakean axola bage yasan gizonen nekea ta gutxiago errien zoritxarra. Menperatutako errien bizitze latzak bihotza samintzen zion.

Izan dugun Eliz-bururik goragarrienak, urreratzen ziztaion eriotza nabaritu zun eta Kristok Ostegunez eman zigun araua oroiterazi nahi izan zigun. Eta arau hori gaurkotasunez yantzirik, berriz gizarteari iragartea, adieraztea, artu zun bere gain; eta Kristoren irudi bizia bait zan, uste oneko gizaki guztieri zuzenduz, deadar egin zuan: "PAKEA LURREAN".

Deadar hortan, errien askatasunaz ardura du. Ta zeatz eta argikiro adierazten du:

"Errien arteko goraberak, egia, zuzentasuna, benetako alkartasuna ta askatasuna yokabidetzat arturik erabili behar dira.

Gizonak gizonari zor dion askatasuna, erriek ere zor die beste errieri.

Erri-agintariek ezin dute ausi berezko legerik, hori bait da ziñezko legea. Agintaritza benetakoa izango bada, Yainkoaren legetan egin behar da. Beraz, Yainkoak yarritako legeak yagon behar ditu ta guztien onerako lan egin.

Egiak diño: erri guztiek berez berdiñak direla; izateko, nahiz beren bizitza antolatzeke eskubide berdiñak dituztela. Beraz, eskubide hori alkarri zor diotela. Aundiago, azkarrago edo aberatsago izateak ez diola beiñere ematen besteak menperatzeko eskubiderik.

Zuzentasuna, egia egitarau egitea da. Beraz, zuzentasunak hau eskatzen digu: egiak diñoena betetzea. Erri bakoitzak bere eskubideak yagoten ditun era berdiñez besteenak ere aintzat izan behar ditu, horrela bakarrik izan diteke pakea lurrean. Aintza berdiñekoek dire txiki ta aundiak, beraz, beharkizun eta eskubide berdiñak dituzte berezko legez, zinezko arauz.

Erri bakoitzak legerri bat osatzea da bidezko. Baiña horrela ez dan artean, minori-erriak izango dire legerrietan. Erri haueri ere, besteeri zor zaiena zor zaie ta beren izatearen aurka egiten dana zuzentasunaren aurka dago.

Egiz ta zuzentasunez bizi diranak, benetako askatasun batek itsatsi behar ditu. Eta benetako alkartasunaren oiñarri, alkar laguntzea da. Indartsuak aua, aberatsak behartsua, yakintsuak yakingea, lagundu behar dute. Baiña laguntza horrek ez du beinere lagunduaren aintza gutxitu behar. Zapalkeria alkartasunaren aurka dago beti.

Askatasuna berezkoa dute gizon eta erriek, Yainkoak emana. Ta askatasun hori beti zor zaio. Ez dago iñolako eskubiderik askatasun horren apurrik ukatzeko”.

* * *

Hau da Yoan Eliz-buruak errien izateaz adierazten diguna. Deadar hontan, ez dago ezer arrigarririk guretzako, dena maitagarri baiño.

Baiña Erroma-tik Eliz-buru batek hain garbikiro arau hauek adieraztea, hori bai dugula gogoangarri. Orain ez dezake iñork, lotsa izpirik baldin badu behintzat, errien eskubiderik zapaldu, jatorrizko legerik autsi, erri-erailtzarik egin Kristoren izenean. Egiten duanak, laster entzungo ditu oiartzunez bezela, Yoan Onaren hitzak:

“...HORI ZUZENTASUNAREN AURKA DAGO”.

laborantza eta "seien" arteko merkatua

Jean Louis Davant

Nundik dator, zertan dago, norat doa laborantza edo nekazaritza sei erresumen arteko merkatuan? Hasieratik has gaitezen.

1950-a: bost urte orain, gudu izigarria bukatu zela. Europaren erdia Rusiak menperatua du. Beste erdia emeki-emeki bere zaurien artatzen ari da. Maiatzaren 9-an, **Robert SCHUMAN** frantses ministroak tratu bitxi bat eskaintzen du Alemaniari eta Europako erresuma guzieri: ikatza eta altzeirua denek batean landu ditzagun! Egiari bere bidea: xede horren aitak **Jean MONNET** du izena. Bainan Schumanek umea bataiatu. Helburuak: Frantziaren eta Alemaniaren artean, bein betiko bakearen finkatzea; ekintza beraren bidez, erresumen alkarri ezkontzea; Europa federal bati oinarri azkarren emaita. Ikatzaren eta Altzeiruaren Alkartasuna (C.E.C.A.), Parisen erabakia da 1951-ko Apirilaren 18-an, denek ezagutzen ditugun sei erresumen artean. C.E.C.A. horren buru, gobernuen goitik lan egiten duen biltzar edo "komisione" bat. Egoitza Luxembourg-en dauka. Hor zai daude,

gaifera, deputatuen biltzarra, sei erresumetako lehen minixtroen biltzarra eta epaile edo "juez" talde bat.

1957-a: martxoaren 23-an, Erroman, seien agintariak beste bi ume sortzen dituzte: Europako Ekonomiaren Alkartasuna edo Alkarrekiko Merkatua (C.E.E.) eta Europako Atomo Indarraren Alkartasuna edo "Euratom" (C.E.E.A.). Batasun horien buru, bi biltzar edo komisioe, baiñan orailkoan C.E.C.A. delakoan baiño botere geiago ba dute seien minixtroek. Merkatu Alkartuaren helburuak: sei erresumetako merkatuez bat egitea, beren ekonomien alkarreki urtzea eta gero, ekonomia-aren bidez, politikako urratsetan ere batasunaren erdiestea; hots, seiak bat ezartzea emeki-emeki mugak kenduz.

Laborantza edo nekazaritza ez du bazter uzten Erromako antolamenduak: hamar artikulutan aipatzen du, 38-garren artikulutik 47-garrene-ra. Diño Alkarrekiko Merkatuak nekazaritza barne hartzen duela eta seiak nekazaritzako urratsetan politika bakar bati buruz ibili gogo dutela. Politika horren helburuak:

- nekazarien bizitze hobe bati buruz laguntzea;
- merkatuen negurri batean atxikitzea;
- hiritarrerri jatekoaren segurtatzea, izari oneko prezioetan.

Ondotik, sei erresumetako agintariak alkarreki mintzatu edo hitzegin bear dute, nekazaritzako politika oifarrri horren gainean finkatzeko. Lau biltzarren ondotik, 1960-eko Azilaren 15-ean erabaki hauk hartzen dituzte:

- nekazaritzako emaitzak trabarik gabe erresuma batetik besterat iragaiten ahalko dira, erresuma bakar baten barnean bezala;
- merkatuen bat egiteko, denetan prezio berak eta komertzio moia bera eraballi bearko dira;
- politika horren bidez, nekazaritzako emaitzak bearren erabera-koak bilakatuko dira eta nekazaria obeto bizitzen ahalko da.

1962-ko urtarilaren 14-an, bilkura luze ta neke baten ondotik, huna laborantzako sei minixtroek zer hitzartzen duten:

- erresumen arteko trabak baztertu ditugu, aduanako zuzenak tipituz eta azkenean arras kenduz: epe baten buruan, nekazaritzako emaitzentzat ez da geiago mugarik izanen seien artean;
- prezioak kondizione beretan moldatuko ditugu sei erresumetan, eta gero denetan bardinduko ditugu;

- emaitza mota berarentzat, orotan kondizione berak; baiñan ez emaitza guztientzat ber kondizioneak;
- seiez kanpoko erresumekilako hartu-emanak, erospenak, seiek prezio beretan egingo ditugu. Prezioak ez baitira denetan bardiñiak, aduanako zuzenen bidez bardinduko ditugu (seien eta beste erresumen arteko aduanaren bidez; eman dezagun “kanpoko aduana” dela hau). Hunek pasaian atxikitzen duen dirua, kutxa bakar batean emango dugu, horrez nekazaritzaren laguntzeko.

* * *

Bainan zer balio dute xede ederrenak, obratzen ez baditugu? Ezer ez. Horrela pentsatu dute minixtro jaunek eta, beren asmuen obretan ezartzeko, hiru bide ideki edo zabaldu dituzte:

- merkatu premiatsuenen apailatzea;
- laborantzari emango duten laguntzaren finkatzea;
- epe batzu jarritz, batasunari buruz egingo dituzten urratsen izartzea edo negurtzea.

I. MERKATUEN APAILATZEA.

Emaitza larrienak lau multzotan zatikatzen dituzte.

1-ik Bihia: “precios indicativos” deritzen prezio batzu izartuak izango dira, eskualde zorduneneko merkatuan pratikatua dateken prezioaren arabekoak. Horik baiño apalxago, “precios de intervención” batzu. Bihien prezioa azken hauen negurrirat jausten delarik, C.E.E. ko biltzar nagusiak laguntza bat egingo du, amoreagatik eta nekazariek beren sarri suzeta hunki dezaten.

2-ik Zerrikia, oilloak, arroltzak aduanaren bidez zainduak izanen dira, kanpoko emaitzak alkarrekiko merkatuan sartuko direlarik garestiaraziz.

3-ik Udare, baratzeakari eta ardoarentzat, gisa berean. Seien artean librokuri kurrituko dira. Ugariak eta onak izan ditezen, C.E.E.-ak begia atxikiko daiote.

4-ik Esneki, idiki, arroz eta azukrearentzat, ondotik erabakiak hartu bearko dira.

II. LABORANTZAREN LAGUNTZEKO: F.E.O.G.A.

F.E.O.G.A. delako bazkuna (Fondo Europeo de orientación y de Garantía Agrícola), C.E.E.-ko buruzagitzaren menpean dago. Diruz lagunduko ditu seietarik kanporako saltzapenak, bai eta ere, prezioak geiegi beittituko direnetan, merkatu alkartuaren barneko saltzapenak. Bestalde, laborantzako esturturen berritzearen alde jokatu du, kreditaren bidez. Bere dirukutxarat ereriko dira, jadanik errana dudan bezala, kanpoko aduana zuzenak.

Kasu batzuetan, seietako batek edo bestek alkarrekiko merkatua-
ren askatasuna, hain batean eta denbora batentzat, trabatzen ahalko du, halako edo holako emaitzaren bere lurretan zaintzeko.

III. EPEAK

1969-ko Abenduaren 31-an, gauerdian, bukatu bearrak dira epe guziak. Ordu hartatik aurrera, alkarrekiko merkatua BAT izango da. Agian!

Anartean, seien arteko mugetan, aduanako zuzenak urtetik urtera beittituz joango dira.

Alkarrekiko merkatua lehendabiziko mailletik bigarrenezat pasatu da 1962-an eta, urrats horri esker, buruzagiek 1963-ko Abenduan beste antolamendu bat egin dute: esneki, idiki eta arrozaren prezioak sei erresumetan alkarri urbilduz joanen dira. Tratu hortarik kanpo gelditzen dira azukre eta, oroz gairietik, bihiak. Garia merke dago Frantzian, arras garesti Alemanian, eta bien artean beste lau erresumetan. Frantziak ez geiegi goititu nai, ogia hiritarrek merke eros ahal dezaten. Alemanak ez geiegi beittitu nai, bere nekazariak ondo bizi ditezen.

Bihien prezioak azkenean finkatzen dituzte, 1964-ko Abenduaren 15-ean, **MANSHOLT** jaunaren plana onartuz. C.E.E.-ko laborantzaren burua da hau. Frantziak eta Alemaniak egin dute baktotzak bide erdi. Bainan tratu horrek badauka bere itzala. Bihiak goitituz, Frantziako nekazariak gari geiako ereingo dute ta bei gutiago altxatuko. Bihi geiegi izanen da eta aragi gutiegi...

Aintziñaki antolamenduen arabera, hirugarren eta azken mailerak pasatuko ahal gera 1965-eko uztaillaren 1-ean?

Anartean, C.E.C.A., Euratom eta C.E.E. bazkunek bat egin dute, "Comisión ejecutiva del mercado común" delakoaren baitan. Komisionen hunen burua, **Walter HALLSTEIN** jauna. Alemana da, ta arras europazalea. Ekonomiaren bidez anka bat (edo biak!) politikan sartuz, Europa federal bati buruz jokatzeko du, de GAULLE-k Frantziaren "leader-ship"-aren alde erakasten duen kar berarekin. De Gaulle eta Hallstein, bi izpiritutu: militarrena eta ekonomixtena; bi filosofia: inperialismo berekoia eta federalismo idekia; bi mende: 19 garrena eta 20-garrena. Hots, bi etsai.

Ala bada, de Gaulle eta Hallstein eskuz-esku ibilli dira, Europaren interesak kanpokoen eretzean defenditu bear izan diren aldi guzietan, eta bereziki Amerikanoen aurrean Europaren nortasuna jinkatzeko: oroit gaitzen "Kennedy Round" delako antolamendu ez izanaz. Amerikanoek nai lukeke Europareki merkatu bakar bat apaillatu. De Gaulle-k eta Hallstein-ek botz batez: EZETZ! Hori Amerikanoen baitan Europaren urtzea litakela...

Bainan Europa ez dute begi berez ikusten de Gaulle-k eta Hallstein-ek. De Gaulle-k Europaren batasunik nai ote du? Nork daki... Dena den, gurko egunean, berak diño Europarako bidea Estaduetarik pasatzen dela, eta ez ameslariaren eziñezko "supra-nacional"-tasun batetatik. Egin dezagun lehenik politika bera, Amerikanoetarik urrunt gaitzen geiago eta gero egiten ahalko dugu "confederación" bat. Eta ondotik ikusiko dugu, heian aitzinago joaiten ahalko giren ala ez...

Hallstein-ek aldiz, Robert SCHUMAN-ek eta Jean MONNET-ek bezala: lehendabizikorik, alkarreki jar gaitzen ekonomiaren bidez, gero egingo dugu politika bera. Amerikatik berexteko, Europak izan bear du. Oraindik ez da. Egin dezagun.

Auzi hortan dago merkatu alkartua tratatzen duen ezta-baida larriena.

Bizkitartean, ekonomiako sailletan hartu bear diren erabakiek garrantzi handia daukate. Alabainan, 1965-eko Ekainan, F.E.O.G.A. delakoari eskubide berri batzuen emaitiaz da solasa. Kanpoko aduanetako zuzenak ez dira naikoak F.E.O.G.A. horren bear bezala hazteko. Ikusten ahal denaz, 1967-an bilduko duen baiño geiago egorriko du: 6 miliar frankoren gastua; 5 miliarren sartzea... beraz merkatu alkartuko buruzagitzak Estadueri eskatzen daioete eman diezoten diru.

Industriako emaitzak seihez kanpoko erresumetarik sartzen zaitzolarik, estatu bakotzak bere aduanan zuzen batzu atxikitzen ditu. Hemendik, aurrera, deretxo horik bere kutxarat bildu nai lituzke merkatu alkartuko buruzagitzak. Ber denboran, aitzinako antolamenduen arabera, seien arte-

ko erabakiak maiorian hartuko dituzte minixtroek, eta ez geiago denak iritzi bereko izanez, orain arte bezala. Gaiñera, batzuek nai luteke Europako deputatuen menpeko izan dadin merkatu alkartuko diru-kutxa, amoreagatik eta ez dadin dena teknokrazia baten peko eror. Urrats haueri esker, gobernu "supra nacional" edo estadien gaiñetikako estadi berri bat bezala litake merkatu alkartuko buruzagitza, hain batean beinztat.

• Ez dezakete holakorik onar seietako buruzagiek, europazaletasunetik zerbañt galdu baitute azken urte auñetan, Frantziaren etsenpluari jarraituz. Bereziki, neholaz ere ez dezake ontzat ar de Gaulle-k. Ekainaren 30-ean, Hallsteini du, bere bost kidekoari baiño askoz geiago erantzun: EZ! Geroztik, beste bostak alkartu dira, komisionea bazterturik, eta Frantziari proposatu daiote horrelako biltzarrak egitea, minixtroen artean. Frantziari, lendakariaren hautatzeko botzak pasatu dira. Orain, itxura guzieren arabera, sei erresumek merkatu alkartuari bultzada berri bat emango daiote, baiñan politika kutsua ahalaz mendratuz eta ezeztatuz. Alde batetik komisioneak bere botereak galduko dituela eta besteetik, erabakiak minixtroek aitzaiñetik bezala hartuko dituztela, denak konponduz, ba dirudi.

Gero zer? Ekonomia ez omen da arras politika. Bainañ biak ez ote dira alkarri ezkonduak? Ekonomiaz arta hartzea, politikan anka baten sartzea. Eta gero biak sartu bear. Merkatu alkartuak Europaren batasunera derama. Baiñan noizko? LUNIK-en eta GEMINI-ren mendean, Europaren geroa ez dugu agure zaibaiten urratsean uzten ahal. Ez eta ere Amerikanoen menpean: Azken puntu huntan, de Gaulle-ri arrazoin emango niroke. Halaber, diñolarik Iberiako populuari zabalik bear auela merkatuko atek. Ahatik, Britanikoeri berak nolaz sudurrerat hetsi daiote? Bestalde, Hallstein zuzen ari dela iduri zait, Europa federal bati buruz estadien goitrikako gobernu bat asmatuz. Baiñan estadi hortan, zer toki dukete populuak, eta bereziki gureak? Eta planifikazione baten bidez, ekonomia denen zerbitzuko izanen ote da?

Zenbat kezka eta kontradiziño! Euskal-Herri handi baten aniza baluke gaurko Europak. Ez daki zer nai duen. Hautu bat egin bear luke: izan edo ez izan. Eta zai dago. Zeren zai? Arrotzek, aberatsek eta indartsuek zer errango duten. Hurak ditu bere profetak. Bere jaun goikoa: dirua. Hiru gauza eskas ditu: sinistea, itxaropena, maitasuna. Eta hiru geiegi: sabel lodia, geroaren beldurra eta ezpirituaren mespretxua. Gazteri berri baten arnas boladak harrotuko bai ahal du!

lenin, kondaira ta mito

x. mendiguren

Kondaira zear, gizon baten eragipena noraino iritxi diteken jakitea, ez da batere gauza erreza. Sortzean umil eta arrunt agertzen dan idea naiz egitea, amestu ere ezin liteken indarraren jabe izan oi da sarritan. Orregatik edo esaten da, egintza aundi oro asiera kaxkarren ondorio oi dala.

Lenin eta aren ondorenak aztertzean ere, lege onen barruan arkitzen geran susmoa artzen degu. 1917'gn. urtean, benda zikiñez mozorroturik, matxinada piztu eziñaz zebillan Lenin'engandik, "proletarioen salbatzaille ta aita" izenez ezaguna dan gizaki dirdaitsu orren-gana ba dago tarte nabarmenik. Aren irradiapen-zelaiean bizi diran milloika ta milloika komunistaentzat, Lenin, mito, santu ikutuezin biurtu da; erlijiozko indar misteriotsua darion irakasle ta zuzendari.

"Gaurko errusitarrentzat, gizon oroz gairdiko izaki da, Lenin adiskidea; proletariaren birrerosle... Amar millatsu igarotzen dira goizero Lenin'en illobi aurretik. Begirunezko ixiltasunean, Lenin'en gorpu gantzutuaren aurrez, arratsaldeko ordu biak artean igarotzen diran illara luzeak ikusten nituan" (1).

Artikulu au idazterakoan ez det biografi egiteko asmorik artu, ezta mitoa ta kondaira bereizteko erabakirik ere; orregatik "flash" antzera bi ikuspegi eskeintzeaz naikotuko naiz. Aurrena, Egorychev, sobietar pentsalariak Lenin'engan ikusten duan maixu ta gidariaren berri emango det. Ondoren, Lunacharski, aren lankide miñiak ezagutu zuan ezur eta aragizko illitx ura azalduko det. Baño asteko, esan dezadan zerbaít Lenin'en "orduaz".

lenin'en ordua

1917'ko urrillak 23. Gaua. Gezurrezko ilearekin eta bizarrik gabe, Lenin Petrogrado'ra iritxi zan. Bolxebikeen Komite Nagusiak billera zuan. Lenin'ez gaiñera an bildu ziran Zinoviev, Trotzky, Stalin, Kamenev tab. Errusiko Gobernuaren aurka altxa ala ez altxa, zuten auzigai.

Amar ordu luze irauñ zuan eztabaidak. Atertzeke mintzatu zan Lenin. Zinoviev eta Kamenev ez beste guztiak lenbailen jeikitze aldekoak ziran. Bi oek partidua oraindik aul irizten zuten eta bildur ziran edozein utsegitek zearo lur jota utziko ote zuan. Lenin'ek, ordea, etzuan amor egin eta bereakin irten zan. "*Lenbailen armatan jeikitzea premiazko zala*" erabaki zuten. Gaueko iruretan bukatu zuten batzarra ta Lenin berriro izkutatu egin zan.

29'n berriro Bolxebikeen Komite Nagusiaren Batzarra. Gartsuki zalantza oro uxatu ondoren, Lenin'ek burrukarako zantzoa botatzen du. Ordurako uria zurrumurrus betea zegon. Kamenev'ek ezezkoan jarraitzen zuan.

Azaroaren 4'an "*saiaketa paketsu*" bat egin zuten. Uriko babes-indarren buru egiten zuan Pokolnikov'ekin ar-emanetan sartu ziran, baiño ezertxo ere etzuten iritxi ahal izan. Gobernua jarritzen asia zegon. 6'n kaleak paketsu zeuden baiño Kerensky'k ministroai batzarrerako deia egin, "*matxinada-egoeran*" zeudela adierazi ta Lenin "*estaduaerekiko kriminal*" izen-tatu zuan. Matxinzaileen idatzi batek ziurta zezakenez, jeikialdia asita zegon.

Smolny'ko bolxebikeak azken-gertakizunetan ari ziran. Gau-erdi alde-

(1) Albarracín F. Peregrinación de la Unidad-Oriente Cristiano, oct. 1965.

ra, benda zikiñez itxuraldaturik, Lenin Smolny'ra iritxi zan. Trotzky'rekin izketatu ta lenbailen jeikitza derriortuak zeudela adierazi zion.

Jendea geroz ta zalapartariago zebillan. Ordura artean burrukarik sortu ez bazan ere, 7'n uria bolxebikeen eskuetan zegon. Kerensky naiko bildur zan Polkovnikov azpilanean ez ote zebilkion eta aztarrenik utzi gabe izkutatu egin zan.

T'aren goizeko amarretan, Trotzky'ren Erreboluzio-Komiteak au adierazi zuan: "*Gobernua erori dalarik, Komite au agintearen jabe egiten da*". Gobernutarren gudari ziran kosakoek zirkiñik ere etzuten egiten. Kerensky'ren ministroak, zer egin etzekitela, ezertarako gauza etzirala, zeuden.

Uria, bitartean, 20.000 "*zaitzalle gorriren*" mende zegon, eta reboluziogilleen zazpi itxasontzi Kronstadt'etik irtenak ziran. Finlandia'ko bolxebikeak ere indarrean zeuden eta gudari millaka asko bialtzen ari ziran.

Arratsaldeko seiterdian, bi mezulari iritxi ziran ministroengana: ogei minutu barru, gudari ta guzi errenditzen ez baziran, burrukarri ekingo zitzaion.

Bederatzietan, bi dunbatekok erasoaren asiera adierazi zuten. Kañoiak jauregiruntz tiratzen zuten bitartean, bolxebikeen burruka-gurdiak kaleetara irtetzen asi ziran. Biamonez, gorriak jauregian oiña jarri ahal izan zuten. Bolxebikeen aldera igaroak ugari baziran ere, burnibideetako langilleak Gobernuaren alde irauten zuten.

Gudaritaldea zan, ordea, Lenin eta Trotzky gelaibat larritzen zituana. Ixillean laguntza biltzeari ekin zion Kerensky, azpijalez betetako giroan alper-lanean ari zan. Zaldizko-talde bat urira bialtzeko agindua eman zuan arren. Chemizov'ek aintzakotzat etzuan artu ta iruzur egin zion.

Gaueko 8'40'tan, Lenin tribunara igo zan. Txalo-soiñu bizi batez agurtu zuan jendetaldeak. Begirakun bizkorrez erria aztertu ondoren, minutu batzuen buruan au esan zuan: "*Eta ordain sozialista-erakundea eraikiko degu*". Lehen baño askozaz txalo-ots sutsuagoa entzun zan. Gero, pake osoa aurki iritxiko zutela adierazi, ta Errusi guzian jabetza pribatua debekatua izan zedilla eskatu zuan. Lurrez gabetuak, etzuten, gaiñera, ordainik artuko. Ondoren, agintari berrien banaketa irakurri zuan Kamenev'ek.

Zalaparta-giroa baretzea oraindik zerbait kosta zan, baño 15'n, Kremlin-i eusten zioten gudariak armak utzi zituztenez, Mosku bolxebikeen mende erori zan.

Astebete eskas zan, mozorroturik Lenin Smolny'ra etorri zala ta kaisar'erri osoa bere eskuetan zeukan. Arrezkero Lenin'en izarra goraka

joan zan. 1924'ganean, eriotzak eraman zuanean, gizarte berriaren azia ereiña zegan, "salbatzaillearen" izena egunetik egunera dizdiratsuago ageri zan. Lenin, Komunistaentzat, mesias, profeta ta jenio zan; ta aren irudi "ikonizatuak" bakarrik arrazoï eman dezake, sobietar gidarien utsegite guzien gaindik, komunismoak daraman aurrera-bide baikor, sutsu ta ustetsu ortaz.

Lenin, 1966

Gaur, Lenin'i buruz bear bezela mintzatzeko, R.S.S.A.'zaz itzegitea derriozrezko da, aren ideaen sorkari ta luzapen bezela bait da.

Gaurko komunistaen begietan, 1917'n ibillian jarri zuan sozialistamakina orren kuerda-emalle soil baño, zerbait geiago da Lenin: reboluziogille, pentsalari, eraberritzalle, gizadi-aro berriaren aita ta komunismogintzaren anima illezkor.

Lenin jaio zanetiko 96'garren urtea dala-ta, XXIII'garren billera-ondoren, jaikizun bereziak ospa dituzte Mosku'n. Gaurko komunista batek Lenin nola ikusten duan jakiteko, garrantzi aundiko iruditzen zait, jorralaren 23'n, Pravda'k ekarri zuan Egorychev'en itzaldia (2). Lan ontaz baliatuko naiz, baitikbait, Lenin'i buruzko ondorengo ikuspegi auek ematean.

Kristauok Kristo'ren berpiztean ikusten deguna bera, ikusten dute komunista sutsuak, Lenin'ek piztu zuan "urrilleko matxinadan" (Alan Moorehead). Kondairaren dialektikak eskatzen zuan "parusia" Lenin'engan bete da. Leninismuaren irakatsi ta zuzenkiari darien indar, errealismo ta guziekikotasunaz jabetzeko, leku guztietatik XXIII'garren billerara etorri diran 86 ordezkari auek jartzen dizkigu ezaupidetzat Egorychev'ek.

Ezin-zaartuzkotasuna, ta utsezintasuna dira, komunistaen iritzian leninismuaren garantirik garbien. Gizarte berri, langille-babesle, naiz askatasun-zaleengan ez da oraindiko sortu Lenin'ek erantzuna emango ez dion problemarik. Betikotasun onek, zenbait komunistaentzat indar mistiku baten neurriak iritxi ditu.

"Gorputzez ez da bizi, baño aren abotsak ozen eta garaikor itz egiten die lurbira osoko langilleai; eta abots onek reboluziora, bizitza berrira ta pakegintzara esnarazi ez duan zokorik ez da" (Gorki).

(2) *Po-leninski Borot'sa za Kommunizm!*, Doklad tovarischcha Egorycheva-Pravda, ap. 23.

Egorychev'ek dionez, marx-lenindar irakatsien ezin-agortuzko gatzetasuna ontan datza: sakonkiro zientifiku izaki, bizitzari estu-estu loturik egotean. Lenin, teori utsaren kontrako da; kondizio berriak arretaz aztertea ta kondaira zear jasotako esperientzia gogoan artzea noraezeko iruditzen zaizkio. Rebixiozaleak babesten duten bezela komunismoari ere "aggiornamento" bat osasuntsu, derriorrezko zaio.

lenin eta ekonomia (3)

Lehentxeago aditzera eman dedanez, Lenin'en teoria bizitzari ertsiki lotua dago, eta ekonomia da komunistarentzat bizi-agerkari oro ernarazten duan azpi-lurra. Lenin'ek ere problema guzien artean, ekonomi problema ematen die lehentasuna. Gizarte berriaren erakuntza, batez ere, ekonomi-politika zuzen baten gain oinarritua zegoala, esan oi zuan. Eskema ta jardunbide abstraktu oro bazterturik, aldian aldiko giro ta kondizioak ikasteari ekiteko agintzen zuan, ez bait da beste biderik sortu, lurralde bakoitzaren ahalkizunei dagokienez jardutzeko.

Zeazki ta garaiz oartzen zan aldakuntza berri guzietaz eta egitarau guziak oso konkretuak egin oi zituan. Barne-guda ta gobernuaren tartetze guziak ekonomira zuzentzen zituan eta indar eta erabaki guziak gobernuaren eskuetan bil zitzan eta zentralizazio osopena eskura zezan ekonomi-politika eskatzen zuan.

Pakean lan egiteko giroa sortu zanean, sozialismuaren azibiderako diru-salgaien arteko ar-emanak arik eta ondoen aprotxa zitzan ekonomiplan berria eratu zuan Lenin'ek. "*Zaratara orde z begirune, zeaztasun eta seriotasun geiagoz ekonomia eraikitzen eta ekonomi-enpresak zuzentzen ikasi*" (4).

Pauso, idea ta egitarau bakoitza, eguneko bearkizun eta etorkizuneko problemaekin uztartzen irakatsi zuan Lenin'ek.

Komintern'ekoen IV'garren billean, 20 milloi erre-rublo bakarrik izentatu ahal izan zituan Lenin'ek, garai artako industri aularen azibiderako; gaur berrogeitamar urtetara, sobietarrak sortzen dute mundu guztiko industri-emankizunean, bostetik bat.

Burni-meatze, arrikatz, porlan, berunezko tubo, zerra-zur, metalgintzarako makina, azukre ta esne-guriñean aurrena dira. Igaz, 507 mila

(3) *Leninskaja Ekonomicheskaja Politika Partii*, ibidem.

(4) *Polnoe Sobranie Sochinenii-44* kap., 492 orr.

milloi ordu-kilobatioko indarrak, 91 milloi tonelada osatu zituan. Gaurko nazio-errentak 190 milla milloitik gora jotzen du.

Lenin izan zan, alaber, serioki luzera lana planifikatzen irakatsi zuana. Alkartasunean eratutako ekonomiak, kapitalista erara eraikitakoak baiño etorkizun ohea zeukala esan oi zuan. Baiño planifikatze onek, langilleen erabaki ta naiak gogoan artzen ez baditu, enpresaren askatasuna ta erantzukizuna itotzen baditu, kalte besterik ezin lezaioke egin luzera ekonomiari.

Azken puntu au isituki oarreraozen du Egorychev'ek; agi danez, orain arteko politikak Lenin'en dotriña auenganako nostalgja piztu die.

lenin-en jardunbidea (5)

Teoria ta praktika, lanbide ta jomuga arteko batasuna da, Egorycheven iritzian, leninismuaren ezaugarririk bereziena. Lenin'en eredia, une ontan ixpillu gerta zaio XXIII'garren Batzarrari; azterketa ontan argi ikusi dute komunistak, zenbait lenindar irakatsien garrantzia:

- Problemari jakintza-arauz askaera eman eta benetako prozesu ta oarrikasietan erabakiak oiñarritu.*
- Erriarekin alkartasunik audienean lan egin eta onek idaroki dezan edozer onartu ta aren pentsakera sakontzen saiatu.*
- Lana praktikoki arautzen, koadroak egoki aukeratu ta gertatzen, burutatuko lanak sistema-arauz aztertzen alegindu.*
- Iriskizunak ongi baloratu, kritika ta autokritika aintzakotzat artu, zahar, indarge ta alperrikako dan oro errukigabe atzera utzi.*

Lenin'ek begirune aundiz aztertu oi zituan lankideen iritzi guztiak. Kolejialtasuna ta norberaren erantzukizuna bearbezela uztartzen jakitean dartzaraipena. Ezaguna da nolako biguintasun eta sentiberatasunez jendearekikoa egin oi zan. Mendeko izan zitzaizkion guztien aitorrez, akar egiterakoan ere sekula iñor ez omen zuan iraintzen; aitzitik, norbere indarretan fedea piztuarazten alegintzen omen zan. Baiño adiskide naiz begiko zitzaionen bat, partiduaren aurrerabidean oztopo gerta ba-zitzaion, bat batean uko egiten zion arekiko adiskidetasunari eta arremian guztiak etentzen zituan.

Ona emen, Egorychev'ek ikusten dituan Lenin'en kera nabarmenenak.

(5) *Za Leninskii Stil' Raboty*, ibidem.

SSRA'ko erakundeai bizi emanez, komunismuaren aurrerapena indartuz ageri zaigu Lenin. Bestalde, gaurko sobietarrai sortu zaizkien problemak erantzuna ematen dien neurrian ikusten du Lenin'en nortasuna. Belaunaldi bakoitzak bere erara ikusten ditu gizurenak eta gaurko sobietarrek ere kera bereiziz jantzi dute beren Gidariaren irudia.

lenin gertutik

Egorychev'en itzaldiak eskeintzen digun maixu ta gidari-irudiaren ondoren Lunacharski (6) aren lankide miñak ikusi zuan ezur-aragizko Lenin'en berri zenbait ematen aleginduko naiz.

Lunacharski'k ezagutu zuan rebolezio-aurreko Lenin'en zerzelada nabarmenenak auek dira: adimen argi ta zorrotza, lanerako almena, adiskidetetasun eta adeitasuna. Baiño bizitasuna ta naimen sendoa ziran, batez ere, bere nortasunaren osagairik nabarienak. Berrogei ta amar urte zitua- la ere, gazte baten pare zan lanean.

Itz egiterakoan, antzaldatu egiten zala esan zitekean. Begiak entzuleengan josi ta izugarritzko bizitasunaz mintzatzen zan. Argi idazten zuan; idea korapillotsuenak ere arrigarrizko xotiltasunaz adierazten zituan. Artikuluak bizkor idazten zituan; luzeki, letra aundiz eta idatzitakoa sekula tatxatu gabe. Goizetik lan egiten zuan, maizenik; baita arratsean ere.

Ahal zuanean irakurtzen zuan eta gudarako armaz bezela jabetzen zan idea bakoitzaz. Alkarren aurkako idea-zalea, polemista purrukatua zan. Izkuntza asko zekizkian; errusieraz gaiñera, alemaneraz ederki mintzatzen zan, prantsesez eta ingles ez ain gaizki. Liburuak, berriz, suekoz, poloneraz, txekoz eta italioz ere irakurtzen zituan. Txolartetan, zer egin etzekianean, iztegiak irakurtzen jardun oi zan.

Denbora gutxi egiten zuan atsedena artzen, baiño zearo indarberrituri- rik jeikitzen zan. Lenin'en irriparrari ume-irriaren xoramena zerion; ordu- rik zailletan ere beti aldarte berdiñean eta alaitsu-ki parrez erasotzeko prest egoten zan.

Asarratzen zanean dirdira gaizto bat nabari zitzaion begietan, baiño berealaxe menderatzen zuan amorrua eta lehen bezin nare gelditzen zan. Ateraldi bitxiren batek bukaera ematen zien beroaldiai ta ura esanaz gero alaitsu ta pakean geratzen zan.

(6) Lounatcharski, *Lénine, Souvenirs*.—Études Soviétiques, avril, n° 217, 1966.

Bere bizitza bereizian alaitasun xaloz jokatzen zuan. Aurrak eta katakumeak oso atsegin zitzaizkion; sekula etzan aspertzen aiekin jolasean.

Erakartasun aundia zerion Lenin'en pertsonari: Gorki bezelako idazle ospetsu batengandik asi ta azkeneko baserritarraganaiñoko guziak, ezagutu zutenekoxe, aren xoramenaren mende erori ziran; ezezagunak ere liltx izenez deitzen zuten.

Erabeti xamarra zan izakeraz; nazio arteko billeratan, ixil eta itzalpean iraun oi zuan, baiño noizik bein itzaldi bikaiñak egiten ere ba zekian. Alkartasunean lan egitea begiko zitzaion. Norbaitek esakun egokiarekin topo egiten ba-zuan, onela zion: "*Oso ederki, oso ederki! Ia, berriro esai-guzu!*" Zerbait ain ongi iruditzen ez bazitzaion, berriz: "*Ontara, bear bada obeto legoke*". Bere idearen bat, arrazoiz kritikatzten ziotenean, irripar egin eta bere eskuz baztertu oi zuan; baiño etzan batere gauza erreza ari kontra egitea, aurka egiten zionaren argaluneak arrapatzeko ta bere iritziak babesteko aparteko trebetasuna bait zuan.

Bukatzeko, ikonografiari dagokionez, Lenin'en irudiak, margo-lanak, baitipait, benetako Lenin'en aurpegia oso motelki ematen digutela aitorzeten zuten personalki ezagutu zutenak. Aurpegiz oso esanguratsua eta aldabera; ia ezinkizun zan, beraz, aren bizitasunaren ugariari egoneko erretrato baten urrik ere ematea.

estetika berria eliz-gintzan

j. a. letamendia.


Ordizia-tik Tolosa-ra goazela, Alegi-n sartzetakoan, letre-
ro bat dago pareta batean terro-
risten moduan tindatuta: "Alda-
ba" diote letra txuri latz haiek.

Aldaba-ra aillatzeko igo egin
behar da ta nahiko jira-bira ta
bihurgune pasa behar, Gipuz-
koa-ko auzo-bide gehienetan be-
zela. Behin goian, kalerik ez
dago, ezta plazarik ere: base-
rri batzuek sakabanatuta, es-
kola, zenbait bei, ta apaizaren
etxea.

Eliza egin berria dute, orain-
dik xehetasun batzuek falta di-
rala erabat bukatuta egon dedin.
Hontaz, hain zuzen ere, nahi
nuke nik apur bat bederen jar-
áutea, bere sorreraren arrazoiak
arakatuaz.

Elizgintzaren zuzendaritzan
hirurko bat duzu ta hauetatik
nik, ahaide bait-dut, bat auke-
ratu dut nere galderak egiteko:
Antonio Pz. de San Roman,
apaiz donostiarra.

—Aldaba'ko elizak hodei ta mendi beltzen artean bere orratzak jasotzen ditu, arrano kabia dirudiela.



—Esaidazu... entzun ta irakurri dudanez, hiru lankide izan zerate eliza hontako zuzendaritzan. Zeintzuk?

—Labaien jauna arkitektoa, Elo-segi jauna injenierua, ta ni apaiza...

—“Retabloskope” delako horizuk asmatua bide da; hala irakurri dugu beñepein.

—Ez ba... Bertan zetzan ideia hori... Iñoiz han arkitzen ba-zera, 180 graduko abaniku ikaragarria zabalduko zaizu begien aurrean, Aralar eta Aitzgorri mendiak aurrez-aurre dituzula. Gogoan daukat... lehenengo aldiz, motorratik jetxi, ta hango erretore den Iradi jaunak miradore hartara eraman ninduanean, zera esan niola: —“Egiña duzute eliza. Hiru pareta bakar-bakarrik eta teillatua jendeak aterpe izan dezan, ez dezute besterik behar...”

—Estilo berezia du... Zer diozu hortaz?

—Bai, hala da, noski. Gaur egun, etxegintzan, estilorik egokiena bertako tokiari dagokiona da. Bertako inguru ta giroak nolakoak diren ikusi behar da... Hontan hiru oztopo genituen gogoan hartzekoak: lur-jauziak, korrimenduak alde batetik —hautekxek ondatu zuten lehengo eliza— diru hurri ta langille espezializatuen exkasia. Bertako baserritarak buru ahal izateko proiektua behar zen.

—Erantzun al zuten hango gizonak?

—Eta nola!!! Gogotik empleatu ziren lan hartan. Begira eiozu, esate baterako, kanpai-dorreari. Beragan ikus ahal izango dute nekazari hauen ondorengok gizon hauen garra ta balendria. Lan gaitza eskuarki, baiñan heuren

biotz-indarrak eraginda, halako teknika bikaiña lortu zuten, hango enkofradua tajuz neurtzeko, eba-ki ta josteko... Langille hauek sosik ere kobratzeke aritu ziren auzo-lanean, eta hori ez-ezik, lan-rakoan billete berdeak zekarzki-ten patrikan zor premitsuenak or-daintzeko...

—**Herri kementsua benetan...**

—Berrehun bat bizi-lagun ditela, hogeitaz hamabi apaiz, pralle ta moja ditu mundu guzian barna sakabanaturik... Herrian geratu zirenak berehalaxe jaso zuten ero-ritako eliza, esku ta bihotzez, Jain-koari esker, gelditzen dire oraindik holako gizonak gure mendietan...

—**Eta lehengoari gagozkiola, nundik sortu da eliz-fatxada hori?**

—Elizaren aurreko alde hori eta funtsean eliza guztia ere bertan kopiatu da. Ikus argazki hontan dagoen borda hau. Lehen bakar-bakarrrik zegoen, eta artean atzeko elizarik etzen. Berdin-berdina-kiak dituzu biak. Harrizko frisoa ta goi-ko zuloa bordakoak dire. Teilla-tua 90 gradutan jiratuta dago, hala behar bait-zen. Estalkia bi uretara dago bordaren arabera... Hots, borda eliza bilakatu da.

—**Proiektua?**

—Puntu batzuetan adieraziko dituz:

a) Sakrilegioa iruditzen zitzaiz-kan neri Jainkoak egindako lana estaltzea, gizonena ipintzearren.

Horregatik ipiñi genduen kristal hori, zorioneko "retabloskoea".

b) Teodizean bide bat dugu Jaungoikoarenganaifio irixteko: Izadiaren bikaindasuna ederres-tea. "Zeru-lurra-ak zure dirdalez be-teak daude", aldaregaiñeko fra-seak dion bezela, Orixe-tik hartuta.

c) Gure nekazariek ama-lurra-ren gaifian egiten dute eguneroko lana, ta hauxe dutela Jainkoa gur-tzeko biderik zuzenena adierazi behar zaie.


d) Gure kristaue-ten gehienak, eskatzeko asmotan joaten dire eli-zara, edo-ta aginduen bat betetze-kotan. Oso gutxi joaten da, ordea, adoratzera. Aldaba-ko Eliza lurra-ren Egillea gurtzeko izan da egi-ña, hain zuzen ere.

e) Gizonak gauza haundien aintzifian ikusten du eta dasta-tzen bere kaxkarra. Sikologi hu-tsa da hori. Aldaba-n, sinismen duena, belaunbikaturik jausten da.

f) Eliza S. Migel-en babespean dago. Horregatik, kristalezko re-tabloa ta elizaren ardatza Napa-rra-ko Santutegira dago begira. Eliz-arpegiak, ere esaera hau du: "Nor Jainkoa haifia?" babeslearen ohorean.

—**Hauxe da nik jakin nahi nuena. Eskerririk asko.**

Ene iritziz ere hauxe da egiz-ko ertia: Hartu bertako harriak, hartu bertako herri-sena —hots, Gabriel, "Harri ta Herri"—, ba-



Borda zaharra eliza berria bilakatu da

liatu gaurko teknikaz, ta egin gauza funtzionalak; gero, edertasuna berez sortuko da.

Ba dago, halere, Arantzazu-n gotikoa maiteago izango zukean zenbait kaiku... Horiek, Afrika-n, pagodak ipiñiko lituzkete pozik, eta Txirrita hawaiianaz jantzita yenkan egiten ere ontzat emango lukete, noski. Jainkoak barka bezaie, zer nahi duten ez baitdakie...

Euskal sormenari antziñan geratu zaio erlojua. Ez dakit nik Jorje-k esaten dituen cromlech zaharretan ala Bergara-ko Komenioan. Berdin zait. Baiñan pena da beste herri batzuen

etsenpluari kasu ez egitea. Japoi-ko arkitektoek gaurko ertia egiten dute; antziñako senari jarraiki, ordea. Mexiko-n ere batere bildur gabe gaurko tekniketan enplegatzen dire, arte "precolombiano" egiten dute, halare. Zer egingo ote dugu guk, hasteko ere erti eskolarik ez dugula?

Ez gaitzela arreguratu. Egin dezagun erti jator bat, berez sortzen den erti bat, bideak eta tresnak bihurritu gabe. Behin "Zeruko Argia-ren" editorialak zion bezela, "gerokoak ez gaitzatela madarikatu eta ez-jakin arlotetzat jo".

NATALIA-k: ...“erantzun zintzo
ta egizko bat eman behar diegu ara-
zo guztieri”

(Maximo Gorki, AMA, 6^{gn.} kapitu-
loan).

AMA-k: “Ezin diteke hil anima berpiztua...
Ezingo dute egia itzali, ezta odolezko itxasope
batean murgiltzen badute ere”.

(AMA, II-gn. atala, 29-gn. kapituluan)

gazteriak zer espero komunismotik?

jose ramon beloki

Ez dut kontu berririk esango. Gaurregun, ba da gure herrian errealidade bat nekez ukatu ditekena: gazteriaren “klandestinidadere”-rako lillura, alegia. Ez da arritzekoa, gaiñera...

Klandestinidadere huntan komunismoari lotuko natzαιο, gaurkoan. Gogora aurtengo udaran gertaturikoak.

Galdera bat: zeren billa dijoa gure gazteriaren baliotsuena komunismora? Zeren —errealidade bilakatu da beste honoko hau ere—, ez dira txotxolo utsak, ez-eta eskola gabeak, komunismora pasatzen diranak, aitzitik baizik: gazte urduri ta baliotsak.

Ez da ene asmoa galdera honi zuzenka erantzutea, zeharka baiño. Esprika nadin. Errusotar herriari begira erantzungo dut. Ta hemen lehenen galdera: zer itxaro zuten errusotar gizarteko elementorik prestuenak

1918-ko erreboluziotik? Erantzuna ematen errusotar nobelari ospetsuena-tako batek lagunduko dit: Gorki-k, Gorki-ren "Ama" eleberri parega-bean ikusi ahal izanen dugu herriak zer itxaro zuen erreboluzio hartatik.

* * *

Jakifia. Gorki-k bere nobelan esanak ezin ditezke, beste gabarik, errusotar bakoitzari erantsi. Dударик gabe, ez zituzten oroek Gorki-k adierazten dizkigun hainbateko xede altsu ta gorenak. Esaera zaharra da: txoko guztietan egosten dirala babak. Eta, ba ziran haietan ere, halaber, erreboluziora intentzio makur askoekin zijoaztenak. Baiña gaur, ordea, nola parterik kezkatiena autatu dedan, zillegi bezait "Ama" eleberrian agertzen diran notifien ideia, burutapen eta asmoak komunismo osoarenak bailira on-hartzea.

Dana dela, Gorki-ren nobelak lilluraturik eta txundituta uzten gaitu. Ao-zabalik, komunzki esaten dan lez. Hango jendearen egi-zaletasuna eta haien urduritasunaren bikaifia! Ezin etsi dute mundu honen egokera ziztrin eta nardatxarekin. Mundu zabala nahi lukete erroitik aldatu, berritu, txukundu, ordenatu...

"Erantzun zintzo ta egizko bat eman behar diegu arazo guztieri" (6-gn. kapituloan).

Eta pozik ekiten diote lanari, mundu guztiaren eraberritzeari. Izan ere, mundu guztia baidago aldrebestua.

"Gizon guztiak daude gaixo, bizitzari beldur, laifiopean handik-honuntz galdurik, ...norberak bere baitako miñari soillik begiratzen diola..." (23 gn. kapituloan).

Bakoitzak bere interesak besterik ez ditu gogoan. Diru gose amorratu batek menperaturik dauzka gizon guztiak. Uste dute, berak besterik ez dirala gizon mundu honetan. Gaiñontzekoak, animalia, pizti... Ez dute gizarte bizitzarik ezagutzen. Beren arteko zerikusiak taberna-zuloko orru ta burrukaetan gelditzen dira.

Unkigarri benetan, alde huntatik, nobelaren aurren kapituloa. Bertan, Gorki-k, esku bereziarekin, hitz urritan pintatzen digu gizon hauen bizitza. Lantegi-taberna-jan-lo ugari egin-elizara joan... Ez dago **Amaren** senarrari begiratu besterik. **Migel Vlassof** gizajoa ez da gauza normal hitzegiteko ere. Orruka bizian diardu beti. Egu-nero astintzen du bere emaztea. **Amak** gero esango duanez, garai hartan, bere zeregin bakarra hauxe zen: giza pizti hura aserik eta pozik mantendu.

Eta Migel bezela, gizon bat eta beste, gizarte osoa. Belaunaldi bat eta beste. Guraso eta seme, denak ezpal berdifiketo.

“Nahiz beren semeak iraindu ta egurtu, hauen moskorkeri eta burrukak bidezko-edo zerizkien guraso haieri. Beraiek ere, gaztetan, bide berdifiketik ibilliak baiziran, aurrekoengandik hamaika ma-kilkazo jasoaz” (1-gn. kapituloan).

* * *

Ba zirudian, aurrerantz ere, betiko martxan jarraituko zutela gauzak **Amaren** etxean, herri guztian lez. Bere senarra oraindik hil-berria zalarik, Pablo, bere semea, aitaren kideko agertu zitzaion, jai egun batez: ordikoi, marruka, zikin...

—Ez daukazu edan beharrik —ihardetsi zion **Amak**—. Zure aitak edan zituan zure parteak... Berak jasan erazi zidan nahiko. Zuk miramendu pittin bat eduki zenezake zure amarekin...

Eta negarrari eman zion.

Orduan Pablo-k, bihotz unkiturik:

—Zaude! Etzazu egin negarrik! Emaidazu edaten!

Handik gutxi barru, Pablo zearo aldatzen hasi da. Estudioari ekiten dio. Taberna-zuloetan ez da agertzen. Bere mintzaera gero ta garbiago ta hitz politez ornituago bihurtzen da. Hain aldatu da, non **Ama** bildur da. Nobelaren 4-gn. kapituloan dialogo hau aurkitzen dugu:

—Zergatik egiten duzu hau, Pablo?

—Egia jakin nahi dut.

Egun batez, uritik jendea etorriko dala etxera, zapatuan, esaten dio **Amari**. **Ama**, noski, izutu egin zen. Baiña ixillik pasa zuen. Izan ere, bildur zitzaion herriko jendeeri. Halare, jende hura bere etxean aurkitu zenean, ez zitzaion hain jende aldrebesa ta gaixtoa iruditu. Aitzitik, gustatu egin zitzaion. Oso presuna formalak ziruditen.

Egun hartatik aintzinerat, talde hura geroz ta sarriago biltzen da. Eta beti **Ama Pelajiaren** etxean. Egunetik egunera, arpegi berriak ezagutzen ditu **Amak**, **Pablo**-ren inguruan. Gazte jendea zen gehienik. Noizbeinka, ordea, —geroz ta sarriago hau ere— zaharragoak ere etorri oi ziran. Bere semeari holako jende umotua eta urteetan aurreratua urbiltzen zitzaiola ikustean, arguilluz eta pozez gaifnezka jartzen zan **Amaren** bihotza.

Honela, aspaldiko beldur ta izuak jende harekiko maitasunari egin zioten leku **Amaren** baitan. Ez zien okerrik aurkitzen. Ikusten zuen

egia maite zutela. Egia soil ta billotsik, baiña egia osoa. Injustiziarik ezin dute sofritu. Gizon oro maite nahi lituzkete. Iñor ez dedilla maitasun hortatik at gelditu. Hau da beren galdera kezkatia, **Andres** biziaren hitzetan:

...“Nola liteke posible hori? Nola barkatu, zure gain, pizti amorratua bezela egotzten denari, anima bizi bat duzunik ere aintzat hartzen ez dizuanari, zure giza matrailletan kolpatzen zaituanari? Ifiolaz ere ezin ditekeana da. Ez da nigaitik; nik jasango nituzke neronek irain guztiak, neu bakarrik banintz iraindua. Baiña ez dut zanpatzaillekin bat egin nahi, ikusten baidut nire bizkarrak saio leku besterik ez dirala, gero besteen gain jotzen ikasteko...” (18-gn. kapituloan).

Benetan maite dute lagun urkoa. Bakarrik, lagun urkoaren orokartasuna zerbait ertsitu egin dutela. Bat sentitzen dire munduko langille ta menpeko oroekin. Aitzitik, goikoak, menperatzailleak bere lagun urkoaren hedaturatik at bota dituzte. Goikoen aurka, azpikoen batasun sendo ta bizi batera heldu nahi dute. Gizonak anai gertatu ditezela. Burrukak eta ezin ikusiak behin betirako deuseztu ditezela. Orduan hedatuko dira munduan barrena zorion eta ondasun guztiak, neurri gaberik, oparo baiño oparago.

* * *

Ez da lanbide samurra komunismoaz mintzatzea. Ba, oraindik biurriago egiten da korapilloa, geroko gizarte hunek zer esan nahi dion komunista bati adieraztekoan. Apika, kristauon eskatoloji-ko-errealidadeekin paretu ta neurtzen badugu, apika diot, konturatuko gifañake zertxobait komunismoaren paradisu hunekin.

Hanitzetan irakurri dut, mistikaz, komunismoa ta kristianismoa ez direla hain liferente: soilik, komunismoak mundu huntan kokatzen duela kristianismoak bestean, Jaungoikoaren baitan, duen xede altsua, paradisu handia.

Gerora ikusten dan mundu hontako paradisu hori da komunistek soil-soillik erdietsi gogo dutena. Ekintza ta egifial guztiak hortaraxe zuzentzen dituzte. Balore absolutu bilakatu da paradisu hori. Hain absolutu gaifera, non bide guztiak daudela zillegituak jomuga hortara iristekotan.

Komunistek betiere geroari begira lan egiten dute. Geroak ematen dien indarraren eragifñez. Eia ez dira batere beldur, gero horren erdies-teagaitik, oraingo atsegin oro baztertu behar badituzte ere.

Lilluragarri ta miresgarri puntu huntan Gorki-ren eleberriko gizon-emakumeen uko egite ta sakrifizioak. Bihotzean ikutzen gaitu, esate baterako, **Pablo**-ren, bere lagun **Andres**-en eta beste gazte zenbaiteen ezkontzari uko egiteak, idealaren serbitzuan beren bizitzak oso-osorik murgiltzearren. Aitortzen dutenez, bihotza odola dariola daukate. Geroak, ordea, eta gero hortara daramakian erreboluzioak ondo baiño hobekiago ordainduko du odol-ixurtze hori.

Batez ere, adieragarri ta argitsu gerta diteke saiets huntatik **Amaren** jokabidea. Pixkanaka-pixkanaka ta pausoka-pausoka, azkene-rako jabetu da erreboluzioaren edertasun ta handitasunaz. Egia odol, min, ta lan asko kostatu zaiola. Adibidez, antzinako bere erlijiotasun-indar hura alde batera laga behar izan du; gutxienez, aldatu beñepein: beste bide ta irteera bat eman indar horri.

Orain, finean, askozaz ere bihotz zabalago ta animosago aurkitzen da. Bere izpituaren giroa, askozaz dago orain aizetu ta hedatuagoa, lehen bere senar zaharraren pean makilkadak eta orruak umilki ta jasaduraz sofritzen zituanean baiño. Horregaitik, erreboluzioari emanen zaio. Zalantzarik eta beldur gabetanik. Ez da lanaren ez nekearen beldur. Lehenago, bai, aspaldi hartan, lanak menpetu, katetu egiten zuen. Oraingo lanak, berriz, gorendu ta askatu egiten du.

Eta hain ematen zaio erreboluzioari, azkenean, okasio denean, ez duela zalantzuko ezta bere bizi ematerik. Jendarne ta poliziak ostikoka ta zartaka kartzelara daramatenean, beste hitz ta deadar hanitzen artean, hauek jaulkiko zaizkio:

“Ezin diteke hil anima berpiztua... Ezingo dute egia itzali, ezta odolozko itxasope batean murgiltzen badute ere”. (II-gn. atala, 29-gn. kapituloan).

Eta pozik dioa kartzelara geroaren itxaropenean.

Poza ta alaitasuna da Gorki-ren protagonistek agertzen diguten bertuterik nabarmenena. Ezerk tristetzekotan, injustiziaren urbiltasunak goibeltzen ditu. Halaz ere, laixter xautu ta deuseztua izango denaren itxaropenak beren baitatik ateratzen ditu, pozaren-pozez.

Ez dute Jainkoagan sinisten. Jainkoa, diote, pobreak beren pobretasun eta injustizian eusteko sortua izan da. Hala azaltzen dire azaldu ere, nobelan zehar, apezak, agintarien adiskide ta kideko bezela. Beti goikoekin alkar harturik, gizon zanpatzaileeri esku ta amor emanik. Apezek sendabide bakarra daukate injustizi ta gaitz oroen-tzat: sofritu, jasan, otoitz egin...

“Herriak asko errezatzen du. Jainkoak, ostera, ez du nunbait

entzuteko astirik” —botako dio arpegira Rabynek apez hoietako bat. (II-gn. atala, 5-gn. kapituloan).

Urrengo egunean, herriko agintariak bere despatxura deitzen du, ta zaplazteko bat emanaz, **“zer esan hioan atzo apezari”**, galdetuko dio...

Hauek honela ez dute Jainkoa baitagan sinisten. Alper lana litzake. Okerrago. Zenbait okasionetan, estropozu ta atzerabide. Egoki ta apropos bazetorkien nagusi ta goikoeri Jainkoa, aldrebeskeri ta oztopo baiño ez dela konturaturik, herriak bazterrera uzten du erabat. Mundu huntako erreinua gizonen artean hamaika bider zuzenago osatuko dutela, dio komunismoak.

* * *

Honatz errusotar herriak erreboluziotik espero zuena. Edo, behintzat, errusotar zenbaitzuk, erreboluzioari gorputz-izpirituz eta maltzurkeriarik gabe eman zitzaizkionak, espero zutena: mundu berri bat, injustizi gabea, ondasun gisa oroekikoa. Giza eskubideak errespetatuz mundu berria.

Andres gaztearen ezpainetatik jasoko dugu gazteri eta herri baten itxaropena:

*“Ba dakit; helduko da garai bat gizonak elkar miretsiz biziko dirana, bakoitza bestearentzat izar argi bat izanen den garaia, projimoaren hitzak musikaz esanak bailira entzungo dirana. Gizon libreak ibilliko dira lurra-
ren gainean, askatasunak ematen dien handitasunarekin ornitutako gizonak; bihotz zabal izango dira guztiak, diru zalekeri eta gutizi gabeak... Bizitza, aro hartan, ez da ia bizitza izanen, gizonari dagokion ospea baizik; bere irudia goreneraño jaso izanen da, ez baitago gizon libreak gaindu ezin dezakean gaillurrik! Orduan, askatasun eta berdintasunean egingo da bizitza, edertasunean, eta gizonik onenak mundua beren bihotzetan hobekien besarkatzen dakitenak izanen dire, mundua gehien maite dutenak, libreen direnak... Zeren hauek izango dire edertasun dizdiratsuenaren ixpilla zoragarri! Handia izanen da bizia une hartan, eta orobat handi izanen dire bizi ahal izanen dutenak...”*

* * *

Nik emen bukatzen dut. Hasieran esan dudanez, ez dut erantzun zeatzik eman nahi izan. Bakar-bakarrik, adierazi, komunismoak, Gorki-ren eleberrian azaltzen denez, ba dituela xede ta puntu kilima-

garriak gure gazteri kezkatiarentzat. Ez dut deus konkretatu. Hain zuzen, komunismoan konkretotasun gutxi agertzen da: gaur egin eta biar desegin... Hori da "historiaren dialektika", indarberritze edo eboluzio eten gabea. Guztia, obediencia arrigarri batek eraginda. Eta ez Jaungoikoagatik behar bada...

Lortu du herriak erreboluziotik itxaro zuena, paradisu zoragarria? Beste batean ikusi ahal izanen dugu.

lete ta sarasola

beste bi olerkari gazte gaurkotasunez beterik

juan san martin

Xabier Lete eta Ibon Sarasola ditugu beste bi olerkari gazte gaurko munduari aurrez-aurre. Bai batak eta bai besteak ondo dakite gaurko joeren berri.

Oraindik egiazko poema nagusi baten jabe ez dan euskera, badijoa giroz egokitzen. Baiñan, mundu onek daraman martxan, orainezkero, gure poema nagusia ez dugu arkituko gizon bategan, baizik askoren arteko alkartasunean. Orrela, gure jatorrizko izakera eta gaurko mendearen alkargo izakera egiztatuko degu.

Baiña, jatorriz, badegu aitzu bear ez degun poema oso bikain bat, erri gutxik duten bazelakoa: gure erri-kantak eta gure bertsu-zarrak betetzen dutena da. Erri gutxik duten bezin ona eta guk oberik nekez sortu genezakean aifakoa. Ta, badirudi ez gerala konturatzen.

Azken urte auetan, olerkari gazteak dakarte beren eragin bizko-
rrez aize berri osasungarria euskerarentzat, narzisismoak eta txaubi-
nismoak alde batera utziaz, literaturaren onerako. Lizardi ta Laua-

xeta beren garaiko maillara dijoa. Baiña era berriz. Sarasola berak ongi aitortzen duen bezela: **Lizardi'ren jarraille naiz**, poesian esaten duan bezela:

"Ni ere lizarditarra naiz.
Bai, naiz.
Lizardi'ren jarraitzaille naiz
ni ere eusko-bidaztearen kanta
ikasten ari naizelako
nik ere noranaiko nahi dudalako euskera
soña zâr, berri gogo
azal orizta, muin betirakoa
izar urdinetarañoko asmoz...
bainan batez ere
Lizardi'ren eran idazten ez
dudalako
(zeren,
bestela,
Lizardi'ren imitatzailea izanen nintzake)
Poeta berriak
luma berri bat hartu zuen
gauza zaharrak era berrian esan zituen
bide berriak urratu zituen..."

Ez zaigu ajola bear Lizardi ta Lauaxeta'ren maillakoak diran ala ez. Gure olerkaritzak bear zuan gaurkotasuna arkitu dute oraingo poeta gazteak, eta aski da. Bi aiek, beren denboran, soillik ziran, ta orain ugariago ditugu. Aurtengo "Agora"-ko sariketa izan degu agiririk onena au egiztatzeko. Bertan presentatu ziran amar lanetatik lau, aspaldiko urtetan gure artean ezagutu ez degun erakoak dira. Erderaz ere, nik neuk, ez dakit obeagorik irakurri dedan.

Lau poemen izenak auek ziran:

- 1) **Pekatu zaharrak eta sifismen berria**
- 2) **Ahuntzaren gauerdiko eztulak**
- 3) **Bidez bide**
- 4) **Mindura gaur**

X. Lete, I. Sarasola, J. Azurmendi eta E. Erkiaga-renak dira ordena berean. Zein baiño zein obeak.

Erkiaga, aspalditik ezagun degu goi-maillako olerkaritzan eta orain datorkigu bere era berriagoan obetuagotuta. Azurmendi'ren berri igaz eman nuan "Zeruko Argia"-n, ikusi 132'gn. zenbakian (iraillaren 5'ekoa, 1965) **Bi olerkari gazte munduaren orduan, Azurmendi eta Lasa.** Orregaitik, gaur, Lete ta Sarasola dakarzkida eus-keltzaleen begietara, merezi duten abegi onez begiratu dezaten.

* * *

Xabier Lete Bergaretxe, Oiartzunen jaio zan 1944'an. Batxillerato elementala estudiatu zuan Donostian. Fabrika batean enplegatu da, baiña uste det orain soldaduzka egiten dagoala or nunbait. Iñoiz "Z. Argia"-an idazten du, ta Oiartzunen teatru talde bat bada berak eratua. Geien bat ortik ezagutzen degu, baiña ez olerkaritzatik.

Bere poeman, Lete'ri nabari zaio oiartzuarra dala, izkuntza aberatsa ta indartsua bai du. Esangurak irrikitzen daramate kanta errebelatuen bidetik. Bai bide egokia gazte zintzo batentzat, gaurko egoera ustel onetan. Ausarta da, gaztaro zintzo baten ideiaz jabeturik. Oso uleterreza, olerkari gutxi diran erara. Or ere agiri du zintzotasunik aski. Gai soziala darabil gizon umillen alde:

"Goseak gose ikusi ditut
zazpi ijitu kalean
eta sei gizon eleganteak
zeruaren egalean,
beti gertatu oi dan bezela mundu ontako aldean,
batzuek ondo bizi dirade
besteak modu txarrean".

Orrela, apal eta arin, egiten du gure ondasunen inbentarioa:

"Gure izakera jatorra,
meza, ezpatadantza, euskera gaxua,
dibidendoak,
belarrimotzak, koreanoak,
iru milla peztako soldat ugaria".

Ta bertatik datorkigun oiñordekoari ere eskeintzen dio bere kanta. Errekak ematen bai dio ispirazio gaia:

"Erreka zikiñak izketan asi zanean onela esan zuen:

zuek usteldu nauzute, zuek,
anima milla peztakoz forratu dezuten hoielik”.

* * *

“Herri eroria, herri ezereza,
herri ahuldua,
arraza eta kuraia
galdu zituen herri trixtea,
hor dituk
hor doazik
ik merezi ditukan ur illunak,
ik sortu ditukan lokatztegi lirdinga hoielik.
Begira itzak eta egin zak kontu
ire animaren espillu dirala...
Urumea
Urola
Oria,
negargarria baida zuen koloria”.

Ori da izan ere gaurko parabola:

“bi ta bi, bost; eta bi, zortzi”.

Orregaitik:

“egunak milla, gau
ekarri ditu geroztik,
eta gauak egunik ez du ekarri”.

Ala ere, askok eta askok, ez entzunarena eta ez ikusiarena egingo dute. Ta, aurrera ere:

“gure euskera gaxua, aingirak,
angulak,
poesiaren poesia,
arrai gaxuak dirutan itoak
nausiak
bein esan zualako
erreka hau nerea da
ministerioak eman didalako”.

Baifia, ez da guzia etsipenezkoa. Lete'gan gizon bat dago Gizonarekin sinisten duena, ta gaurko soziedadearen egoeraren aburu zorrotza egin ondoren, poemaren azken partea, itxaropenez ornitzen du.

Bere poeman gaurko soziedadea salatzen du, ta salakuntza ondorean, gizonarengan jartzen du esperantza, gizarte obeago batearuntza. Orregaitik, diot, azken poemak ez dirala orren etsipenezkoak, tristuragarritzko sentipen batek eragiñak badira ere. Barnean tinkaturik daraman tristurak ez bai dio beste ezer ematen bere ezpainetara.

Ta, "poesiaren poesia" bein eta berriz salatuko du azken orduan ere. **Poeta hoi**ek izenburutzat daramaten olerkariak dira, orretzaz, ifioiz euskeraz irakurri ditudanik onenak. Onenak, errazoiz beterik eta ondo tajutuak diralako. Izan ere, txori politeri, inguma txanbeliferi, lore apaiferi, ta norperaren barnean ez dagoan nekazari gizarajoari sentidurik gabe kantatzen eman ditugu gure indarrak; begien aurrez-aurre izan degun egi mingotzeri iges egifiaz. Errezagoa eta konpromisu gutxiagokoa baida.

"Ai, poeta!
Gogorra izango da
zuretzat
azken juizioko eguna".

Bere barneko sentimentuen garra obeto konprenitzeko bi poema labur oso-osorik kopiatuko ditut. Au da **Egunsentian**.

Laister etorriko naiz zuregana.
Bai. Zu, gizon zeran hori,
zu, egarri zauden hori.
Ekarri dizut zuk eskatu zenidan
lokarri lastangarria,
maitasuna.
Kementsu.
Egitsu.
Artu zazu zugan betetasuna.
Aita batek bezela ez dizut ematen,
adiskide bezela baizik.
Zure bizitzan bakardadea
sentitzen dezun adiskide hori,
utsunea ustu,
bakardadea bete,
mugak zapaldu,
begiak argiz lilluratu,
bihotzaren samiñak aldendu
nahi dizkitzut.

Orduntxe, gogo zabalak estutzen
asiko dira,
zureak eta nereak.
Zure presentzia eta nerea bat egingo dira,
eragozpen guztiak bentzituaz.
Gure poz eta mifiaren sentiduan
sakonduko degu,
gertakizunen oifiarri eta ondorioak ikusiaz.
Gure adiskidetasunetik indartsuagoak
aterako gera,
gizon guztien aterpe zoriontsu izateko.
Orduan...
Gizonen nahiak gugan kabituko dira,
gizonen negarrak gugan txukatuko
lurbira osoa garbituaz.
Gizonen aberastasunak ugaritzen asiko dira,
danon serbitzurako jarriaz.
Bai. Laister etorriko naiz zuregana.

Au da bere **Gizonaren sifalea.**

Palestina'ko bide legorretan
oin zaurituak
gizonaren sifalea utzi dute.
Lehenago harriak gogorrek ziren,
egarriz itoak;
lehenago zelaiak legorrek ziren,
gari gosetuak,
baifian Kristo'ren oifiak
laztandu zituen ezker
desertuko zuztarrak ere
loretan piztu ziren.
Nik oin haiekin egiten det amets,
amets asaldata,
eta gizonaren nekeak
zapaldu zituen bide hoietan
egon nai nuke beti,
amets zauritua.
Munduko bide legorretan
beste oin batzuek
uzten dute gizonaren sifalea.

Oin nekatuak, geldiak,
loiez zikinduak,
milla pekatuz zikindurikako
gizonen oifi etsituak.
Gosea, otza,
gerra,
tristura,
bakardadea
eta illuna
ezagutu dituzten
gizonen oifi odolduak.
Eta Galilea'ko gizonaren
sifialetan
ibiltari berrien sifialeak
ikustean,
negarrez konprenditu det
nola gizonen ofiazean
Kristo dijoan.
Mundu guziko bide legorretan,
bide estuetan,
bide etsietan,
gizonaren ofiazearen barruan
dijoa Kristo,
Kristo dijoa.

Orrelako poesiak ez du adierazpenik bear. Ta, Lete'k, gizonkiro
azalduko du, gizon bakoitzak gutxienik bear duena:

“Ogia,
aizea,
itsasoa
eta maitasuna
egunero behar ditut bizitzeko.
Ukatzen zaizkigun gauz hoiek.
Egunero behar ditut bizitzeko”.

Au da gaurko gizonaren karraxia, ta ez Rilke ta Juan Ramón'en
poesiaren poesia. Au da lagun urkoa maitatzea. Au oiartzungoaren
oiartzuna.

* * *

Ibon Sarasola Errazkin, Donostian jaioa da 1946'an. Batxillera-

toa estudiatu zuan eta orain injiniero ikasten ari da. Au ere "Zeruko Argia"-ko idazletzat ezagutzen degu.

Konturatu ez baginian ere, bere barnean poeta on bat daramanetakoa degu au ere. Gure artean ifloren tajurarik izatekoan, Mikel Lasarena du. Ta orrek ere asko esan nai du bere alde.

Gazte onek, olerkaritzan sartzeko, orrela eten du bere ixiltasuna:

"Mingaina
mintzatzen da
eta
Egiak
azken-juizioan erantzungo
du".

Orrekin ongi-etorria irabazia du. Beste era bateko oiartzuna dakar Sarasolak. Aideak billatu bear bagenituzke, Lete'k Aresti'ren aldera jotzen duala esango nuke, eta Sarasola'k Lasarengana.

Lete'k poema guzian zaintzen du gaiaren aldeko batasun bat. Sarasolak berriz ez du bereetan orrelako batasunik, baiña ez da alegindu ere egin orretara. Bere era azkenaldiko bolara aldera dioja, experimental erako poesiara. Ta, bakoitza bere maillan, biak dira oso onak.

Asieran C.A. Debussy'ren "Bainan ni ez naiz gaurko musikoa;/ agian biarkoa, edo etzikoa...", dakar, eta idea ori arturik:

"gaur eguneko herriak
ene hitzak on-hartzen ez
baditu
biarkoari mintzatuko naiz
edo
etzikoari".

Baiña, Ibon; ik ori esatera, nik zer esan bear diat? I, inguru onean finkatzen aiz, baiña ez ni. Pena diat zuen adifiekoe ez izatean. Ez gazteago izateagaitik, baizik nere adifiean kidekoak izatiagaitik. Ni beti bakarti arkitu nauk. Nere pentsaerak eta sentierak ixildu nizkian ifiorik konprenituko ez ninduan beldurrez. Ta, orain zuek zatozte nik esan nai nituanak esaten, ta gaifera nik esan al nizkian baiño askozaz obetoago. Azurmendi, Lasa, Lete ta i bezelakoeri irakurri ondoren, etxakiat zertarako idazten dedan ere. Orain ikusten diat euskal literaturan aspalditik gogoko nuan joera, nere luma

aulak arkitu ezin zuana, alde batetik ezifiez eta bestetik nere burua bakardadean galdurik ikusten nuelako. Maiz pentsatzen diat, ni, gure errian beranduago edo Europako erresumaren batean lenago sortu bear nintzala.

Guzi auek gaitik, ez naiz arritzen oraingo olerkari gazteak bazterrak sutsu aztertzen jardutzea:

“Gabriel Arestiri
esan behar diot
maillu guztiak
poesia direla
bainan ez
poesia guztiak
maillu
Maillu guztiak eta poesia guztiak”,

Azaltzen dizkigun zenbait kultismo ataletatik ikusi genezakeanez, nabari du iturri onetatik edaten ikasia dala, ta bere gogoko dituenen aria ematen digu:

“Claude Debussyren

	la bemol nagusia
James Joyceren	denpora trasbersala
Tristan Tzararen	l'authentique bruit
Igor Strawinskyren	erritmo-apur hamorratua
Marcel Prousten	the-katillua
Franz Kafkaren	makila ikaratia
Bela Bartoken	zortziko arkaikoa
eta Leon	Felipe, aizea

pensa-ezifia pentsatzeko
esan-ezifia esateko
idatzi-ezifia”.

Jenerazio bakoitzeko gazteri berria bere giroko munduan bizi dala ulertzen ez dutenak, ifioiz ere ezin konprenitu girotzen duan guna. Ta, jakin bezate konprenitzen, ez dutenak, ez dutela kontra jartzeko eskubiderik. Ez konprenitze ori ez baida gazteen errua.

Sarasolak, nik dakidanez, lenengo aldiz dakar euskerara poesia konkretua. Era berri esperimental. Ta, gure artean landua balitz Lete'ren erako positibismoan errotutako olerki sozial ori, Sarasola'ren poesia esperimental ori ere obeki konprenituko zan. Poesia artea danez, gizonak artean sorketa du bere egintza nagusia, ta alde ortatik, Mikel Lasaren besotik datorkigu Ibon Sarasola.

Sarasolak ondo daki poesia konkretuaren berri. Bere guzia ez dago molde oietan, baifia bai parte aundi bat. Batez ere **6 Poema haundi 6**, dalakoa. Bere bertsoeri, esaten dienean "goitik behera herortzen dan ene hitz merkea", sentidu plastika bat eman nai dio. Orregaitik edo esaten du:

"Ene barnean
daramaten astoak ez du
flauta kasualidadez jo".

Bide batez Iriarteren alegi zaarrari adarra joaz.

Poesia konkretu orren molde askoren artean era oiek azaltzen ditu:

"Parkean,
azkenengo horria
herortzen
dan
bi
tar
tean..."

"Negar egin behar
izanen dut
zeruruntz hondatzen
diran
horrenbeste globo
txuri—
ori—
urdin—
gaitik".

Jakifiekoa da iritzi guziak ez dirala ados etorriko. Poesia konkretu ori zergaitik egiten duan?

"Inork ez daki zer dan poesia.
Nik ez dakit zer,
bainan
alor agortuak
ez du fruturik emango
nik aingura eta denpora emango ditut
nork emango du gehiago?"

Eztenkada onekin lasai geldituko da gure olerkaria.

Zintzo agertzen baidu:

"Ni ez naiz eskolastikoa.
Aquino'ko Tomas'en ospea
txalo-txapelketa baten
ittota hil zen".

Bere molde ugarian errefrau erara ere jardutzen da. Ezifiezko gauzak, baiñan ez alperrik, ederki azaltzen daki:

"Taferna bat nere bidean
arkitu gabe
Donosti'ko Parte Zaharra
igaro dut".

"Musean eginaz
—hogeitamaika, duplak—
Euskal-Herri guztiari
eskutik
irabazi diot".

"Gazte naiz:
illargia harrika ausi dut".

"EZ DAKIT HIL
dan, bainan dana dala
telefonoz deituko
digu".

Umore eztenkaria maiz erabiltzen du. Obeto esan, badu ortan ere maixutasun bat, beste zati onetan ere agertzen duan bezela:

"Sorte txarra dugu euskaldunok: Munduko hizkuntzarik zaharrenez hitzegitea tokatu zaigu. Euskaldunok gauza inportanteak azkene-rako uzten omen ditugu: Horregaitik ez bide dugu oraindik gure literaturaz serioски jardun.

Bainan nik
anima
bandera
arbola
pekatu...
idazteko erabakia
hartu dut
zeren
ez
du
euskerak
lehengo klaseko hilletarik nahi".

Ta, berak esanarren: "bakarrik jaio nintzen geroztik / beinere ez bai dut inor maite izan". Nik uste, maitatua dala maitatzen dakielako. Orregaitik, une batean, uts-utsik dio:

"Zure bihotzaren
sakontasunan
galdu egin
nintzen".

* * *

Azurmendi, Lasa, Lete, Sarasola: zuek bezelako gazteak diran artean pizturik izanen da euskaldungoaren garra; zuek jaso bai dezute euskal olerkaritzan bearrezko zuan maillara.



nere lehenen kantari-agindua
egiatia izatea da
ta egia ho lematek eskubidea
eskatzen dut:
eskobidea ta askatasuna.

Nuria Feliu 1966-ko kantaria

joseba intxausti

"Tot va començar un 21 de setembre, a una casa del Torrent de les Flors, a Gràcia. Havia plogut i la terra estava fresca". Eta euri gozoak nexka bat eman zion Catalunya-ri. Nor zen, ordea, bera? Núria, Silvia, Maria Lluïsa Feliu i Mestres. Hori da gaurko elkarrizketarako aukeratu

duguna. Núria Feliu-k irabazi ditu aurten hainbat eta hainbat sari goreneko, lehenen maillakoak: Premio dela Crítica a la Mejor intérprete femenina española. Bederatzi hillabetean, bost sari: "Gran Premio Gavina" katalan disko onenarentzat, Barcelona-ko "importanteen" artean

aukeratu dute 1966-an, Arruga medikuaren eta abarren artean. Emakume hauxe da gure artera dakarguna.

Núria emakume urduri ta seriosa da. "Ene iduriz, emakume ongi arrunta naiz, haundi-nahi neurtuak ditut", dio berak. "En la vida aplaudeixo l'autenticitat i la senzillesa, la generositat i la tolerància". Ez du maite, ordea, arguillua, indarra, itxurakeria ta tranpa. Gogokoago ditu bide zuzenak, zeharka-meharka iño-ragabe doazenak baiño.

Núria Feliu 1964-aren martxoan hasi zitzaigun kantatzen, eta harrezkero egin du bere bidea, erpiñera iritxi arte.

—Zure bizitzaren berri labur bat eskeiñiko ote zenieke gure irakurleeri?

—Garai batean pianoari ekin nion neure jaioturian, Barcelona-n, baiña ez nuen betarik aski eta utzi egin nuen. Orfeo Canigó-rekin ere lan apur bat egin nuen. Italianoa ikasi ta "Zazpigarren zerua"-rekin teatrora. Hamazazpi urte nituen orduan. Teatre Experimental Català-rekin hasi ta ehun bat aldiz agertu nintzan taldearekin. Kantatzen ere hasi nintzan, zenbait lagun nahiz hillargia entzuletzat nituela. Gero, probak, zintak eta, azkenik, dizka bat, Irratira ta jendearen aurrera geroxeago. Orain zorioneko naiz nere kantuekin.

—Eta lagunartetik plazara nola joan zifian?

—Millà-k ekarri ninduen Edigsa-ra, probak egin nintzan. Bultza da hori gabe ez nintzan agian sekula bide hauetatik hasiko. Beti gustatu izan zait kantua, ttikitatik izan dut halako joera bat abesteko, baiña ez da hori aski.

Beti katalaneraz abestu dut, nere hizkuntza hori baitut, nik barne-barnetik sentitzen dudana, nere izpirituarekin ados etorri den mintzaera bakarra. Honegatik, ez zait errez gertatuko beste hizkuntza batean nere barnea asetzea. Erderarako ere deitu zait noski, Hispavox-ek esate baterako, baiña kantari batek bere buruari leialtasuna zor dio, diruaren atzetik doanean faltsokeria bat egiten du, bere izpirituarekin lehenik, eta entzuleekin gero.

—Leku askotan kantatu ahal duzu, zure istoria labur eta ederrean?

—Ez dakit zer esan. 40-55 festibaletan abestuko nuen.

—Irrati ta telebistan erreztasunik eman ahal dizute?

—Irratian hamaika aldiz abestu dut, "Radio Barcelona"-k duen "Radioscop" programan Salvador Escamilla-rekin. Hemen ateak oso zabalik izan ditut beti, nahi nuena nere hizkuntzan emateko. Telebis-

tak ez dit, ordea, ezertarako errez-tasunik eman orain artean. Bitan zerbait abestu dut, baiña beti Catalunya-rako eman diran saioaldi berezietan. Egia esan, neu ere nahiko harrituta nago jokabide honekin. Atzerritar abeslariak bi-deak irikita aurkitzen d'ituzte nun-bait, baiña nik —zergatik ez da-kiala—, aurtengo Espafi-ko lehe-nen saria eraman badut ere, ez dut ate irikirik idoro.

—Dirudienez, zure ametsa tele-bistara joatea litzake...

—Bai, ez dut ukatuko. Ta bi-dezko dela esango nuke, Espafi-ko lehenen sari naizenez, auke-ra bat edo beste ematea. Honeta-rako eskabideren bat egin dut, baiña ez dut erantzun argirik izan. Zai nago.

—Zuk katalaneraz abestu duzu, ta, beraz, zure lurralde eder ho-netako semeentzat bereziki: herriak nola erantzuten dizu?

—Ez da zalantzarik. Herriak bere mintzaeran ematen dena bi-ziki sentitzen du, ta ematen zaion hori ona eta ongi emana denean, areago oraindik. Gaiñera, bere kantariengan halako etxekotasun zoragarri bat aurkitzen dugu. Gure beraganako leialtasun hau esker onez txalotzen da; hainbat aldiz zapuztua izan den jendeak zora-menik ederrena aurkitzen du kata-lan kantariengan. Nik ere herria-ren txalo bero hori jaso dut.

—Zuen lanak ba ditu noski bere gora-beherak, poz eta atsekabeak ere. Zeintzuk izan dituzu zure poz-atsekabe haundienak?

—Orain artean izan dudan pozik haundiena, betegarriena, aurtten Espafi-ko lehenen neska kanta-ritzat aukeratua izatea. Aukera-keta hau Madrill-en egiten dute, ta Barcelona-koa izanik eta kata-lanez kantatuaz ez nuen noski bide erreza sari honetarakoa. Hala, Catalunya-ko “canço” berriarentzat izan da sari hori.

Baiña atsekabeak ere ba dire gure lan honetan; batzuek aipatu ditut. Orain gutxi, periodista ba-tek interbiu bat asmatu zidan: ni Salomé-rekin burrukan ta asarre nenbillela esanaz. Dena gezurra zan, ta goiz berean Salomé-ri deitu behar izan nion. Bera nere laguna da, ta xexio gaiztorako izan zite-ken periodista horrek nik ezer esan gabe esanarazten zidana. Honelako “zerak” izaten ditugu gure lanean.

—Catalunya-ko “kantu berria” aipatu didazu. Dagoeneko kantari-talde ugaria zerate, zeintzuk dire, zure eritziz, guziotan onenak?

—Iñorekin asarratzeko asmorik gabe, Serrat hartuko nuke nik onenentzat, kantari aldetik; Rai-mon mandatu-emaille bezela.

—Barka idazu. Zure erantzun hori argitu nahirik, egin dezagun:

gaur agindu arraro bat eman beharrean aurkitzen gerala: legearen aginduz, banan-banan katalan kantari guziak desagertu behar dute... Zein ordenatan baztertuko zenituzke ta zenuke zere burua?

—Azkenerrako Raimon gordeko nuke, mandatari paregabea dugulako, indar haundikoa, gazteriarantzat erakarmen bortitzekoa. Bera da guzion artean lehenena. Azken-bigarren, emakumeren bat ere gaizki ez letorkela-ta, ba-liteke neu nahiko egoki etortzea. Ondoren: Serrat, Pi de la Serra...

—Zu ez zera kritikalaria, baiña Catalunya-ko kantariak ezagutzen dituzu ta ba duzu, noski, zeure eritzi bat emateko. Guk horixe ezagutu nahi genuke orain: Raimon, Motta, Girau, Serrat, Pi de la Serra, Cinta, Olivares, Escamilla, ta abar. Zer esango zeniguke horietzaz?

—Raimon-ek alde on asko ditu. Ideia baten mandataria da. Musika, berarentzat aitzaki bat duzu: "ez naiz kantari", esan du berak. Baiña indar ikaragarria du: hotzikara bat sartzen digu hezurretaraino bere abotsak. Etxe-erretzaillea da. Beraren erakarmena indar hortatik jaio da: indarra ta mezua, mandatua. Hori dena ederki baiño ederkiago ulertzen dio gazteriak. Raimon-en alderik eskasena, bere kitarra-pobretasuna izango da.

Guillermina Motta oso kantari ona da. Carme Girau-k musikata-sun betea du. Serrat-ek ekilibrio berezia du bere nortasunean: abotsa, matiza... dena halako sinpletasun batean ematen ditu. Pi de la Serra-k, berriz, letra ederrak ditu eta oso gogorra da. Olivares-ek abotsa gozoa du eta ba daki, noski, abesten, beti beharbada egiatia ez bada ere. Cinta-k hama-lau urteko nexkaren freskotasun hori du. Escamilla ez da berdina, ta agian loratxo gehiegi ditu. Taldeetan, ba dugu bat oso ona: "Els 4 Z", nere iritiz, Españi-ko onena; ba dute seriotasunik.

—Zein da "kantu berriaren" alderdirik okerre-na?

—Batzuek beren taldeari eman dioten itxitura. Horiekin nekez izan dezakegu hartu-emanik; kantu-molde bat sortu dute ta gaitierakoentzat, beste bideak daramazkigunontzat, ez da sar-biderik. Nik abesti arifia dut; serioa bai, baiña larritasun gabekoa. Haiek, berriz, bestelakorik nahi dute ta ez naute onartzen...

—Ta "nova canzo" horren alderik balotsuena?

—"Kantu berriak" gauza eder bat argitan jarri du: katalanez ere abestu ditekeala, alegia. Gaitierako hizkuntzak dituzter: ahalmenak ba ditu gureak ere; areago oraindik: gure herriarentzat hau

da benetako mintzaera ta kantae-
ra jator bakarra.

—**Baiña ez ote du kantu berriak metafisika gehiegi. Halako ideia-
illunbe bat ba du agian: gizonaren
intzira ta estura gehiegi ez ote du?**

—Bai, nahiko arrazoiak duzu.
Beharbada burrukarako dei gehie-
gi du; maizegi kopetillun dabil,
azken aldi honetan apur bat arin-
du bada ere.

—**Zuk, zeuretzat, zer duzu mai-
teago, doñua ala erritmua?**

—Entzuteko, berdintsu zaizkit;
abesteko, agian, geldiroago doan
zerbait.

—**Zuk Catalunya-ko gazteria eza-
gutu duzu noski: zer esan zene-
zake?**

—Ez dut gehiegi ezagutu. Nere
entzuleak denetakoak izan dire:
ogeitahamarretik gorakoak asko-
tan. Ama-alabak elkarrekin eto-
rri zaizkit entzutera ta, gehienetan
akordio bereko izan dire. Hala ere,
edadekoak gizonaren bizitza-serio-
tasuna maiteago du. Baiña zer-
bait gustatu ez zaienean, gogor

erantzuten dute, intolerantzia ezin-
gordea dute.

—**Zer esango zenioke katalan
gazteriari?**

—Kanpokoak on-artu ditzala;
baiña etxeko izkuntza aurrera beti.
“Kantu berriaren” ondoriorik ba-
lozkoena hori izan da hain zuzen:
Madrill-eko egunkarietan ere esan
da, “katalana modan dago orain”.
“Ye-ye”-ak ez dute katalanera baz-
tertzen orain.

—**Ta “kantu berri” horretatik
zein mandatu eskeiñiko zenioke
gazteri horri?**

—Lehenik, Raimon-en “Diguem
no”: “Bildurra ikusi dugu: bildu-
rra, guzientzat lege. Odola ikusi
dugu: odola dariola; odola mun-
duaren lege. Ez, ezetz diot nik.
Esan EZETZ. Gu ez gera mundu
honetako. Gosea ikusi dugu, ha-
maikaren ogi. Nolatan ixillarizi
dituzten hainbat gizon egi-bete”.

—**Ederki. Baiña orain emaguzu
euskaldunoi zure kantuetatik atse-
giñen zaizuna.**

—“Anirem tots cap al cel” du
izenburua:

Aniren tots cap al cel!
Toquin les trompetes!
Aniren tots cap al cel!
amb les mans ben netes!

Joango gaituk denok zezura!
Jo bitzate turutak!
Joango, bai, denok zerura
eskuek garbi ditugula!

No ens caldrà portar bastó
ni sandàlies ni sarró.
Tu estàs tan cansat,
tot d'un plegat
trobaràs que has volat.

Anirem tots cap al cel!
Toqui el bateria.
Anirem tots cap al cel
amb crits d'alegria!

Sonarà per tot el món
el so dolç d'un vibrafon,
quan toquem els estels,
quan toquem els estels!
Anirem tots cap al cel!

(Andreu).

—Hori itxaropen bat da. Ta zuk
zein itxaropen dituzu zure bizi-
tzan?

—Lehenena, maitasuna. Amo-
dioa behar dugu bizitzeko; bera
gabe gizona izaki antzua da ta
gizartea zorotegi. Nik, zorionez,
izan dut nere bizitzarako nahiko
maitasun nere inguruan. Kontent
naiz bizitzan eman zaidanarekin.

Kantari bezela, hemengoeri ere
ateak iriki dezaizkigutela, kanpo-
koeri egiten zaien bezelaxe: abes-
tean, nik barnean dudan onena ta
maitagarriena ematen diot entzu-
leari, nere lehenen kantari-agin-
dua egiatia izatea da ta egia hori
emateko eskubidea eskatzen dut:
eskubidea ta askatasuna.

Ez diagu beharko esku-makillarik,
ez oifetako, ez txapelik.
Hain nekaturik hagoela,
bapatean ikusiko duk
ega betean hoala.

Joango gaituk denok zezura!
Jo beza bateriak.
Goazemak denok zerura,
irrintziekin gure poza!

Mundu osoan, ozenki duzu
dardara baten doifu,
guk izarrak ukitzean,
izarrak gure esku!
Joanen gaituk, bai, denok zerura!

Emakume naizen aldetik, etxeko-
andretza nahi dut etorkizunerako.
Sukalde berri bat izaten dudanean,
abestia baztertu egingo dut; baiña
etorkizun hori nahiko urrun ikus-
ten da. Oraingo, neure burua-
gan nahiko konfiantza izaten du-
dan bezin laister, Frantzia ta
URSS-tik iritxi zaizkidan deiei
erantzungo diet.

—Ta zure Herriarentzat zer es-
katuko zenuke?

—Gu ez gera beste mundukoak
eta hemen egin behar dugu gure
Herria, hemen eramán bere bi-
zitza: honetarako askatasuna,
erretasuna, laguntza, eskatzen
dut. Bizitza geure gain eramate-

Bi
emakume.
Bi
kantari.
Ameriketako
famatuena:
Fitz Gerald.
Españiko
onena:
Núria Feliu.



ko eskubidea. Kantuan bezela, gizaritean ere gure egia esateko daretzoa. Ba dugu seriotasunik aski hori tajuz ta gizonki egiteko.

—**Ta zer esango zenioke Euskal-Herriari?**

—Gorde zazute etxeke sua: ez zazute, arren, zuen nortasunik galdu. Hori zuena ta gizadiarena dugu. Batasuna gorde zazute, ta bizi-azarik ez zapuztu: harako abesti harek dioen bezela:

Viure.

Amb la gent vull viure,
que la gent més feliç vol a tothom

Són com nens,
que els cal companyia.

Com si fossin ocells volant,
ells tenen tot el món,
tot el món,

Bizi.

Jendearekin nahi dut bizi.
Jende zorionekoak nornahi maite
[baitu.

Haurrak lez dire:
laguntza-billa ume.

Enara egalari antzo,
berena dute mundu oso,
mundu oso,

com els nens
el tenen.

Viure
com viu la gent que és lliure
i que sap ser feliç amb tot el món.

Si és sincera,
si l'ànima és sincera,
veurà que viure no és trist
si en tots vol veure un amic.

De tots
ens cal rebre amor
per més feliç poder viure.

Jo amb tothom vull viure,
com la gent més feliç de
tot el món.

hurrek bezelaxe
oro dute bere.

Bizi:
libre den jendearen antzera,
mundu ororekin zoriontsu dena-
[ren erara.

Egizale bada,
egizale arima,
ez dela bizitza itun,
normahigan nahi badu lagun.

Orogandik
behar dugu maitasun
bizitza zorion dezagun.

Nik guzlokin nahi dut bizi,
munduan den zorionekoaren
pare.

(People-Gent: **Styne-Andreu**)

zelula

bizitzak lenen laztandu duana?

I. m. zubizarreta

ZELULA TA BERE ZATIAK

Zelula zer da? Gizonaren gorputza itxasoa baldin balitz, zelula ur-tanta bat izango litzake. Ur-tanta ori anteojo aundiarekin begiratzen badegu, bere barruan beste zati batzuek ikusiko ditugu: zitoplasma, nukleoa, Golgi jakintsuak billatu zuan zatia, ta beste asko.

Zelularen gaiñean gauza asko esan diteke, baiña nere lanak galdera oni erantzungo dio: Zelula al da bizitzaren laztan beroa le-

nengo artu duana? Bizitzako liburuan zelula aldago lenen?

Ala ere iru itz esango ditut zelula zer dan ta nolakoa dan jakiteko.

Gizonaren gorputzari begira dezaigun. Zati asko dauzka: burua, paparra, anakak ta gaiñerako guztiak.

Zati oien asiera zelulan dago. Emakume ta gizakume gametoak batu ziranean zelula bat sortu zan: izaki berri baten bizia sortu zan. Gero zelula orrek puskatu ta pixkanaka-pixkanaka, mitosis ta mi-

tosis, beste asko eman ditu. Orre-
la jantzi dituzte gorputzaren za-
tiak, ta or dago umea.

Zer du bere barruan zelulak?

Amazazpigarren gizaldian, Ro-
berto Hoore izan zan izen au le-
nengo aldiz liburuetan ipifii zuana:
zelula. Gero Malphigi'k, Gorti'k,
Purkiuj'ek, Dujardin'ek, Mohl'ek,
Bromm'ek eta beste askoek billatu
ta adierazi dituzte.

Zelulak bi zati ditu: azala ta
protoplasma.

AZALA

Zelulak azal plasmatico bat
dauka. Gure gorputzeko zelulak
ez daukate beste membrana edo
azalik plasmaticoa baizik; baiña,
zugaitzetan, "izardiko" edo "biga-
rrengo" izendatutako beste bat
dago, plasmatica orrek sortzen
duana.

PROTOPLASMA

Zati onetan garrantzitsuenak
auk dira: Nukleoa, kondrioma,
Golgi'ren zatia, utsekoa ta zentro-
soma.

Nukleoa

Lenengo zatia. Gutxi gora bera
zelularen erdian arkitzen da...
Zelula bakoitzak ia beti nukleo
bat dauka. Baiña geiago dauzka-
tenak ere arkitzen dira.

Beste batzuetan nukleo gabeko

zelulak arkitzen ditugu. Odolean
arkitzen diran globulo gorri oiek
orrelakoak dira... Baiñan auk
ere nukleoa edukitzen dute, galdu
ere bai ordea, eta galdu ondoren
zelula oiek beste zelularik ezin
dute sortu.

Nukleoa kromatina arkitzen
degu. Izen au Fleming jatorrak
ipifii omen zion.

Biokimikako begiez begiratzen
badiogu, nukleoproteidoekin jan-
tzita ikusiko degu. Nukleoprotei-
do orrek batez ere (Mirsky ta Po-
lister'ek esaten digunez) desoxi-
ribonukleoko azidoa, istona ta
beste proteina batzuekin beteta
daude.

Nukleoa nukleotoxak ere arki-
tzen ditugu. Zelularen aldakuntza
batzuetan oso bearrezkoak dira.

Baiña zelularen zati garrantzi-
tsuenak agertu ondoren, goazen
gure bearrera.

BIZITZAREN LENENGO MAILLA, ZELULA?

1883'garren urtean, *Bechamps ja-
kintsuak mikrosoma izena jarri zien,
protoplasma barruan dauden zati
txiki batzuei. Berak olaxe dio: "Bi-
zitzaren lenengo mallak dira. Oiek
gabe bizitza iñun ere ezin dezakegu
arkitu"* (1). Baiñan *Bechamps ta
bere teori oiek, jakintsuen zeru urdi-
ñean galduak zeuden. Orain gure*

(1) Bechamps, "Les Microsomes dans
leur rapports avec l'Hétérogénéité, l'his-
tologie, la physiologie et la pathologie,
Paris 1883.

egunetan Galippe anaiak piztu dute zeru ortan mikrosomaren izar txikia. Ala ere ez dituzte jarraitzalle asko. Biologiko baratzan gutxi batio du teori onek. Cajal'ek esaten zuana entzun dezagun:

"Bechamps ta beste oien teoria jarraitzeko, Pasteur jakintsuaren experimentu arrigarriak aztu bear genituzke. Berezko jatorriaren okerra betiko illuntasunaren zuloan bota zuten experimentu aiek, ixiltasunaren illunpean utzi bear" (2).

Sinbiotoak

Portier'ek olaxe esaten du: "Oiek gabe zelula ezin bizi da. Bera bai ordea, zelulatik urruti bizi baldin bada ere. Sinbiotoa zati gabeko izaki bakarra da. Beste guztiak bere laguntzaren bidez egiten dute bizilana (3).

A. Lumiere'k ("Le mythe des Symbiotes"), Guillermond, Regaud, Saguesse ta beste askoren esanak ezañetan arturik, onela dio:

"Ez da egunkorra mitokondriak (granulaciones protoplasmáticas) eta bakteri sinbiotikoak laztantzea. Mitokondria ta bakterien artean ez dago urruntasuna baizik. Zelulak ez du

beregan sinbiotik, eta eduki ezker ere, zer? Sinbiotoa bakteria bat baizik ez litzake izango, eta orrela ere ezin argitu materialik bizitzara dijoan bidea".

Inobionak

Bai al dago, mikrosoma ta sinbiotoa aldameratu ezker, zelula baino len bizitzaren mailla igo duanik?

Zelulak bizitzaz jantzitako zatiak ba dauzka bere barruan. Zati auei erderaz "diferenciaciones protoplásmicas" deitzen zaie. Nukleoan ere ba daude alako zatiak; aien izaera antzekoak.

Zati auek Heindenhein aundiaren istomerak dira (zentrosoma, Golgi'ren aparatua, kromosomak). Zati auei biologo jakintsuak izen asko jarri dizkiete: gemulak Darwin'ek, plastizilloak Haeche'ek, mizelak Nagel'ek, pangenak Hugo de Vries'ek, biogenoak Werwon'ek, bioforoak Weissmann'ek, mikrosomak Fleming'ek, plastomak Meves'ek, plasomak Wiesner'ek, dioblastoak Hertwig'ek, bioblasto edo granutxoak, Altmann'ek, protomerak Heindenhein'ek, inobionak Cajal'ek.

Zati auek bai al dute beregan beste txikiagorik, eta guretzako ikuseziñak? "A priori" itzegiten badegu, bai erantzutea, ez dala okerra deritzait. Zergatik? Begira: nola izan-

(2) R. y Cajal, Discurso inaugural, Congreso de Madrid, 1913. Asoc. Española para el progreso de las ciencias.

(3) Porter, Les Symbiotes.

go da eginkorra zelula guztia bizi-
tzea bere zati bat bizi ez bada?

Eta nola biziko dira bere zentro-
soma, kromosoma, erretikulo ta ga-
ñerako zati lenenak il-da, bizitzatik
urruti baldin badaude?

Zelulan zatiak ba daudela esaten
degu, ñizitza beren bizkar txikian
daramakitenak. Baiña zelulatik alde
egin ezker ezin al dira biziko?

Ramon y Cajal'ek ezetz erantzun-
ten digu.

Auxe agertzeko ara zer egin zuan.

Artu ditzagun zelula zaintsuaren
bi zati; bata zelula gorputzetik (so-
ma), nukleoak dauden tokitik alde
eginda. Zati oni kabo periferiko dei-
tzen zaio. Beste zatia zelula-gorpu-
tzakin bat eginda jarriko degu. Oni
kabo zentrokoa deitzen dio Cajal'ek.

Kabo periferikoa bizi al liteke?
Cajal'ek onela dio (4):

"Ikusia dago kabo periferi-
koa laister puskatzen dala, da-

na itzaldtu arte; zilindro eja
ere puskatu egiten da".

Baiña nukleoaz banatuta dauden
beste zatiak, kabo zentroko deitzen
zaienak ez dira iltzen. Ez. Auek
puskaka-puskaka len bezelakoak egi-
ten dira. Au nola egiten dan ez dago
esan bearrik.

Gure egunetan dauden eztabaidak
alde batera utzi, eta emen idatzi
degunari begiratuaz, bukatzeko esan-
go degu, zelulak bere barruan dauz-
kan zatiak bizitzez apainduta ikus-
ten baldin baditugu, beren barruan
daudelako ikusten ditugula. Baiña
zati oiek zelulatik urruti ez dira
biziko.

Munduko bizitzaren liburua zabal-
du ta lenengo orrian auxe irakurtzen
degu: zelula.

Norbaitek esan lezake, eta BIRUS
filtrableak? Galdera ori beste lan-
keta baten asiera izan liteke. Nik
urte ontan irten dan liburu batean
irakurri detana esango dizutet:

"Birus auek bizitza berekin
dute, baiña zelulan ez badaude,
ezin dira bizi".

Orduan, len bezela ez al gaude?

(4) Ramón y Cajal, "Les metamor-
phoses precoces des neuro fibrilles dans
la régénération et la dégénération des
nerfs. Trab. del Lab. Recher. Biol. t.v.
1907.

«euskaldunak» orixe-ren poema dala-ta
 san martin juan jaunari erantzupena

antonio maria labayen

“JAKIN” aldizkariak 21 garren banakoan, zuk neri zuzendutako “karta idiki” bat argitaratu du Orixere-*ren* EUSKALDUNAK poemari buruz. Bertan komentario luze ta mamitsuak egiten dituzu, nik “Orixere-Omenaldi” deritzan liburuan idatzitakoak bide harturik.

Giza-legeak agintzen duanez “karta idiki” horri erantzuna eman beharrean nago. Eta pozik gañera, adiskide miñekin jardutea —nahiz eztabaidan— atsegin bait da; eta are geiago San Martin euskaltzain arduratsuari adierazpen oso bat ematearren.

Honetarako, ahal bezenbat, liskar itxura duen zer nahi bazterrean utziko dut. Zuk humore onez, erromantiko-ameslarien bizkar par egin baduzu, nik era berez, humore txarragoz, noski, zientifi-

ko, berrizale ta ezur zahar biltzalle diranai illea hartu nahi izan nien. Beraz, bego gauza hortan! Orobat, zuk esandako ala nik gaizki ulertutako itzak dirala-ta. Baiñan inñundik ere aiza ditzagun beste norbaitek, gaiztoz, EUSKALDUNAK poema inguruan zabaldu nahi izan duan S... usai zikiña. Egilleari itzal aundiagoa zor zaio; eta irakurleai txukun giroa. Hau garbitu ondoren goazen aurrera.

Ez nator zurekin bat, diñozunean, auzia sartzeko ez dala ORIXE-OMENALDI liburua tokirik egokiena. Nere iduriko berriz, nun leku oberik aren kaltez esandako iritziak desegiteko? Liburu horren zuzendariak, zerizkion idazleai lanak eskatu zizkien. Norbera da bere iritziaren jabe. Eta Euskaltzaindiak emandako babes eta ardurapeak ez ginduen ezertara lotzen, ezen ez bada elkarganako errespetora. Eta hau liburu hortan guziok gordetzen dugula, ez dago esan beharrik.

Bestenaz, nun argitaraz gure lanak? Ez dugu aukera aundirik. Aspaldidanik dabilta, hor nunbait galduak nere bizpauru lan argitaratu ez dizkidatenak. Ain zuzen, bat JAKIN-era bidaldua. Eta beste orrenbeste ta geiago eskuarteant ditut nun azaldu ditzateken jakin gabetanik. Ez da arritzekoa, beraz, berandu ta atzeratuak agertuko badira, inñoz. Zeorri ere alatsu zabiltzala antzematen diot, zeren EUSKALDUNAK poema 1950 urtean argitaratu zan eta zure EGAN-eko kritika 1962 urtekoa da. Goiz ala berandu, ordea, benetako kritika egin beharra dago, honek du ajola aundiena. Eta JAKIN-en orrialdeak lekuri eskeiñiko al digute. Kritika oparoa, ordea, zabala ta ez ertsia; sakona ta ez arin, gaingiroki egiña. Itzul-inguruetan ibilli barik, bada, sar gaitzen gaiean.

Asiera emateko zure baiezpina: "EUSKALDUNAK aspergarría" da esatea, kritikaren ukapena da: "subjektivismo" utsa. Base-rriko amona ez jakin bat, ta kaletar jaun ikasi bat, bestalidetik, EUSKALDUNAK poema entzun ta irakurriaz ao zabalik ez tigan gelditu diranak ezagutzen ditut.

Zuk botatzen dezun aupada, alegia, EUSKALDUNAK poeman agertzen diran gizon-emakumezkoak "motelak eta totelak" ez diranik, desegitea kostako zaidala, ez dut uste. Baiñan bada ezpada ere, gai hortan zuk eta nik baiño geiago dakin irizle baten itzak aitatuko dizkitzut: IBAR maixuarenak, "Genio y Lengua" liburua-ren egillearenak (1). Eta erderaz dauden bezela aldatuko ditut labur zurrean. Ona emen IBAR-en iritziak EUSKALDUNAK poemari buruz:

“Obra monumental... trasunto animado del Genio Vasco”... Cuadro grandioso que realiza la acción del poema *sin fatiga* del espectador... En cuanto a la gente que actúa hay profusa diversidad de caracteres... Muchedumbre integrada por seres reales y vivos que se conducen con absoluta naturalidad... Es “*por su forma*” una obra maestra de sinceridad humana, talento literario y estética euskaldun... Nítidos y vigorosos son los relieves de sus imágenes... Los retratos de la solterona, Mikela Borda; del carnicero, “Potxolo”, del tamborilero “Petiri”, etc., etc., etc... El verdadero pueblo euskaldun reconoce la hechura de su genio y se goza en su contemplación”.

Eta ez dut jarrai nahi ez luzatzeagatik. Ez didazu ukatuko IBAR maixua ez danik. Eta ni honen arrazoien alde natzaizu betebetan. Zuk bestela uste baduzu eskubidean zaude. Baiñan nereko diot ariñegi mintzatu ziñala EUSKALDUNAK poema irakurri dutenak zuk aña gutxiesten dutela esanaz. Ezta urrik eman ere! Lengoaz gañera, emen doakizu Arantzazu-ko praile, poeta gallen eta izlari bikaña dan AZTIRI-ren iritzia: “EUSKALDUNAK deritzaion poeman Letari izeneko kantu zoragarria, *euskeraz eman dan epiku-kanturik garaiena eta ederrena, neretzat beintzat*” (2).

Eta gai hontan prantziskotar baten aipamena egin dugun ezkeru, nola utzi aitatu gabe beste praile olerkari bikain, il berri dugun Salvatore Mitxelena-ren aitormena? Bere liburu punterengo “UNAMUNO TA ABENDATS” dalakoan onela lasatzen du bere barrua:

“Asiera batean EUSKALDUNAK etzitzaidan ain betegarri, ain zeoro gogoko... Legortxo edo, tramarik eza arkitzen nion... edo zion nirezko dramazaleak. Baiñan, orain, sinistra D. Migel (Unamuno): orain ez dut uste emen añako sendotasunik xurgatu izan dudarik *beste iñungo erdal poemetan. Alako poesia jatorra, alako berezkoa, alako gizati, alako gurea, bai izkuntzaz eta bai baserri giroz!* Itzaurrean, egilleak berak dasaigu, ta dagoneko erabat men natzaio: “gure euskera bizkor onek, ondoko erderak baiño erri-erriari gauza izkutuagoak eta geiago adierazi baitezaizkio, nik uste” (3). Aurreraxeago (59 orrialdean), gure Salvatore biotz aundiak galdegiten zuan: “noiz, baña noizko noiz, elduko ote atzerria poema ori bear aña txalotzera?” Nik, neuk galdegingo nuke, aldiz: noiz gure erritar zenbaitek?... Erantzupen zuzena Juan Ramón Jiménez poeta gallenak ematen duana da: “Bein eta berriz astiro irakurriaz edertasuna agertu artio” (4).

Ondo aztertu ta ausnar iritzia eman aurretik. San Martin kritikaririk ez duala poema zeatz irakurri, esango nuke, Orixe-k lapur, gaizkille ta eragilleai ez diela tokirik eman diñonean. Zer da orduan, adiskide maite, Omotz-ko apezgaien historia, senar-emazte ta seme-alabak il zituanaren kanta?...

Orain arte esandako guzia geiago sendotzeko Lizardi-tar Xabier olerkari nagusiaren asmo ta iritziak azaltzea aski zait. Toki askotan esana daukat Orixe poema egitera bultza zuana Lizardi izan zana. Hau EUSKALDUNAK poemaren aurrelaria ta igarlar:

“Laister sortzen al duk olerkaria”...

honela mintzatu zan bere “Eusko bidaztiarena” bertsoaldian asmo ta gogo biziak:

“Ta Yaunaren gogo baledi
nik gogo dudan bezin gartsuki
euskotar azal eta mami
gure *Erriaren olerki garaia*
norbaitek lenbaitlen begi!”

Eta Lizardi-k ezagutu zituan EUSKALDUNAK poemaren kantak puska eder goitar eta aunditzat zeuzkan. BIOTZ-BEGIETAN bururatu zuan egilleak poesia gaiez zerbait ba zekiala banago. Eta aren iritzira makurtzen naiz Salvatore Mitxelesa-k men egin zion bezela.

Beste amaika poeta izen eta idazle garai aitaturko nizkitzuke adibidez. Naikoa izango da ordea, *Orixe-Omenaldi* liburuan lan-kide agertzen diranak gogoratzea: E. Erkiaga, Gaztelu, A. Ibiñagabeitia, M. Lekuona, Zaitegi... ta guzien gañetik A. Onaindia, olerkizaleak besterik ez ikuturik, ugarien ugariz! Holako poema bat erri batean “derriorrezkoa” danik ez dizut ukatuko. Ez dakit “rusoen” berri, baiña or duzu “Evangeline” Longfellow amerikarraren poema ederra eta europar erri geienak dizute berea...

Beste uste oker asko arkitzen ditut zure idazlanean eta ezin guziak gogoan hartu. Egia da, agian, Orixe mende hontako literaturatik urrun ibilli zala. Baiñan kritikaririk batek eman dezakean aolkurik txarrena da, honelakori, zure ustez, Walt Whitman-i jarraitu behar ziola esatea. Poeta bakoitzak bere bidetik joan behar du; bere “inspirazioari” jarrai behar dio iñoren atzetik ibiltzeke. Eta Orixe-k ala jokatu zuan:

“Zatozkida arnas goiko
Egizu nerekin lan
Erri baten arnasa
Mamitu dezadan”.

Nere euskaltzainkide eibartar, gazte ta urduria, jakinzale orokor dugu, kultura aundikoa ta nere aldean ondo jantzia dago poesia esparruan. Ez nezaioke jarrai, gallurrez-gallur aitatzen dituan poeten ondotik. Poesia, gaur egunean iñoiz baiño gauza sotillagoa da; barrenkoi, goitar, neurtu-eziña. Zahartzen asia naitenez, ez zaizkit beti atsegin molde ta aize berriak. Horrek ez du esan nahi edertasunik ez dutenik, neronek ez dizkiodala nabaritzen baizik. Leiatu egin behar barrua zulatzen. Artearentzako ez bait dago ez denbora ta ez moda jakiñik.

Bestalde, gaurkotasunean murgildurik daudenai gertatzen zaie, ez dutela atzokoaren argitasunik ikusten. Gaur itza euskeraz “gaua” da. Ots!, illunpe ta sarritan nahaspilla. Arritzekoa al da itsumena sortzea? Ez! Eta honekin batera aurre-iritziak sortzen dira. Batik bat, Epika baztartzea. Eta Epikak Lirika ta Mixtikaren lelo xuri, bertsogintza sozialak lelo beltz ta beste edozein olerki motak aña poesia izan dezake. Pakean utzi itzagun Hegel ta gañerako jaingo txikien dialektika guziak. Eztabaida luzatuko bai luteke, batere argitasun berririk eman gabe. Buka zagan, beraz, auzia, irakurleai gogaikarri izan ez gatzai. Itz gutxi berresateko, EUSKALDUNAK poema, nere irudiko, ta aitatu ditudan idazle geienen iritzira, gure poesi lanarik aundi ta osoena dugula. Eta amaitzeko albiste bat: EUSKALDUNAK poema bigarren aldiz “Añamendi Editorial-Etxea” argitaratzekoa dala. Euskeraz eta erderaz, merezi duan apaintasun eta edergarriz ornitua. Gaztelizulpena, benetan dotorea, Orixe berak egiña utzi ziguna.

Agertu dedinean erdaldunak aipatuko dute balioa. Nik ez batere duda-mударik, bigarren edizio horrek Orixe-ren ospea oso gora jasoko duala lengoaz gain. Zeren, Orixe bere akats eta guzti, orixekeriak barne, oraingo, Euskal Literaturak duan izen goitar eta garaiena dugulako.

Behar bada, jaio da, ta gure artean bizi dugu, bigarko egunean gorago igo araziko duana. Alabitz! Egun hori zorioneko litzake Euskal-Erriarentzat; eta pozgarri euskal elertia lantzen ari geran guzientzat, zu tartean zeralarik.

Orixe-ren aldeko joku ta gorasarrean zu nere iritzikoa ez izatea damu dut eta zure gogo irabaztearren leiatu natzaizu. Itsusi bait da gerok gure tellatura arririk botatzea.

Asmo horren kariaz zerbait gogortxo astindu bazaitut, barka otoit, ez bait da izan zuri min emateagatik baizik gure Orixe aundiaren oroimena goratzearren. Besterik gabe, torizu bostekoa!

-
- (1) Ikusi 194-230 orrialdeak.
 - (2) Goiz-Argi, 1966, loraila.
 - (3) UNAMUNO ta ABENDATS, 88 orrialdea.
 - (4) Ikusi "Orixe-Omenaldi" jiburuan, 1965, 21 garren orrialdean.

aldapeko jaunari nere azken-itza

axmutil,

Zuk diozun bezala, elgarrekiko ezaumena egiñik gelditu geran ezkerro, ez dut emen ezaupide berririk eman bearrik. Barkatu zere lanetarako beta ain ederra galerazia. Idazle trebe ta ugaria izateak balio izan dizu, nonbait ere, neri erantzuten nik nere lantxoan baño ari luzeagoa ateratzeko.

Barkazio iritxi dudalakoan, nere itza esan baño len, beste gauzatxo bat ere adierazi bear dizut. Jakin zazu ni ez naizela auzi ontan sartu beste iñoren ondoren, bukatutzat zenedukan eztabaidari su berria eman nayer. Zuri gertatua gertatu zait neri ere. Nere lantxoaren zure 1961-koa aurrean nuela egiña da, orain lau-bost urte. Orainsu argitara eman badute, ez da nerea izan ogena: zurea ere ez.

Gayari natxikola, zer esango dizut? Ez duzula nik idatzia ongi irakurri. Nik ez nizun aipatu -tzaz edo -etzaz pluralekoa

bestarik. Zuzen zabilta, nik atera nituan Egiategi orren esaera guztiak pluralekoak zirela diozunean. Nik ez nuen bestarik esaten. Oker zaude nire "tesisaren zurkaitz bezela" Intxauspe (1815-1902) eta Egiategi (1841) artzen ditudala esatean. Nik Egiategi (1782) ta *Uskara libria* aipatzen nituen, biak emezortzigarren mendekoak, ez emeretzigarrenekoak. Beraz, ez dezakegu esan *-tzaz* edo *-etzaz* atzizki ori forma lojikutzat emeretzigarren mendean asmatua denik.

Gañerakoan, Egiategi ta *Uskara libria* ez daude bakarrik. Antziñagoko da *Jesukristen Imitazionia* (1756-57), Zuberoko uskalarat utzulia. Martin Maister omen da itzultzallea, Laffite apezaren iritiz orai idazle gazteek eredu ta jarraibidetzat artu bear luketena. Onen liburua ere olako atzizkiz josirik dugu: "Aita santien exemplietzaz, obretzaz, phenetzaz, miserietzaz, estekamendu gaixtuetzaz". Beti, orlaxe. Zuberoko *-etzaz* eta Lapurdiko *-etaz*, ez dituzu beraz lojika-bidez oraitsu asmatuak. Aurrekoari lojika-lana ezarten diogunok, dakusagun lenbizi geratu ez ote gabiltzan gaitz berak jota, lojika-lanean buruak austen, gere aurre-iritzi edo gere tesisai eustearren. Gauzak diren bezala dira, ez guk nai gintuzken bezala.

Beste oker-iritzi bat ere ba da zure erantzunean: *Tartas* Zuberoko idazletzat artzea, alegia. Zuberotarra izan arren, ez zuen Zuberoko uskaraz idatzi, beste nahastekako "euskara" batez baizik. Berak ere ola dio: "Ene euskara eta lengajia eztakit aprobatia izanen denez, bai ala ez; badu orotarik zerbait, Zuberook, Basse-nabarrek eta Lapurdik eman drauko zerbait".

Ba dakusazu, beraz, *-tzaz* edo *-etzaz* atzizki orrek ba duela osaba onik eta garbirik gure klasikoetan; ez duela kirastua deitza merezi; ez dela norbaitek oraitsu buru-zorrozkeriz asmatua. Nire lantxoaren arretaz irakur badezazu, orixe esatera atera nintzen ni, ez nere izenean, ta bai gure klasikoenean.

Goazen orain beste zuretzat asarrebide izan den gai batera. Emen ere ba dugu oker-aiturik. Zure *Amasei seme Euskalerriko* orren goraberako zer ori nik iraitzean bakarrik aipatu nuen; eta, gañera, ez iñor txuliatzeagaitik, zuk uste izan duzun bezala. Zuk ola uste izan duzu, nere lantxoaren oraintsu eginberria zelakoan. Esan dudan bezala, zure 1961-koa irakurri berrian egiña da. Eta zuk, orduko lan artan, luze xamar ekin zenion zure liburu orren titulua-

ren alde, Aurraitz-en aurka. Nik uste nuen zuk zere iritziari eus-
teko ekarritako adibideak ez zeudela argi. Zerrenda luzea atera
zenuen, baña guziak person-izenenak: Milia Lasturko, Maria Bal-
dako, ta olakoak. Orain ere ayen antzekoak ekarri dituzu: Aita
San Iñazio Loyolakoa, Peru Abendañoko... Eta nik oartxo bat
egin nai izan nuen. Donostian jayo den batengatik irutara esan
gentzake: Donostiarra dela, Donostikoa dela naiz Donostiako
semea (edo alaba) dela; baña ez, nere ustez, seme Donostiakoa.
Argitasuntxoa bear zen emen, nere ustez eta zuk ala eman duzu,
eta kito! Len ere esan nuen ez nuela auzi ortan sartzeko gogorik,
eta gutxiago iñor txuliatuz atsegin artzekorik. Gauzak nola artu,
alaxe dira guretzat sarri. Eta ori aldarteak, gogaldiak egiten du
geyenetan.

*Zurekin baiño auzi beltzagoa daukat orain Jakin-en Zuzen-
daritzarekin. Iñorako irteerarik gabe jarri naute oyek: pareta
batetik, ezpata bestetik. Au dut istillua! Itz aztunak entzun ditut:
norbait jo egin dudala, aurrez aur jo ere. Ezta ortako eskubiderik.
Jakiña. Ideiak epaitu, baña ez iñor iraindu. Irainduak min artu
omen du. Irainduaren izena ere eman dute, nik eman ez nuen
arren. Emen ere joango ote gera arira?*

*Egin ote dut nik ideiak epaitu edo aipatu besterik? Egia ez
al da norbaitek gure klasikoeri ezarri dietena "senar-emazte" ta
"ezkondu" itzei buruz? Ez al da egia berorrek esana: alegia, gure
artean askok itz oyek zuzen erabilten ikasi bearra dutela, ta oker
erabilliz birao edo egiten dutela? Ideia ez al da, eta ez al da
gañera egia, Leizarragak, Larregik, Haranederrek, Duvoisinek,
Uriartek, Lardizabalek, Etxeberrik eta beste zenbaitzuek, klasi-
kotzat ditugun oyek, Mari ta Jose ezkontutzat zeuzkatela, ta senar-
emazte egiten zituztela? Oraindik ez dut puskatu gai onezaz aspal-
di egin nuen lana, gure klasiko oyen textuak adibidetzat bildurik
egiña. Lantxo urari ez zioten aterik zabaldu. Zergatik? Or kon-
pon. Nik ez diot iñori konturik eskatuko. Baña auzi ori oroituaz,
nori ta zergatik egiten diot nik irainik, edo bidegaberik, batez ere
iñoren izenik atera ez dudanean? Neri egotzi bear didate ogen
ori? Eztakit nondik nora. Argiak gaude ideiak epaitzeko, aipatze-
ko ere aukerarik ez eskubiderik ezpalinbadugu.*

*Apez edo apezpiku deiturik eman ote dut irain ori? Baña dei-
tura ori ematea gayak berak, tituluak berak zekarren. Nere lanean*

guziok giñen apez edo apez-nai; guziok azken-itza eman-naiak, nerau ere tarteko nintzela. Olako tankeraz egindako lan batean, gero norbaiti banazean apez deitzea nork artu bear du iraingarritzat, zerbaitetan azken-itza esan bearra erakusten duenean? Irakur bedi nik esana ta idatzia arretazago eta umore obez, eta ez diozute irain-kutsurik arkituko, nik uste.

Gure erriak, apezten itzarendako esatera ori sortu zuenean, aldarte ohea ta gogaldi zindoagoa erakutsi zigun eta gure erriari ortaz kontu eskatzerik ez dut uste iñoizko apezeri gogoratu zaiotnik. Eta barkaziorik iñori eskatzekotan, ba da nori eskatu; esaterako, gure klasiko ayeri, beren izenean esan ditugun zozokeri bazuengatik, eta bai ayen antzera Andredena Maria ta Jaundone Jose senar-emazte egin dituzten geroko apezeri.

— etxaitzar' i atsegingarritzat —

22-gn. lumeruan, 19-gn. horrialdean, behetik asita zazpigarren lerroan, hutsegite bat izan genuen. (Hainbeste jaulkitzen dira gure borondatearen kontra!) **Etxaide**'k honela izkiriatu zuen: "Orain entzun dezaiozun Baroja'ri". Guk, berriz —ez gaiztakeriz, noski—, hontara aldatu: "Orain entzun dezaiozun Baroja'ri".

Adiskide Yon:

- 1—JAKIN-ek errespetoa zor dizu lehenik. Garbi esateko, ez gera nor zuri "zuzentzen" ausartzeko.
- 2—Bere egunean eskutitzez adierazi genizun bezala, hutsegite hori ez zen izan zuk diozunez: "...zeron eskuz, asmoz eta jakitez egindako aldaketa bat"... , ezjakinkeriarene seme baizik. Oraindik gaztetxo geralako-edo, ez genekigun eztabaida bedekatu horren berri. Ezta ere zu "e" horren kontrako "amorratua" zifanik.
- 3—Horregaitik, zure burua garbitua gelditu dedin auzi hontan, atsegingarri hau eskeintzen dizugu denak ikusteko moduan.
Adiskideki, JAKIN-eko gazteak.

jakin — 22'gna, Arantzazu'n — 1966 —

zuzendari:
j. m. intxausti

zuzenbidea:
arantzazu—oñate

EUSKAL GAZTERIA
KULTURA BIDEETAN

JAKIN aldizkariaren xedea euskerari laguntzea da, euskerazko kultura egiten saiatzea.

herriaren izpiritu ta
kulturaren alde